



• *eus*
Jakin 208

herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2015

Herria,
nazioa, estatua...
eta euskararekin zer?

ALAITZ AIZPURU
HARITZ GARMENDIA
KOLDO IZAGIRRE
UNAI APAOLAZA

JOXE MANUEL ODRIUZOLA
JULE GOIKOETXEA
EDUARDO APODAKA
IDURRE ESKISABEL

EGUNEN GURPILEAN

NAGORE AMONDARAIN · HENRIKE GALARZA
TXERRA RODRIGUEZ · GORKA JULIO

Jakin^{•eus}**208**
herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2015



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAI NAGUSIA Euskara, nazioa, estatua

13 Baginen eta bagara nor

Alaitz Aizpuru

Gerraosteko euskal pentsamendu eta naziogintza berriak ekarritako berrietasunak aztertzen dira, garai berrietara hobeto egokitzen zen euskal mundu eta euskalduntasun berri bat ekarri baitzuten. Orduan jarri ziren egungo euskal naziogintzaren zenbait zimentarri.

25 Euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura

Haritz Garmendia

Euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura aztertzen da. Zehazki, herritarren artean euskararen transmisioa, erabilera eta ezagutza maila zenbat eta altuagoa izan, bozka abertzalearen joerak ere gora egiten duela ondorioztatzen da.

41 Mito baten sorburua

Koldo Izagirre

Erakargarritasunaren mitoaz egiten da gogoeta: gaztelania eta frantsesa bezain erakargarri, erabilgarri eta atsegingarri izatea da euskara hedatzeko gakoa. Egoera kolektibo bat, arazo sozial bat arazo pertsonal bihurtzeko amarrutzat jotzen da ideia hori.

51 Nazio hizkuntza izateari utzi estatu hizkuntza izan ahal izateko

Unai Apaolaza

Nazioaren eta euskararen bateratzea estatu bat lortzeko eta euskara normalizatzekeo estrategia egokia den aztertuz, estrategia nazionalistaren hainbat aurreiritzi erlatibizatu eta euskararen normalizaziorako estrategia eraginkorraren inguruan hausnartzen da.

65 Formulazio politikoaren bila

Joxe Manuel Odriozola

Nazio-identitatearen sisteman hizkuntzaren leku hegemonikoa inork zalantzan jartzen ez duenez, euskal estatu eta naziogintzaren eraikuntzan euskararen balioa gutxiesteko saioket nazio-krisi latza eragiten dutela argudiatzen da.

77 Euskara, estatua eta feminismoa

Jule Goikoetxea

Euskara eta emakumea subalternitatetik ateratzeko, euskal estatu feministaren bidea proposatzen da: euskal estatua euskalduna, demokratikoa eta feminista izango da, baldin eta feminismoa, euskara eta demokrazia hegemonikoak bilakatzen badira.

91 Euskal errepublika independenteaz

Eduardo Apodaka

Unibertsaltasun zaharraren kontra, eta oinarrian duen totalizazio desiraren kontra, dibertso subordinatuen artikulazioa defendatzen da, hori subjektibitate baztertu eta menderatuen unibertsaltasunean oinarriturik. Hemen herria mamitu duen ariketarik zabalduena Euskal Herriaren aldeko mugimendua izan da; haren bi erroak (erakunde propioen defentsa eta euskalgintza) bereizteak ez du zentzurik, hobe (gure, edonoren) gainerako subjektibitate subordinatuekin artikulazioa lortzea.

107 Amaiur berri baten alde: emakumeena, prekarioena, euskaldunena

Idurre Eskisabel

Ziklo politiko berriaren hastapenetan, galdera zaharrak datozkigu forma eta indar berriz: zerk egiten gaituen *gu*, komunitate, zer den identitate berezitua. Alboratu orde, formulazio eta esanahi berriz ekartzea proposatzen da: *gu*-aren oreka demokrazia sakoneren parametroetan jartzea, irudikapen eta balio ireki, zabal eta harkorrez.

EGUNEN GURPILEAN

123 Kultura

Nagore Amondarain

129 Ekonomia

Henrike Galarza

135 Soziolinguistika

Txerra Rodriguez

141 Telepolis

Gorka Julio

KONTRAZALA Unai Iturriaga

BASQUE LANGUAGE, NATION, STATE

We had and still have the *raison d'être*

Alaitz Aizpuru, a Philosophy graduate, analyzes the contribution made by new Basque thought and the renewal of nationalism in the post-World War II years. This entailed a new way of understanding all things Basque that was better suited to the spirit of the age and laid the foundations for the current national construction model. **Alaitz Aizpuru**

The relationship between the Basque language and the nationalist vote

Haritz Garmendia, holding a PhD in Sociology, analyzes the relationship between the Basque language and the nationalist vote. Specifically, the author concludes that the level of transmission, use and knowledge of the language has a bearing on the tendency towards the nationalist vote. **Haritz Garmendia**

The origin of a myth

The writer Koldo Izagirre reflects on the myth of attraction: the key to expansion of the Basque language lies in its being as attractive, useful and gratifying as Spanish and French. We are facing the challenge of transforming a collective situation or social problem into a specific or personal one. **Koldo Izagirre**

No longer being a national language so as to be a state language

Unai Apaolaza, a Philosophy graduate, wonders whether the union of nation and Basque language is a suitable strategy for constituting a state and normalizing the Basque language. The author plays down a range of prejudices regarding the nationalist strategy and reflects on the effective strategy for normalization of the Basque language. **Unai Apaolaza**

In search of political formulation

The writer Joxe Manuel Odriozola argues that, as nobody calls into question the hegemonic place occupied by the language within the national identity system, attempts to undervalue the Basque language in the national and state construction process lead to a serious national crisis. Indeed, the original pro-linguistic and cultural identity policy of the Basque nation is subordinate to other objectives. **Joxe Manuel Odriozola**

Basque language, state and feminism

Jule Goikoetxea, a lecturer in Political Science, proposes the feminist route to the Basque State in order to rescue the Basque language and women from subordination –a Basque-speaking, democratic and feminist state– provided that feminism, the Basque language and democracy become hegemonic. **Jule Goikoetxea**

About the independent Basque Republic

Eduardo Apodaka, a lecturer in Social Psychology, defends the articulation of subordinate diversity via the universality of marginalized and subjugated subjectivities against old-school universality and its desire for totalization. The author argues that there is no point in separating the two roots of the movement in favor of the Basque Country (the defense of its own institutions and the movement in favor of the Basque language), instead advocating its articulation alongside the other subordinate subjectivities. **Eduardo Apodaka**

In favor of a new Amaiur

Idurre Eskisabel, journalist and member of the Jakin Editorial Board, maintains that at this time when we are currently experiencing the beginning of a new political cycle, old questions resurface with new verve –what makes us *us*, a community, and what does a differing identity consist of? Rather than abandoning these questions, the author suggests reformulating them with new meanings: shaping that us based on more profoundly-democratic parameters using open-minded, wide-ranging and inclusive imagery and values. **Idurre Eskisabel**

NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Nagore Amondarain, Henrike Galarza, Txerra Rodriguez and Gorka Julio. **Various authors**

Euskaingintza eta abertzaletasunaren arteko dibortzio kanpaiak inoiz baino ozenago entzuten dira azkenaldian. Are, baita independentzia eta abertzaletasunaren arteko banaketarenak ere. Eta, horren haritik tiraka, baita euskara eta independentziaren arteko krisiarena ere. Horrekin batera, euskaingintzak diskurtsoa berritzeko beharra duela aipatzen da gero eta sarrigo, bereziki bere baitatik. Galdera berriak agertu dira, berriak edo berrituak, edo, zaharrak, baina inoiz baino gardenago formulatuta. Ahots eta iritzi interesgarri eta kontrajarriekin bete zaigu plaza azkenaldian.

Eta zergatik orain, galde lezake inork? Kataluniako eta Eskoziako prozesu subiranisten uhinen aparrak euskal estatuaren eta berori lortzeko bidearen nolakotasunaren eztabaida hauspotu du. Erantzun bat izan liteke, baina ez bakarra. Instituzionalizazio politiko autonomikoa garatua dagoenean, eta hizkuntzaren normalizazioan espero ziren emaitza guztiak erdietsi ez direnean, eta gizartearen aldaketa sozial, ekonomiko eta teknologikoak azkartu direnean, ETAk bere jarduna amaitu izanak ziklo berri baten atarian egotearen sentipena indartu du, eremu politikoan bezala eremu sozialean eta, baita, nola ez, euskararen normalizazioan.

Eztabaida bizirik dago, lehen bezala orain. Lehen diogunean, 50eko hamarkadatik gaur egunerako epea hartu nahi dugu, hain zuzen garai hartan eragin zelako gaur arte iraun duen, eta, ziu- rrenik diskurtso abertzaleak izan duen aldaketarik nabarmenena: ordura arteko nazionalismoan arrazaren ideia sabindarrak zuen zentralitatea euskarak ordezkatu zuenean. Hori da Txillardegiri –asko sinplifikatuz, jakina–, hori da Ekin-ETA mugimenduaren ekarpen nagusietako bat. Alegia, euskara erabiltzea eta ikastea nazioa berreraikitze elementu giltzarri izango da, bai maila sinbolikoan baina baita praktikoan ere. Euskara nazioa eratzeko eta nazioa kide izateko elementu politikoak izango da. Aldarrikapen nagusietako bat bihurtuko da Euskal Herri euskalduna lortzea.

Euskararen zentralitate berri hori garrantzitsua izan zen diskurtso aldaketa ekarri zuelako eta euskaltzalearen begietara herrigintza eta estatugintzaren erdigunera euskara ekarri zuelako. Bai, baina, baita ere, Alaitz Aizpuruk bere artikuluan dioen legez, «garai berrietara gehiago egokitzen zen euskal mundu berri bat eta berarekin euskalduntasun berri bat sortu zirelako».

Eztabaida zahar-berri honen oinarrian Txillardegiren 'Euskal Herri euskalduna lortzea' –nazioa eta estatua– tesia kokatzen badugu, galdera nagusi bat planteatzen zaigu gaur: orduko borrokaren arrazoi eta helburu nagusia gaur egun indarrean al dago? Alegia, euskara erabiltzeak eta ikasteak nazioa berreraikitzeke elementu giltzarri izaten segitzen al du abertzaleentzat? Hizkuntzaren normalizazioak, helburu nagusi izateaz gainera, arrazoi-kausa nagusi ere izaten jarraitzen al du? Iparra bera al da? Edo, iparra aldatu egin da? Ipar gehiago agertu, agian? Helburua aldatu? Ugari? Abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna dibortzioaren atarian al daude orain inoiz baino gehiago? Eta independentismoari eta abertzaletasunari ere nork bere bidea egitea komeni al zaie?

Horrek guztiak kezka eta tentsioak sortzen ditu, euskaltzale eta abertzale binomioan sinesten dutenengan bezala, hizkuntza eta kulturaren prozesuarentzat autonomia eskatzen dutenengan ere. Ez da tentsio berria. Ez da berria, ezta ere, hizkuntzaren balio simbolikoa defendatu bai, baina kontrako praktikak egitea egozte alderdi abertzaleei. Beti izan da tentsio handiko harremana, besteak beste, euskaldunak, elebidunak gutxiengo garelako, erdaldun elebakarrak direlako gehiengo, eta euskarak abertzaletasunari bere idearioa zabaltzeko muga praktikoak ekarri dizkiola esaten delako. Baina ideario horretan ez al dago bada euskara? Ideario horretan ze leku du euskarak?

Sektore euskaltzaleenaren aurrean zer nola erantzun ez du jakin askotan abertzaletasunak. Kontraesanean bizi duelako: maila simbolikoan (hizkuntza ideologian, hizkuntzaren inguruko sinesmen, ideia, jarrera eta balioetan) babestuz, baina maila praktikoan (hizkuntza politikan, hizkuntza bizikidetzat antolatzeke ekimen politikoan) kontrara jokatu. Nahi eta ezinean bezala, sarritan. Ez beti, eta ezta alderdi abertzale guztiak modu eta maila berean.

Eta, hala ere, ukazina da boz abertzaleen eta euskaldun kopuruaren arteko korrelazioa existitzen dela. Hala ondorioztatzen du Haritz Garmendiaren ikerketak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako emaitzei begiratuta. Ondorioak argiak dira: «Euskararen transmisioa, erabilera eta ezagutza maila zenbat eta altuagoa izan, abertzale bozkatzeko joerak gora egiten du», dio Garmendiak. Alegia, bozka euskalduna abertzalea dela nagusiki. Beraz, zenbaki hutsei begiratuta, dilema bat planteatzen zaio abertzaletasunari: euskara muga izan liteke, bai, baina euskararik gabe zer/zenbat galtzen du?

Eduardo Apodakak ere bere idatzian konstatazio bera egiten du, eta horren zergatia arrazoitzen: euskaltzale gehienak abertzale eta are independentista dira euskaldunak direlako euskal estatu baten

beharra gehien sentitzen dutenak, gaurko estatuekiko talka egunero-ko ogia dutelako euskaldun praktikante izateko borondate horretan.

Euskaldun izateko borondatea gakoa da gaurko testuinguruan. Euskalgintzaren diskurtsoan ardatz aldaketa bat sumatzen da: identitate gutxiago eta eskubide gehiago, nolabait esatearren. Koldo Izagirrek bere idatzian dio badirudiela «beldur garela euskarak *mundutar izateko* balio duela esateko, euskarak *herritasuna* ematen duela, identitate kultural trinko hau. Identitate politikoaren ataria izan litekeena, bai». Euskara identitate, baina identitate politiko. Euskararen eta euskal hiztunon eskubide sozial eta demokratikoen –eta, horrenbestez, herritar guztien eskubide eta betebehar– diskurtsoa indar hartzen ari da. Hori ere politikoa da, erabat, eta zergatik ez, baita identitarioa ere. Dagoeneko banaketa ez da euskaldunak edota espainolak, baizik eta elebakarrak eta elebidunak, Andoni Eizagirren iritzian. Bereziki, eremu ez-abertzaletik euskararen eskubide linguistikoak vs askatasuna diskurtsoa indarrez indarrean jarri dutenetik. Alegia, Koldo Izagirrek beste modu batez dioena: «Egoera kolektibo bati, arazo sozial bati zor zaion irtenbidea arazo pertsonala bihurtzeko amarrua da erakargarritasuna: kontaktuan dauden hizkuntzak indar korrelazioan daude beti, eta gurean batak borondatea dauka, besteak estatuak ematen dion derrigortasuna».

Jakina, borondatea ez da nahikoa. Hain zuzen, hizkuntzaz hitz egitea hizkuntzez hitz egitea delako. Botere borroka dago harreman guztien oinarrian. Partikulartasunen eta hegemonien arteko lehia, nahi bada. Zer den totala eta zer partziala, zer zentrala eta zer osagarria. Izan ere, partikularra, bere horretan, guztia da: euskalduna bezain partikularra da espainola eta frantsesa, baina unibertsalki inposaturiko nortasunak dira. Estatuak izateak, antza, ikaragarri laguntzen du, estatua denik eta tresna normalizatzaile indartsuena baita oraindik ere.

Zentzu horretan, subiranotasunaren bidean ere planteatzen da zerk behar duen partzial izan eta zerk total. Estatuaren desira bera al den hegemonia nagusia, eta gainontzeko tasunak –aldaketa eta eraldaketarako bokazioa duten mugimenduak– haren meneko behar duten izan; euskarak hegemoniko izan behar duen edota izan ahal duen, demagun, Jule Goikoetxearentzat feminismoak –gizarte berdinzale eta demokratikoago baten paradigma integralena delako– hegemoniko izan behar duen modu berean, euskarak ere izan behar duelako. Hegemonia bikoitza. Edo, beste modu batez esanda, tasun denak partzial baina denak elkarrekin kutsatuta eta artikulatuta, eta nolabait hegemonia bat osatuta, eta estatugin-tza prozesua eraldaketa espazio eta aukera gisa ulertuta, Eduardo

Apodakak proposatzen duen bezala. Hain zuzen, Ernesto Laclauri jarraituz Mario Zubiagak eta bestetzuek estatugintzaren inguruko artikulazioa lortzeko modu eraginkorrena estatua esanahiz hustea dela diotenen kontrara, eraginkorrena estatua esanahiz betetzea dela iritzi dio Apodakak.

Euskararen lekua erdigunean ikusten du Joxe Manuel Odriozolak: «Euskal estatuaren formulazioan abertzaletasunaren aldaera guztiak dabilta oker euskara borrokaren erdigunetik periferiara baztertuta». Eta areago: «Herri eta nazio gisa Euskal Herriaren baliarik behinena euskalduntasunean datza. Estatu bat behar du gure herriak beste modu batera garatu eta eutsi ezin dion euskalduntasun hori sustatu, biziberritu eta gauzatzeko».

Unai Apaolazaren ustez, aitzitik, abertzaletasuna eta euskalgintza banatzea beharrezkoa da, biek aurrera egingo badute: «Estrategia abertzaleak ezin dio euskarari normalizazioa eman, eta, alderantziz, euskarak abertzaletasunari ezin dio estatua lortzeko indarra izango zukeen adina independentismorik artikulatu. Ezkontza horrek euskarari abertzaletasunaren mugak jarri baitizkio, eta abertzaletasunari euskararenak. Gurpil zoro hori da apurtu beharrekoa».

Euskararen normalizazioa estatuak bakarrik ekar lezakeela uste du Apaolazak. Ez dela nahikoa estatua, baina bai derrigorrezko baldintza. Eta horregatik dio euskalgintzak abertzale izateari utzi eta estatua eskatzen hasi behar duela.

Idurre Eskisabelek biak bateratzeko proposamen berritua egiten digu: identitatea eta eskubideak. Alegia, 'herri gogoa' eta demokrazia. Herria badela dio, euskararen ideiaaren pean mamitzen dena; 'gogo' hori berritu egin behar dela, baina ez ukatu. Eta berritzea euskara gizartea demokratizatzeke tresna gisa erabiltzetik etorriko dela.

Unai Iturriagak, kontrazalean, kontra-errealitatera jaitsi gaitu: herri gogoa, Humboldtten Volksgeist baino Volkswagen nahiago ez ote dugun gaur-gaurkoz. Baliteke, baina ez nuke esango gauza bera ez direnik. Txillardegik eta enparauek lortu bezala, garai berrietara hobeto egokitzen den euskal mundu berri bat eta berarekin euskaltasun berri bat sortu behar dugu. Eta ari gara sortzen, ari garenez. Etengabean gainera.

EUSKARA, NAZIOA, ESTATUA

- 13** Baginen eta bagara nor
Alaitz Aizpuru
- 25** Euskara eta bozka abertzalearen
arteko lotura
Haritz Garmendia
- 41** Mito baten sorburua
Koldo Izagirre
- 51** Nazio hizkuntza izateari utzi
estatu hizkuntza izan ahal izateko
Unai Apaolaza
- 65** Formulazio politikoaren bila
Joxe Manuel Odriozola
- 77** Euskara, estatua eta feminismoa
Jule Goikoetxea
- 91** Euskal errepublika independenteaz
Eduardo Apodaka
- 107** Amaiur berri baten alde: emakumeena,
prekarioena, euskaldunena
Idurre Eskisabel

Baginen eta bagara nor

Alaitz Aizpuru
Filosofian lizentziaduna

Pasa den martxoaren 29an, Korrika 19 amaiera eguna Bilbon, Lorea Agirrereren *Bagara nor* testuko hitzak entzun eta gerraosteko euskal abertzaletasun, orduan berri, hartaz oroitu nintzen. Txillardegiz oroitu nintzen, bere garaiaz, bere garaikideez. Eta behinola, duela zenbait hamarkada euskaltzaleen ahotan zebiltzan hitz eta ideia haiek gaur Bilboko oholtza gainean entzuteak, oraindik ere euskaldunon ahotan zentzua hartzen dutela ikusteak... indarra har lezaketela agian pentsatzeak, sentipen nahasi bat sortu zidan. Aldi berean, horren urruti eta horren gertu, denboran zein egoeran.

Hurrengo egunean, Agirrereren idatzia oso «politikoa» zela entzun nion ETB1eko hizlari bati, eta horretan ere garai zaharrak etorri zitzaizkidan burura.

Euskara eta herrigintza, naziogintza eta estatugintza ditugu hizpide gaur, atzo ere izan zituzten eta ez zuten eztabaida gutxi piztu. Diodan atzo hori zer ote den, eta, ondorioz, nondik ote gatozen pixka bat argitzea dagokigu orriotan. Ondoren, non gauden eta nora goazen argiago edukitzeko itxaropenez edo.

Atzoko zenbait ideiek oraindik ere gaurko diskurtsoan lekua dutelako ustekoa naiz ni. Hala, atzokoa eta gaurkoa funtsean oraindik ez daudela elkarrengandik horren urruti ikusteko, Agirrereren *Bagara nor*-eko hitz batzuk hartuko ditugu aitzakiatzat, eta bidelaguntzat konpainia ona jarriko

diegu, Txillardegi. Euskararen aldeko borrokan, ezin ahaztu euskararen inguruan izan diren eztabaida orotan han erdian eta oro har gerraosteko euskal belaunaldiaren hamaika afe-ratan bide-urratzaile izandakoa.

Nondik gatoz ba?

Gerraosteko euskal pentsamendu eta naziogintza berriak ekarri zuen berritasunik gerraurrekoarekin alderatuz. Egungo egunetara iritsi zaizkigun berritasunak batzuk, beste batzuk ez hainbeste. Aurretik zegoenarekiko erabateko eta bat-bateko hausketaz eta belaunaldien arteko talka garbiaz hitz egitea gehiegixko sinplifikatzea bada ere (kuadrilla heterogeneo xamarra izan ziren euskalduntasun berri haren oinarriak jartzen ibili zirenak, eta hasieran beren aurrekarien

bideari jarraituz, gainera), hauxe eztaba daezina da: urteek aurrera egin ahala garai berrietara gehiago egokitzen zen euskal mundu berri bat eta berarekin euskalduntasun berri bat sortu zirela.

Beste ezeren aurretik, gerraosteko urte amiltsu haietan, gizakia eta bizitza ulertzeko modua bera aldatu zela azpimarratuko nuke, eta horren eskutik etorri zirela

Gerraosteko urte amiltsu haietan, gizakia eta bizitza ulertzeko modua bera aldatu zen, eta horren eskutik etorri ziren ondorengo beste ideia oro

ondorengo beste ideia oro. Behinolako egia ziur eta sinesmen finkoen arrakalatik etorri zela, beraz, aldaketa. Krisi giro betean, gerraosteko gainbehera moralean, gazte jendearen ezinbesteko beharra aurrera jarraitzeko era topatzea izango zela, norbera eta mundua ulertzeko modu berri bat doitzea, garai berrietarako.

Gerraurreko euskalduntasun hilotz bati kateatuta jarraitzen zuen euskal munduari abertzaletasun eta kristautasun berri baten ezinbesteko beharraz ohartarazi nahi izan zion. Iragandako kultura eta Jainkoaren ideia dogmatiko bati hertsiki

helduta bizitzen jarraitu anakronikoki edo garaiaren beharretara eguneratu, aldatuz eta birpentsatuz. Euskalduntasuna, abertzaletasuna, gizatasuna, kristautasuna... izateko modu esentzialista, itxi eta geldia izan beharrean, eraikitzen, aldatzen, etengabe egiten ari ziren elementu eta egin behartzat ulertaraziz.

Urteek berekin dakarten distantziaz, nekeza egiten da gaur garai hura bizi izan ez genuenoi aldaketaren zenbaterainokoa irudikatzea.

Egiten duguna gara

Gerraosteko belaunaldiari, askotan, irakurri eta entzun izan diogu bere testigantzetan, gaztetandik izan zutela debekatua, zapaldua, ukatua galtzear zen kultura eta herri baten kide zirelako sentipena. Eta horien harridura eta asaldurarako, egoera haren aurrean gelditasuna eta itxarotea zirela helduetarik gehienek praktikatu eta predikatzen zutena. «Mendebaldeko demokratek badakite hemen zer gertatu den, itxaron beraz!» (Txillardeggi, 1974: 27).

Ordurarteko zai egotetik, jai zegoen. Oso mingarria zen, lotsagarria zen, nahi duzuen. Baina zai egotea denbora galtzea besterik ez zen. Eta guk, Ekin-ekook, gazteak ginelako besterik gabe, eta porrot pertsonalik onartu behar ez genuelako, argi eta garbi esan genuen: PNVk (eta Baionako Itunak, orduko Ajuria-Eneak) gidatzen duen politikak ez darama INORA.

Eskandalu izugarria zen hau. Gerla egindakoek (ulergarria denez) ezin zezaketen horrelakorik irents. [...]

Bide berri bat bilatzekotan egin zen 1956ko Biltzarre Nagusirako deialdia. Baina Parisen, espero zitekeenaren aurka, geldizaleak nagusitu ziren. [...]

Gazteei eta berrizaleei bidea ireki beharrean, bideak hertsia egin zitzaizkien (Txillardeggi, 1994: 186-187).

Ez genuen guk kanpoko indarren eta Estatuen laguntzan ezertxo ere sinesten. Guk euskal estrategia eraiki nahi genuen. Euskal indarretan oinarritua. Sekula-sekulotan 'aro hobeen zain' egon gabe. [...]

Honela sortu zen Ekin, eta ez bestela (*ibidem*: 190).

Eutsi (EGIkoen agerkaria) edo *Erresistentzia* (garaiko beste agerkari bat) ordez, *Ekin* jarri zioten izena beren buletinari, eta buletin horren izenetik eratorriko zen gero ETaren aurrerakaria izango zen Ekin taldearen izena. Inguruko joeren kontra, izaera eta asmo ekintzaileak piztu nahi.

Lehenagotik ere aski hausnartua, Hegelez gero praxi eta ekintzaren auzia garaiko mugimendu filosofiko eta sozial garrantzitsuenetan agertzen da. Pentsamendu marxista eta mugimendu pragmatistaz gain, filosofia praktikoez presentzia garrantzitsua izan zuten urte haietan. Mugimendu fenomenologikoan orokorrean, esate baterako, eta garaian boladan zen pensamendu existentzialistan bereziki. Giza ekintza gai zentrala bihurtzen da, gelditasunari toki txikia utziz. Norbere bizitza eta etorkizuna, norbere herriarena nahiz hizkuntzarena bezalaxe, ekin behar, egin behar bat da. Delegatu ezin den zeregina. Determinismo eta masa joera erosoan aurkako jarrera garbia.

Ekintzailetasunaren zergatian sakontzeko, denbora berri batez hitz egitea ere ez litzateke esajerazio izango. Iraganeko Euskal Herri eta euskalduntasunari begira, atzeraka, usadioari nola edo hala heldu nahian bizi zirenen aurrez aurre, pensamendu berriak etorkizunean jarriko du jomuga. Ez baina garaian ere modan ziren ikuspuntu eboluzionista linealen aldera, baizik eta autore existentzialek berekin zekarten beste denboratasun batekin. Lehenalditik etorkizunera eta ondoren oraindira datorren denboratasun bat.

Gu gaur garen hau izatera, gure konkretutasun kokatu, situatu (garaiko beste hitz preziatu bat, euskal idatzietan ere han eta hemen irakurriko duguna) honetan egotera, gure lehenaldiak ekarri gaitu. Hori da, horrenbestez, gure abiapuntu ekidinezina edozertarako, ezin dugu hori guztia bazter utzi. Hala eta guztiz ere, gizakia ez da izaki bukatua, alde zurretik definitua, determinatua eta itxia den zerbait. Etorkizunera begira gauzatzen den proiektu bat da. Etorkizuna beti buruan izanik, etengabe eginez, aukeratuz, aldatuz doan proiektu irekia eta anizkoitza. Hortaz, gizakia orainaldia

etengabe etorkizuneko asmoez transzenditzen duen askatasuna da. Oraina, lehenaldiak bezainbeste, geroak bustitzen du.

Halatan, gizaki askeari etorkizuneko proiektua gauzatzen saiatzea dagokio, finean, bere helburua lortzeko ekitea. Eta ez nolana, helburua lortu nahi bada eraginkortasuna ere ezin baita ahaztu. Ekintzaitasunarekin batera eta hauek ere garaiko kume, praktikotasunak eta eraginkortasunak pisu garrantzitsua izango dute etorkizuneko estrategietan.

Eta egiteko hautatu egin behar da. Euskaldun izatea hautu bat da

«Nik hautua egin nuen: *euskalduna eta abertzalea izatea*» (Txillardegi, 1994: 318).

Txillardegiren lanean, pentsamenduan, bizitzan, hautatu beharra ez da aukera bat izan. Ez da unearen arabera garrantzitsuago ala ez bihur daitekeen momentu puntual zenbaitetako trantze edo dilema bakarrik. Hautatu behar hori bizitzaren parte ezinbestekoa da, euskaldunaren jardunean ekidinezina.

Ezagun denez, bere lehen eleberri hartan ere, «haut-haut» esanez (Kierkegaard-en *aut-aut* ezagunari –latinez, hau ala bestea– h bat gehituz eta hitz joko polita sortuz), hautatze-
ra bultzatzen zuen euskaldun jendea, bere aberriaren alde azalkeriak alde batera utzi eta benetan posizionatzera.

Norbanakoak, eta hala euskaldunak ere, hartzen duen erabaki bakoitzean, egiten duen hautu bakoitzean, hautu horietatik eratortzen den gizartea eratzen ari baita. Bizitzaren, herriaren, hizkuntzaren etorkizuna. Gaurko nire erabakietan ari naiz biharko etorkizuna gorpuzten. Eta hemendik ezin du inork eskapo egin,

Norbanakoak, eta
hala euskaldunak ere,
hartzen duen erabaki
bakoitzean, egiten duen
hautu bakoitzean, hautu
horietatik eratortzen den
gizartea eratzen ari da

baldin eta bere buruarekin kontsekuentea eta koherentea bada behintzat.

Badaki Txillardegik hautatu beharraren zama astuna dela. Uneoro hautatu behar hori gogorra zaiola gizakiari, euskaldunari. Egunero, euskaldun gisa hautu kontziente eta konprometitua gehiegitan garesti eta akigarri zaiola. Badaki. Askozaz ere errazagoa eta eramangarriagoa dela gehiengoaren joerari jarraiki, gure euskalduntasuna hemen bai eta han ez aireratzea, momentuko komenentziaren arabera, abertzale karneta poltsikoan gorde ala ateratzea. Baina euskalduna (ezkertiarra, emakumea, gizona, demokrata...) egunero egiten da, egunero ari da egiten ala desegiten bere hautuen bitartez. Ez dago gelditasun, utzikeria eta nagikeriarentzat tokirik. Euskalduntasunak ez du oporrik ematen, norbere ardura da, eguneroko zeregina, borroka etengabea. Eta Txillardegik badaki hori. Badaki jarrera horrek buruko min andana dakartzala. Ez du ezkutatuko. Bizitza xalo-xalo, lasaigarririk ez espero. Norbere bizitzaren jabe izatea eta nahigabe eta nekeak hautu baten aurkia eta ifrentzua dira. Eskubide eta betebeharrak txanpon beraren bi aurpegi, askatasuna eta askatasun horrek berarekin dakarren errespon-tzabilitatea bezalaxe.

Hizkuntzaren garrantzia. Eta ekarri euskara plazara, eztabaidara...

Euskarak eta oro har hizkuntza gutxituek Txillardegiren bizitzan, idatzietan eta gogoetan garrantzi eta presentzia eskerga izan dutela garbi dago. Aukera aurkeztu zitzaion guztietan, hizkuntzen berezkotasuna, berezitasuna eta beharrezkotasuna azpimarratu zituen. Eta ez zuen paradarik galdu euskararik gabe euskaldunonak eta Euskal Herriarenak egin duela behin eta berriz gogorarazteko. Txillardegirengan eta bere inguruko giroan euskarak leku zentrala betetzen zuen. Zergatik, baina, halako tema? Arrazoiak bat baino gehiago dira, nahiz eta guztiak ere elkarlotuak egon.

Hizkuntza gizakuntzaren funtsa

Txillardegirentzat mintzaira da gizakuntzaren katean pausorik inportanteena eta erabakigarria. Hizkuntza da giza fenomenorik bereziena eta gizatiarrena. Gizakiok giza multzotan bizi gara, eta elkarrekin bizitzeko mintzatu beharra daukagu. Mendez mende elkarturik bizi izanaren ondorio, giza multzo baten kultur desberdintasunaren ardatza hizkuntza bihurtzen da.

Hizkuntza «gain egitura», pentsamenduaren «ropaje», folkloreak partetzat jotzen zen eta hizkuntzei buruzko ardurak kapitalisten kontu ziren urteetan (garaiko zenbait marxisten esanak; ezagunak dira euskaltzaleen eta horien artean izandako tirabirak), Txillardegik, linguistika berria lagun, ez du amore emango bere ekinean, eta euskaldunen artean linguistika berri horren emariak zabaldu nahiko ditu.

Linguistikaren bideetatik abiatutako estrukturalismoaren ‘berri onek’ euskaltzalerik baikorrenaren ametsik onenak gaintitzen zituzten, hizkuntza herri baten iraupenean eta nortasunean ezinbesteko ezaugarria zela esanez. Hizkuntza bakoitzak mundua bere esperientziaren arabera taxutzen, ordenatzen zuela, bakoitzak munduaren, errealitatearen alderdi desberdinak bereizi eta nabarmenduz. Hizkuntza bakoitzak logika desberdin batekin interpretatzen zuela bere ingurua eta, hori dela eta, giza talde bakoitzaren eta hizkuntza bakoitzaren izaera berezi eta errepikaezina. Ordura arte ez bezala, mundua begiratzeko modu berezi bat zen hizkuntza, herri oso baten sorkaria eta lokarria.

Ordura arteko hizkuntzalaritza ‘onartuaren’ hitzetan, gizaki orok logika berdin batekin funtzionatzen zuen. Giza logikaz, eta ez logika kultural partikular batez. Alegia, hizkuntza guztiak errealitate ‘berdin’ batez ari ziren, eta aldatzen zen bakarra hitzak, soinuak ziren, ez mundua ikusteko era. Beraz, hizkuntzak ez zuen beste munduko garrantzirik, hitz lerrokada bat baino ez zen.

Beren ustez, beraz, hiztegi on bat gertatu, eta kitto: problemarik ez. Gure hizkuntza salbatua dagoke... Horren bidez zabaldu zan gure artean ideia zentzugabe hura: abertzaleak agintea lortu, hiztegia

eskuan gauzei izena aldatu [...] eta kitto: euzkotarrak euskaldun, herri osoa euskeraz jator hasiko omen da, eta hizkuntzaren hauzia betirako konpondurik. Erraza, alajaiñetan! (Txillardegi, 2004: 69).

Linguistika berriak 'hitz-zerrenden' ideia hori ezeztatu egingo zuen, mintzaira bakoitzaren originaltasuna eta bakoitzaren estruktura azpimarratuz.

Hizkuntza bakoitzari izaera jakin bat dagokio orduan, eta, hala, giza talde bakoitzari ere. Hizkuntza propio hori izango

Hizkuntza bakoitzari izaera jakin bat dagokio, eta, hala, giza talde bakoitzari ere. Hizkuntza propio hori izango da kultur batasuna emango diona giza talde horri

da kultur batasuna emango diona giza talde horri. Alegia, gure kasura etorritz, euskarak egin du Euskal Herria, euskarak egin du euskalduna eta, alderantziz, euskaldunak euskara. Nola egin uko forma eman digun horri, aldi berean geure buruari uko egin gabe? Nola utzi bide bazterrean garena izateko aukera, bide eta modua eman diguna, geu garena ere hantxe utzi gabe?

Izan ere, euskararen auzia politikoa da. Euskal hiztunon auzia politikoa da

Hizkuntzen garrantzi eza defendatu arren, herri bati bere hizkuntza kentzeak zekartzan abantailak ongi ezagutzen zituzten kolonizatzaile orok, eta hau azpimarratzen du Txillardegik: *ez dago hizkuntz politika deliberaturik ez duen gobernurik! Hizkuntzari buruzko gorabeherak sakonki estudiatzen dituzte herrialde zapaltzaileek!*

Euskararen arazoari zegokionez, bi belaunaldien arteko etenean politikak bazuen zerikusirik. Orduko gazte abertzaleek, euskara Euskal Herriko mintzabide bihurtua ikusi nahi zutenek eta ez garaian indarra hartzen ari zen folklorekeriaren parte soil, oso garbi ikusten zuten euskararen arazoa politikoa zela erabat, hizkuntza baten auzia ez zela hiztunen borondate

kontua soilik. Herri mugimendua ezinbestekoa zela, baina erakunde batzuen sostengua behar-beharrezkoa hizkuntza batek iraungo badu. Kulturazko menpekotasuna menpekotasun politikoaren ondoren zettorrela, eta ez alderantziz. Eta sustraitik egoera politikoa aldatu gabe euskarak jai zuela ikusirik, borroka politikoari heldu zioten. Kulturalismo apolitikoaren aurka posizionatuz eta kulturalista politiko izendatuz euren burua (ez kulturalista soil, zenbaitek esan izan duen moduan).

Sasioan, baina, eta geroago ere, politikarekiko mespretxua giroan zegoen, politikak kalteak besterik ekarri ez zituelako ustea, politikak bazterrak nahastu omen zituelako iritzia eta euskararen kinka larria beste zenbait kausaren ondorio zelako aburua.

Menpeko izateari utzi eta ahalduntzea da kontua

Euskarari horrenbesteko garrantzia ematerakoan, badago beste hautu bat oinarri-oinarrian herri zafratu, zapaldu eta alienatuen aldekoa. «Nik *hautua* egin nuen gaztetan herri zafratu eta iraindu honen alde» (Txillardegi, 1994: 318). Ukatua den herri horren, eguneroko bere jarduerak bestetasunean bizi dituen norbanako kolonizatuz osaturiko herri zapalduaren aldeko jarrera.

Gizabanako bati bere hizkuntzan biziitzea debekatzea bere gizatasuna bera debekatzea da. Bere oinarritzko izatea zapuztea. Norbanako hori existitzea posible egiten duen inguru partikular eta konkretua ezeztatzea norbanakoa bera ezeztatzea da, logika unibertsal eta aurrerazale zapaltzailearen ize-nean boteretsuaren identitatea neutrotzat saldu nahi izatea.

Nongotasunik eta sustrairik gabeko gizatasun abstrakturik ez dago, ordea. Euskalduna bezain partikularra eta nongotarra da espainola, hala frantsesa ere. Ondorioz, gizakiari bere partikularitasun hori erauzi nahi izatea bere izaera indarrez kendu nahi izatea da.

Urte haietan (egun oraindik bezalaxe) partikular/unibertsal nozioen inguruan asko idatzi eta hitz egin zen. Garaiko

deskolonizazio prozesu betean, ordura arte ukaturiko zenbait herrik beraiek ere bazirela nor ikusi baitzuten. Beren kolonizatzaileak bezain subjektu zirela, beren zapaltzaileak bezain partikular zein unibertsal. Ez zegoela herrien, kulturen, eta hizkuntzen historia mailakatu eta linealik. Ez zegoela aurreratuago eta atzeratuago zen herrialderik. Historia besteena bezainbeste izan zitekeela beraiena. Ez zegoela gizatasun mota bakar bat. Funtsean, beraiek ere bazirela nor.

Euskaldun gazteriak hor kokatuko du bere errelatoa. Eta hizkuntza berreskuratzea kendutako identitatearen parte handi bat berreskuratzea izango da.

Euskaigintza, naziogintza, gizagintza. Euskara euskaldunen zerbitzuko

Hizkuntzari emandako lehentasunean, garai hartan eta geroago ere, zenbaitek Txillardegiri hizkuntzaren metafisikan eta dogmakerian jardutea leporatu zioten. Txillardegik hizkuntza beti gizakien zerbitzurako tresnatzat ulertu zuela ahaztuz. Hizkuntza ez zen bere baitan helburu oso bat, eta

ez zen behin ere izan Txillardegiren diskurtsoan ez jardunean. Hizkuntza herriaren zerbitzaria da. Hizkuntza gizakiengan bizi eta bilakatzen da, eta hori go-goan ongi hartzea azpimarratzen du han eta hemen.

Txillardegiren lanean, «herriaren zerbitzura», «euskaldunen zerbitzurako egin behar da lan», «euskara batua eta euskal kultura euskaldunen zerbitzutan egin behar da» eta tankera-

ko esanak usu irakur daitezke. Horra euskara batuaren presa eta garrantzia ere. Euskara doitu behar da euskaldunek beren behar berri guztiak ere ase ditzaten. Hizkuntza bat pertsonen

Hizkuntza bat
pertsonen zerbitzuko
ez izatekotan bere
betekizuna bukatua
du. Euskaigintza
naziogintza eta
gizagintzarekin bat
ulertu behar da, hortaz

zerbitzuko ez izatekotan bere betekizuna bukatua du eta hobe, beraz, geuk hiltzea. Euskalgintza naziogintza eta gizagintzarekin bat ulertu behar da, hortaz.

Askatasuna izan ala ez izan. Horra kakoa

Egoera honetan, eta munduko beste herrialde ugaritara begira jarriz eta Europaren beraren historiari so eginez, Txillardegik eta bere ingurukoek ez dute zalantzarik, konklusioa garbia da. *Askatasuna izan ala ez izan. Horra kakoa*. Gaurko munduan estatuek erabakitzen dute hizkuntzen etorkizuna, eta estaturik gabeko nazio eta hizkuntzek etorkizuna labur dute. Beren buruaren jabe diren herriek akaso salbatuko dute beren hizkuntza, ez direnek argi dago ezetz.

Askatasuna izan ala ez izan, etniaren zerbitzuko erresuma bat sor ala ez sor. Horra kakoa (Txillardegi, 2004: 108).

Euskadi'ko erresuma laister lortzen ez badugu, gure herriarenak egin du (*ibidem*: 116).

Euskadi ala España (eta Frantzia). Hau irakatsi digu kondairaren azterketak (*ibidem*: 117).

Euskal Estatua, Txillardegik «Euskadi» deitzen zuen hori, ezinbestekoa da euskara gordeko badugu.

Aske izateko lotu. Mugitzen ez denak ez ditu-eta kateak sentitzen

«Kolonizatu bat bere hizkuntzaz mintzatzea berez da ekintza iraultzailea», zioen Txillardegik Fanon-en hitzak gogoratuz.

Belaunaldi berria gaur egun maiz entzuten den ideia baten eusle konbentzitua zen. Gizakia kokatua dagoela, ingurumari zehatz baten kondizionamendu jakinen arabera forma hartua. Gizakia zerbait ez bada, hori izaki abstraktua dela. Eta azken ideia faltsu baina zabaldu hori inguruko herri eta pertsonak zapaltzeko eta errealitatetik ihes egiteko biderik lasterrena eta unean uneko euskaldunaren askapenerako eragozpenik eraginkorrena izan zela eta izango

dela. Euskalduntasunak errotik garaikoa izan behar duela gizatasunak bezalaxe, horretarako errealitatearekin eraldatu, zikindu, *lokaztu*, *busti eta kutsatu* behar bada ere. Gaur behar dugulako izan euskaldun; bihar, beharbada, beranduegi izango delako. Garaikoak izatearen premia eta egarria agerikoak dira gerraosteko idatzietan, desgaraikoaren errepikapen itsutik eta kanpotik ezarritako kateetatik askatu nahian. Nahiz eta erronka berriek beti eman ardura.

Egungo Euskal Herriaren eta naziogintzaren zenbat zimentarri orduan eraiki ziren, batzuk besteak baino presenteago ditugu. Erabilgarri zaizkigu batzuk, beste batzuek momentuko gure gizartean badirudi ez dutela leku handirik. Modaz paseak direla esango luke zenbaitek.

Dena dela, eta iritziak iritzi, kontua da, bai atzo eta bai gaur, aske izateko lotu beharra dagoela. Aske izateko lehenik eta behin askatasun hori nondik gauzatuko duzun erabaki, hautatu beharra dagoela. Horrek zenbait gauzari uko egitea suposatzen badu ere. Askatasuna ez baita pikuan gauzatzen den abstrakziorik. Gure nor-tasunean egunero konkistatzen, borrokatzen den zerbait txiki-handia baita. Norbanako bategen egunerokotasunean bere hizkuntzan hitz egin ahal izatea bezain txiki-handia. Baina euskaraz bizi ez denak, euskarari bere bizitzan lekurik ematen ez dion horrek, euskararen kateak eta arantzak sumatzen ez dituen bezala, ezin du ulertu, askatasunaren izenean hain justu, batzuek euskararen aldeko borrokari bizitza oso bat ematea. Mugitzen ez denak argi dago ez dituela kateak sentitzen. 🍷

Bibliografia

- Agirre, J. (1996): *Hitza hitz. Txillardegiarekin solasean*. Donostia, Elkar.
Agirre, L. (2015): *Bagara nor*. Korrikarako idatziriko testua.
Txillardegi [J.L. Alvarez Enparantza] (1974): *Euskal kulturaren zapalke-ta 1956-1981*. Donostia, Elkar.
— (1983): *Huntaz eta hartaz*. Donostia, Elkar.
— (1994): *Euskal Herria helburu*. Tafalla, Txalaparta.
— (2004): *Euskararen aldeko borrokan*. Donostia, Elkar.

Euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura

■ Haritz Garmendia
Soziologian doktoregia UPV/EHU

Artikulu honetan, euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura aztertu nahi da. Modu zehatzago batean esanda, herritarren artean, euskararen transmisioa, erabilera eta ezagutza maila zenbat eta altuagoa izan, abertzale bozkatzeko joerak ere gora egiten ote duen ikusi nahi da. Horretarako, aztergaia EAEko barrutira mugatu dugu. Behin ikerketa esparrua mugatuta, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetako datuak euskararen aldagai ezberdinekin konparatu ditugu¹.

Sei ataletan aztertuko dugu hori guztia. Lehenengo bi ataletan, euskararen egoera soziolinguistikoa aztertzeaz gain, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan bozka abertzaleak lurraldeka izan duen bilakaeran jarriko dugu arreta. Hirugarren eta laugarren ataletan, bi aldagaien arteko erlazioan sakonduko dugu. Bosgarren atalean, berriz, errolda handiena duten udalerrriak ikusiko ditugu. Amaitzeko, seigarren atalean, planteatutako hipotesia betetzen den edo ez ondorioztatuko dugu.


Euskararen egoera soziolinguistikoa: gaitasuna, transmisioa eta erabilera

Euskararen egoera soziolinguistikoan sakontzeko, honako hiru aldagai hauetan jarriko dugu arreta (Eusko Jaurlaritza, 2014): gaitasuna, transmisioa eta erabilera.

Oro har, hiru parametroak aztertuta, euskara osasuntsuen dagoen lurralde historikoa Gipuzkoa dela ikusiko dugu; txanponaren beste alde, berriz, Araba izango litzateke. Nolanahi ere, azken hori 20 urte hauetan euskarak zabalkunde handiena izan duen lurraldea dela esan behar da. Bizkaia bi lurralde historikoen artean kokatuko da, eta, populazio handiena duen lurralde historikoa izaki, EAEko datuak baldintzatuko ditu.

Euskara gaitasuna

Euskara gaitasunari dagokionez, herritar batek euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna badu, euskaldun bezala zenbatuko dugu (Eusko Jaurlaritz, 2014: 29). Kasu horretan, Araba da euskaldunen ehuneko txikiena (%16,8) duen lurraldea. Euskaldun ehuneko handiena duena, berriz, Gipuzkoa litzateke. 2011n, esaterako, gipuzkoarren %53 euskalduna zen. Bizkaiaren kasuan, %31ra iristen zen euskaldunen ehunekoa.




Iturria: Eustat. Etxebizitzen eta Biztanleriaren Zentsua (guk moldatua).

Bilakaerari dagokionez, 1981etik aurrera, euskaldunen ehunekoak hiru lurraldeetan hazkunde nabarmena izan duela ikusten da. Hazkunderik txikiena, %13, Gipuzkoan gertatu da. Hazkunde handiena, aldiz, Araban: 30 urteren buruan,

euskaldunen ehunekoak %4tik %24ra igaro da. 2006tik aurrera, hiru lurralde historikoetan, euskaldunen hazkundera moteldu eta ehunekoak egonkortu egin direla nabaritu daiteke.

Euskararen transmisioa

Hizkuntza transmisioa aztertzeko aldagai eraginkorrena herritarren lehen hizkuntza aztertzea da. Horri buruz ari garenean, umeez hiru urte arte gurasoengandik edo senitatekoengandik jasotako hizkuntza edo hizkuntzei buruz arituko gara (Eusko Jaurlaritza, 2008: 43). Azpiko grafikoan, euskara hutsean hazitakoak eta euskara beste hizkuntza batekin batera jaso duten herritarren ehunekoak batuta azalduko dira.



Iturria: Eustat. Etxebizitzen eta Biztanleriaren Zentsua (guk moldatua).


Gauzak horrela, euskara lehen hizkuntza duten herritarren ehuneko altuenak Gipuzkoako lurralde historikokoak dira. Ehunekoen bilakaerari erreparatuz gero, gainbehera bat nabaritu daitekeen arren, hazkundera negatibo hori pausatua izan da. Bizkaiaren kasuan, azken 25 urteetan, euskara lehen hizkuntza duten herritarren ehunekoak %17ren bueltan mantendu da. Aldaketa esanguratsuen Araban izan da: 25 urtean, euskara lehen hizkuntza duten arabarren ehunekoak bikoiztu egin da.

Euskararen erabilera

Euskararen beste parametro neurgarri bat erabilera da. Egunerokotasunean, ordea, erabilera-eremu ezberdinak izan ditzaitez (Eusko Jaurlaritza, 2013: 40), gure kasuan, etxean erabiltzen den hizkuntza aztertzeraz mugatuko gara. Azpiko grafikoari dagokionez, etxean euskara hutsez bizi direnak eta euskararekin batera beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak batuta azalduko dira.

Alde horretatik, euskara gutxiengoaren etxeko hizkuntza dela ikusi daiteke. Araban, esaterako, 2011n, %7k bakarrik erabiltzen du etxean euskara. Bizkaian euskararen erabilera ez da %15etik igotzen, eta Gipuzkoan herritarren %37k erabiltzen du. Bilakaerari dagokionez, lurralde historiko bakoitzean joera ezberdinak ikusten dira.

*Euskararen etxeko erabileraren bilakaera (%)
EAE eta lurralde historikoetan (1981-2011)*



Iturria: Eustat. Etxebizitzaren eta Biztanleriaren Zentsua (guk moldatua).

Bozka abertzalea Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan

Hauteskundeetako emaitzen azterketa bozka abertzale eta ez-abertzale ardatzean zurkaiztuko dugu. Lehen atalean, sailkapenaren eta laginaren inguruko azalpenak emango ditugu,

eta bigarren atalean hauteskundeetako datuak ustiatuko ditugu.

Lagina eta alderdien sailkapena

Ikerketa hau burutzeko, Eusko Legebiltzarrekoak hauteskundeak (1994-2012) hautatu ditugu. Bestalde, bozka abertzale eta ez-abertzale banaketa azpiko taulan agertzen diren alderdien bidez zehaztuko da. Bozka abertzalearen ehunekoa alderdi abertzale horiek lortutako botoen gehikuntza izango da.

Alderdi abertzaleak Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan (1994-2012)

1994	1998	2001	2005	2009	2012
HB	EH	EH	Aralar	Aralar	EH Bildu
EAJ-PNV	EAJ-PNV	Askatasuna	PCTV-EHAK	D3M	EAJ-PNV
EA	EA	EAJ-PNV / EA	EAJ-PNV / EA	EAJ-PNV	
				EA	

Bozka abertzalearen emaitzak

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan bozka abertzalearen bilakaera aztertzen badugu, 1994ko hauteskundeetatik 2012ko hauteskundeetara, alderdi abertzaleen botoen baturak botoen gehiengoa lortu duela ikusten da. 2012ko hauteskundeetan, gainera, azken 18 urteetako emaitzarik hoberenak lortu ditu.


Lurralde historikoei dagokionez, Gipuzkoa da bozka abertzalearen ehuneko handiena lortzen duen lurraldea. Alabaina, hauteskundearen bilakaera aztertuz gero, 1994-2009 urte bitartean, lurralde horretan bozka abertzaleak beheranzko joera izan duela esan dezakegu.

Bizkaiaren kasuan ere, 1994tik 2009ra bitartean, %4ko jaitsiera izan du bozka abertzaleak. Mikel Aizpuruk (2010) azken urteetako gainbehera horri «abertzalearen hauteskunde-krisia» deitu dio.

Bozka abertzalearen bilakaerari dagokionez, Arabaren kasua berezia da. Beste lurraldeek baino bozka abertzalearen


ehuneko txikiagoa izan arren, 1994-2009 urte bitartean bozka abertzalearen ehunekoak hazkundera izan duen lurralde historiko bakarra izan da.

Bozka abertzalearen bilakaera (%) Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan (1994-2012)



Iturria: Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa. Eusko Jaurlaritza (guk moldatua).

Bozka abertzalearen bilakaera Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan (1994-2012)



Iturria: Hauteskundeetako Emaitzen Artxiboa. Eusko Jaurlaritza (guk moldatua).

Testuinguru politikoa lagun, 2012ko hauteskundeetan, bozka abertzaleak azken 20 urteetako hazkunderik handiena izan du. Ehunekoei dagokienez, hazkunde positibo handiena Bizkaian

gertatu da: 2009ko hauteskondeekin alderatuz, %8 egin du gora. Horrela, botoen %60rekin, bozka abertzalea gehiengoan izan da. Araban ere, aurreko urteetako emaitzekin alderatuz, oso emaitza onak lortu ditu, lehenengo aldiz botoen ia %50 eskuratu baitu. Hiru lurralde historikoen artean datu hoberenak lortu arren, bozka abertzaleak Gipuzkoan izan du hazkunde txikiena: botoen %64rekin, 1994ko ehuneko berdina lortu du.

Euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura

Lehen begiratuan, bozka abertzalearen ehuneko altuenak lurralde euskaldunenak diren Gipuzkoa eta Bizkaiak lortzen dituztela ikus daiteke. Argazki horrek errealitatearen panorama orokorra erakusten duen arren, bi aldagaien artean udalerrri mailan dauden ñabardurak itzalean gelditzen dira. Ondorengo lerroetan, itzalean gelditu dena argitara ateratzen saiatuko gara.

Metodologia

Jarraian, 2012ko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetako datuak 2011ko euskaldunen ehunekoekin alderatuz, udalerrietako errealitate soziopolitikoaz aztertzea izango dugu helburu.

Gogora dezagun bi aldagaien arteko erlazio linealak, hurreman-maila adierazteaz gain, lotura horren norabidea ere adierazten duela. Zenbakizko erlazioa bada, Pearsonen korrelazio-koefizientearen bitartez kuantifikatzen da (Etxeberria, 2011). Gure kasuan, hainbeste sakondu gabe, udalerrri bateko euskaldunen ehunekoa aldatu ahala, bozka abertzalea sistematikoki aldatzen den edo ez aztertuko dugu².

Grafikoko ardatz bakoitzeko aldagaiak

Oinarrizko unitatea	Ardatzak	(X;Y;Z)	Aldagaiak
Udalerrria	X ardatza	Posizioa	Euskaldunak (%)
	Y ardatza	Posizioa	Bozka abertzalea (%)
	Z ardatza	Tamaina	Errollda (herritarrak)

Azterketa hori burutzeko, lurralde historiko bakoitzeko udalerriekin grafiko ezberdinak sortu ditugu. Grafiko horietan,

oinarrizko unitatea udalerria izango da. Udalerri bakoitzak grafikoan izango duen posizioa (X;Y) eta tamaina (Z) goiko taulan agertzen diren aldagai horiek zehaztuko dute.

Gauzak horrela, udalerri bat (borobil bat) grafikoaren eskui-neko eremuan eta goian agertzen bada, udalerri euskalduna dela eta bozka abertzalearen ehuneko altua duela esango dugu. Aldiz, grafikoaren behealdean eta ezkerrean agertzen bada, euskaldun ehuneko baxu eta bozka abertzale ehuneko apaleko udalerria dela esango dugu. Era berean, borobil bakoitzaren tamainak udalerrien errolda adieraziko du. Horrela, Bilbo edota Donostia borobil handi batez irudikatuko diren bezala, Errezil eta Amoroto borobil txiki batez ordezkaturiko dira.

Bestalde, grafikoetatik egingo ditugun hausnarketak ulerterrazagoak izan daitezten, udalerriak hiru multzotan banaturiko ditugun udalerri bakoitzeko euskaldunen ehunekoaren arabera.

Udalerrien sailkapena euskaldunen ehunekoaren arabera

Euskara gaitasuna (%)	%100-%80	A Multzoa	Udalerri oso euskaldunak
	%80-%40	B Multzoa	Udalerri euskaldunak
	%40-%0	C Multzoa	Udalerri ez hain euskaldunak

Gipuzkoako udalerriak


2012ko hauteskundeak aztertuz gero, Gipuzkoako 88 udalerrietan euskara eta bozka abertzalearen arteko erlazioa oso sendoa dela esan daiteke. Euskaldunen ehunekoa igo ahala, bozka abertzalearen ehunekoa ere sistematikoki igotzen dela ikusten da. Ondorioz, eremu ez hain euskaldunetan bozka abertzalea %60tik behera ibiliko den bezala, eremu euskaldunetan bozka abertzalea %80tik gora ibiliko da.

Grafikoari arretaz begiratzen badiogu, Gipuzkoako udalerri guztiek %35etik gorako euskara gaitasuna dutela ikusiko dugu. Hori dela eta, grafikoaren ezkerrean hutsik egongo da. Euskara gaitasun baxuena duten bost udalerriak Irun (36;43)³, Errenteria (38;52), Pasaia (38;60), Lasarte (40;46) eta Donostia (41;52) dira. C multzoan kokaturiko ditugun udalerri horiek,aldi berean, bozka abertzalearen ehuneko txikiak lortzen dituzten udalerriak izan dira.

Udalerrri oso euskaldunetan (A multzoa), bozka abertzalearen ehunekoak oso altuak izan dira. Alde horretatik, udalerrri euskaldun ez-abertzalerik ez izatea deigarria da. Bestalde, Azpeitia (84;90), Mutriku (81;88) eta Getaria (87;93) salbu, beste udalerrri guztietan errolda 2.000 herritarrekoa baino txikiagoa izan da.

B multzoko udalerrrietan, euskaldunen ehunekoa eta bozka abertzalea proportzionalki igotzen direla ikusten da. Udalerrri hauen kasuan, bozka abertzalea %50etik gora ibili da, eta, euskaldunen ehunekoa igo ahala, orduan eta nabarmenagoa izan da bozka abertzalearen nagusitasuna. Multzo honetan, guztira, Gipuzkoako 46 udalerrri daude, hau da, udalerrrien %52.

Aldagaien arteko lotura Gipuzkoako udalerrrietan



Bizkaiko udalerrriak

Aniztasuna da lurralde historiko honen berezitasuna. Alde batetik, udalerrri txiki, abertzale eta euskaldunak ditu, eta, beste aldetik, euskara gaitasun baxuko udalerrri ez hain abertzale ertain eta handiak. Aniztasuna gorabehera, bi aldagaien artean nolabaiteko korrelazio bat nabarmentzen den arren, lotura hori ez da Gipuzkoakoa bezain sendoa. Alabaina, Bizkaiko udalerrri guztietan euskara gaitasuna %10ekoa baino handiagoa dela esan dezakegu, eta bozka abertzalearen


ehunekoa ere %30 baino handiagoa da. Azken hori modu esanguratsuan hazten da udalerrri euskaldunetan.

Bi aldagaien arteko loturari dagokionez, loturarik ahulena C multzoko udalerrrien artean ikusten da. Multzo honetako zenbait udalerrrik, euskaldunen ehuneko jakin baterako, bozka abertzalearen ehuneko oso ezberdinak izan dituzte. Horren adibide dira Barakaldo (18;45) eta Karrantza (19;84). Euskaldunen %1eko ezberdintasuna izanagatik, bozka abertzalearen kasuan %39ko diferentzia izan dute.

B multzoan, bi aldagaien artean erlazio handiagoa nabari da. Udalerrri hauetan, bozka abertzalea %60 baino handiagoa da. Ehuneko hori, gainera, euskara gaitasuna igo ahala haziz doa.

Udalerrri oso euskaldunen kasuan, bozka abertzalea %90 baino handiagoa da. Alde horretatik, multzo honetako Bizkaiko udalerrriak, populazioz, Gipuzkoako zenbait udalerrri baino txikiagoak izan arren, euskararen balio jakin baterako lortuko dituzten bozka abertzalearen ehunekoak handiagoak dira. Joera hori, oro har, Bizkaia osoan gertatzen da.

Aldagaien arteko lotura Bizkaiko udalerrietan



Arabako udalerrriak


Arabako udalerrriak bi multzotan bereizten dira. Alde batetik, euskaldunen ehuneko baxuak dituzten udalerrriak ditugu (C

multzoa), eta, bestetik, Aramaio dago, A multzoan kokatzen den udalerrri euskaldun bakarra. B multzoa deitu diogun barrutian ez dugu udalerrri arabarrik.

C multzoan kokatu ditugun udalerrietan euskaldunen ehunekoa antzekoa izan arren, bozka abertzalearen ehunekoa, zenbait kasutan, oso ezberdina dela ikusten da: Okondo (31;88), Aiara (30;77) Zuia (31;61), Alegria-Dulantzi (31;55) edota Bastida (30;47). Ondorioz, Arabako udalerrri gehienetan bi aldagaien arteko lotura ahul xamarra dela esan daiteke. Aramaioren kasuan (83;92), A multzoko udalerrri bakarra izanik, bozka abertzalearen ehunekoa oso altua da.

Lurralde historiko honen bereizgarri nagusia hiriburuak duen pisu demografikoa da. Alde horretatik, Arabako erroldaren zati handiena (%75) hiriburu nagusian kontzentratzen da. Gasteizko datuak aztertuz, gasteiztarren %22 euskalduna da eta botoa ematen dutenen %42k alderdi abertzaleei eman die.

Aldagaien arteko lotura Arabako udalerrietan



Udalerrri oso euskaldunak, euskara gaitasuna %80tik gora

Orain arte ikusi dugunaren arabera, euskara eta bozka abertzalearen artean erlazio lineal bat dagoela esan dezakegu. Lotura horren noranzkoa ere begi bistakoa da. Aldagai askearen

(euskara) hazkunde positiboak menpeko aldagaiaren (bozka abertzalea) hazkunde positiboa dakarrela esan daiteke.

Salbuespenak salbuespen, EAEn oso gutxi dira bozka abertzalearen ehuneko altua eta euskaldunen ehuneko oso baxua dituzten udalerriak. Bestalde, gaur-gaurkoz, euskaldunen ehuneko altua eta bozka abertzale ehuneko apala duen udalerririk ez da existitzen. Are gehiago, udalerrri euskaldun horietan bozka abertzalea oso altua da. Gauzak horrela, euskararen arnagune bezala ezagutzen diren EAEko udalerrietan bozka abertzalea hegemonikoa dela esan dezakegu.

Azpiko taulak adierazpen hori berresten du. 2012ko hauteskundearen kasuan, esaterako, 66 udalerrri oso euskaldunetatik 38 udalerritan, bozka abertzaleak ia botoen ehuneko ehuna lortu du. Beste 22 udalerritan, %95 eta %90 artean ibili da, eta gelditzen diren azken hiru udalerrietan, bozka abertzalearen ehunekoa apalxeagoa izan arren, %85etik ez da jaitsi.

*Aldagaien arteko lotura udalerrri oso euskaldunetan
(euskara gaitasuna %80tik gora)*

Euskara	Bozka abertzalea	2012		1994	
		Herri kopurua	Erroldatuak	Herri kopurua	Erroldatuak
%100-%80	%100-%95	38	21.666	49	21.632
	%95-%90	22	27.512	21	24.191
	%90-%85	3	5.284	11	23.340
	%85-%80	0	0	2	3.622
Udalerrri euskaldunak		63	54.462	83	72.785
EAE		251	1.775.351	248	1.749.250

2012ko hauteskundeak 1994koekin alderatzen baditugu, bi hauteskundeetan bozkatzeko joerak egonkor mantendu direla ikusten da. Alde horretatik, beharbada, aldaketa sakonena parametro soziolinguistikoetan gertatu da, 18 urteren buruan 20 udalerririk A multzokoa izateari utzi baitiote. Aldaketa soziolinguistiko horrek udalerrri oso euskaldunen bozka ahalmena 18.000 bototan jaitsi duenez, udalerrri horiek izan dezaketzen inpaktu soziopolitikoak murriztu du.

2012an EAEn A multzoko 63 udalerrri izateak udalerrrien ia laurden bat oso euskalduna dela esan nahi du. Lurralde-tasunaren ikuspegitik, udalerrri horien hedapen geografikoa esanguratsua da. Populazioaren ikuspuntutik, ordea, udalerrri txikiak direnez, hauteskunderen azken emaitzan duten eragina mugatua da. 2012an, esaterako, udalerrri oso euskaldunetako erroldaren gehikuntza EAeko erroldaren %3 izan da. Aldagai horrek, lehenago esan bezala, udalerrri horiek hauteskunderen izan dezaketan eragina baldintzatuko du.

EAEko hamar udalerrri nagusiak

2012ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunderen emaitzak gehien baldintzatu dituzten udalerrriak, batik bat, lurralde historiko bakoitzeko hiriburuak eta hiriburu horien periferian kokatzen diren herriak dira. Errolda handiena duten hamar udalerrriek, orotara, EAeko erroldaren %53 barnebildu dute.

Udalerrri horiek, nagusiki, euskaldunen ehuneko txikia duten udalerrriak direla esan dezakegu. Donostia salbu (%41), beste udalerrri guztiak C multzoan kokatzen dira. Udalerririk erdaldunenak Barakaldo (%18), Portugalete (%20) eta Santurtzi (%20) dira, eta euskaldunenak lehenago aipatutako Donostia (%41), Irun (%36) eta Errenteria (%38). Udalerrri erdaldunen kasuan, hiru udalerrriak Bizkaikoak dira; udalerrri euskaldunenak, aldiz, Gipuzkoakoak dira.

Botoen ehunekoari dagokionez, erroldatu gehien dituzten EAeko hamar udalerrietan bozka abertzalea %40 eta %60ren artean dabil. Gauzak horrela, udalerrri horietan bozka abertzalearen eta ez-abertzalearen arteko indar-harremana nahikoa orekatua dela esan daiteke. Bozka abertzalearen ehuneko altuenak lortzen dituzten udalerrriak Santurtzi (%54), Getxo (%54) eta Bilbo (%53) dira; baxuenak, berriz, Irun (%43), Gasteiz (%42) eta Portugaleten (%45) lortu dituzte. Bizkaiko udalerrrien kasuan euskararen ezagutza baxua izan arren, bozka abertzalearen ehuneko esanguratsuak lortzen dituztela ikusten da.

*Aldagaien arteko lotura hamar errolda handienak dituzten udalerrietan
(2012ko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak)*

<i>Udalerria</i>	<i>Euskara gaitasuna (%)</i>	<i>Bozka abertzalea (%)</i>	<i>Errolda</i>
1. Bilbo	23	53	275.318
2. Gasteiz	22	42	183.640
3. Donostia	41	52	146.677
4. Barakaldo	18	45	80.765
5. Getxo	28	54	63.687
6. Irun	36	43	46.524
7. Portugalete	20	45	39.454
8. Santurtzi	20	54	38.338
9. Basauri	23	52	34.605
10. Errenteria	38	52	31.031
<i>Guztira</i>	-	-	940.039
<i>EAE</i>	37	60	1.775.351

Ondorioak

Artikulu honetan, herritarren artean euskararen transmisioa, erabilera eta ezagutza maila zenbat eta altuagoa izan, abertzale bozkatzeko joerak ere gora egiten ote duen ikusi nahi izan da. Alde horretatik, EAeko barrutian, ñabardura batzuk gorabehera, hasierako hipotesia zuzena dela baieztatuz dezakegu. Beste modu batera esanda, euskara eta bozka abertzalearen artean proportzionaltasun-harreman positiboa dagoela ikusi da.

Joera hori baieztatzen duten lehenengo zantzuak lurralde historikoetan atzeman daitezke. Udalerriei dagokienez, 2012ko hauteskundeetako bozka abertzalea eta 2011ko udalerrietako euskaldunen ehunekoak soilik konparatu ditugun arren, bi aldagaien arteko harremana begi-bistakoa da.

Bi aldagaien arteko erlazio ahulena euskararen ezagutzaren ehuneko baxuenak dituzten udalerrietan gertatu da. Kasu horietan, euskaldunen ehunekoak berdintsuak izan arren, lortu dituzten bozka abertzalearen ehunekoak ezberdinak dira. Euskara gaitasuna igo ahala, bi aldagaien arteko lotura ere sendotuz joan da. Horrela, bi aldagaien arteko lotura sendoena udalerrri oso euskaldunetan gertatu dela esan

dezakegu, udalerrri horietan euskaldunen eta bozka abertzalearen ehunekoa %80tik gorakoa izan baita kasu guztietan. Populazioaren ikuspuntutik, ordea, udalerrri txikiak direnez, hauteskundeak azken emaitzan duten eragina mugatua da.

Erroldarik handiena duten EAEko udalerrri nagusien kasuan, berriz, euskaldunen ehuneko baxuko udalerrriak direla ikusi dugu. Udalerrri horiek bozka ez-abertzalearen indargune dira.

Etorkizunera begira

Egunerokotasunetik urrats bat atzera egin eta euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura ikuspegi zabalago batetik aztertzen badugu, esparru politikoan gizabanakoon orientazio subjektiboa baldintzatzen duten «hari ikusezin» batzuen existentziaz ohartuko gara (Letamendia, 2013). Euskara eta bozka abertzalearen artean zubi lana egin duena, gure kasuan, euskal nazionalismoa da.

Euskal nazionalismoak, 50eko eta 70eko hamarkadetan zehar, naziotasuna euskarari oinarritu izanak mugimendu etnolinguistikoaren eta mugimendu abertzalearen arteko uztarketa ekarri zuen (Odriozola eta Zabalo, 2014: 72). Azken hamarkadetan, abertzaletasunaren baitan, naziotasuna zedarrizteko orduan euskarak izan behar duen funtzioaren inguruan diskurtso-ugaritze bat gertatu den arren, formulazio hark, gaur egun ere, ondorio elektoralak dituela ikusi dugu.

Nazionalismoa, helburu politikoak erdiesteko lanabesa izanik, estrategia eraginkorrenak marrazten saiatzen da. Alde horretatik, euskal paradigma politikoa errotik aldatu den honetan, euskara eta abertzaletasunaren artean dagoen identifikazioa estrategikoki komenigarria den hausnartzea komeni da.

Etorkizuneko norabidea zehazteko orduan, premiazkoa da, beraz, lan honetan zehar ikusi ditugun hiriburuetakoko eta euskararen arnasgune diren udalerrietako errealitate ezberdinen inguruan sakontzea. Izan ere, hauteskundeak botere-gunetara iristeko mugarri garrantzitsuak direla kontuan izanda,

bi aldagaien arteko loturak, helburu politikoak gauzatzeko bidean, abertzaletasunari bidea erraztu edota trabak jartzen dizkion ondorioztatu beharko da. 🍷

Oharrak

1. Jakinen 149. zenbakian, bada honen antzeko ikerketa bat (Albero, 2005): Nafarroan abertzaletasun politikoaren eta hizkuntzaren arteko harremana aztertzen du.
2. *Argia* aldizkariko blog batean ere (Dinamo, 2014) antzeko metodologia erabiltzen da euskararen ezagutza eta Espainiako hauteskunderetako bozka abertzalea alderatzeko.
3. (X;Y) ardatzetako balioak dira. X ardatzean euskaldunen ehunekoa adieraziko da; Y ardatzean, berriz, bozka abertzalearen ehunekoa.

Bibliografia

- Aizpuru, M. (2010). XXI. mende hasierako euskal abertzaletasuna geldialdian. Egungo egoera politikoari buruzko hausnarketa. *Uztaro* 75, 49-68.
- Albero, J. (2005). Abertzaletasun politikoaren eta hizkuntzaren arteko harremana Nafarroan. *Jakin* 149, 11-25.
- Dinamo (2014-07-22). Euskararen korrelazioak (I) (www.argia.es/blogak/dinamo/2014/07/22/euskararen-korrelazioak-i).
- Etxeberría Murgiondo, J. (2011). *Estatistika aplikatua: teoria eta praktika*. Usurbil: Elhuyar.
- Eusko Jaurlaritzá (2008). *Euskararen belaunez belauneko transmisioa EAEn*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2014). *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Letamendía, F. (2013). *El hilo invisible: identidades políticas e ideologías*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Odríozola, O.; Zabalo, J. (2014). Euskararen garrantzia diskurtso abertzalean: ardatz ala osagarri? *Uztaro* 91, 67-82.

Mito baten sorburua

Koldo Izagirre
Idazlea

1

Hizkuntza baten izen ona –jakinmina, atxikimendua, lilura edo harrotasuna sortzen ahal duen hori– bere iraganaren emaitza izan ohi da. Iragana, badakigu, eraiki egiten da, eta garaian garaikoari dagokion historia antolatzen dute estatuek, indar politikoek, idazleek, artistek, kantariak... eta historialariek.

Euskaldunok ere izan ditugu, geure lehen idazlea buru, hizkuntzaren on horren eraikitzaileak. Eta euskarari egin zaizkion irain-sarraskiak beste horrenbeste suspergarri izan dira, laburrera edo luzera, eraikuntza horretan bermatzeko. Inperioaren mitoari jatortasunaren mitoa, kristautasunaren mitoari jainkotiartasunaren mitoa, gaztelaniaren mito bakoitzari geure mito batekin erantzun izan diogu. Aintzagarri faltsu horiek ukan dute eraginik gure hizkuntzaren bizian eta iraupenean.

2

Beharrik, baditugu mito-hausleak ere. Gregorio Muxikak, esaterako, kontzientziak astintzeko diskurtsoa egin zien elgoibartarrei 1907ko Euskal Jaietan:

Jakintsu askok esaten digute euskerazkoak izan zirala munduan lehenengo aditu ziran hitzak, eta horregatik euskera gorde behar dala, gauza kondairatsu bat bezela.

Nik ez det horregatik maite.

Beste batzuek esaten dute gure ibai, herri, baso eta baserrien izenak antzinako eginkizun asko jakiteko eta gure asaben bizitza argi jartzeko laguntasun asko eskeintzen dutelako, maite behar degula euskera.

Nik ez det horregatik maite.

Badira beste batzuek, hizkera aberatsa, beste denak baino hobeto egina, edertasunez ugarituta dagoalako maite dutenak.

Nik ez det horregatik maite.

Nik ez dakit Adan eta Ebaren hizkuntza euskera zan ala ez zan; neri ez zait ajolarik, euskerak antzinako gauzak jakiteko laguntzen badu ala ez; berdin izango litzake neretzat, euskera ederra, aberatsa eta dizdizaria dan bezela, zeken, behartsu eta argala balitz.

Nik, orain hainbat maiteko nuke.

Euskaldun jaio nintzan: euskera maitatzeko ez det arrazoi gehiagoren beharrik. Ama bat maitatzeko, ez da ederra dan ala ez begirutzen; eta ederra baldin bada, ez da ederra dalako maitatzen, ama dalako maitatzen da.

3

Gregorio Muxikak laga zuen puntuan hartu eta hurrengo mailara jaso zuen desmitifikazioa poeta hilduratu handi hark, Gabriel Arestik, 1960an Donostian emandako hitzaldian.

Nire bihotzean ez da euskararentzako kupidazko sentimenturik kabitzen. Nork esanen du ogia maitatzen duela? Ogia ez da maitatzen, behar izaten da. Hala pasatzen zait niri euskararekin: ez dut maitatzen, behar izaten dut.

Aresti ez zen euskaldun jaio, ez zeukan euskara amatzat. Gaztelania, frantsesa eta ingelesa ikasi zituen, eta hala ere euskarak hainbestearaino erakarri zuen, halako atraktiboa zeukan beretzat gure hizkuntzak non bizia eman baitzuen euskara janez, edanez, irentsiz, ikertuz, handituz, euskararik gabe ezin biziz, euskara sudurrupatuz, euskara zainetan injektatuz, abertzale erdaldunen aurka eta euskaldun epel guztien aurka eta gazte ausarten alde jokatzuz. Borondatea erantsi zion euskaltasunari, kausalitatea.

4

Hizkuntza guztiek daukate sedukzio indarra: euskarak bere sonoritatea dauka, ahoskera gardena eta samurra, batere irregulartasunik gabeko aditz sistema... Sedukzioa, hizkuntzetan behintzat, apurka gertatzen da, barneaz jabetzen hasten zarenean. Seguru liluramendu hori sentitu zuela Arestik, ulergarria da hizkuntzak poeta zoratzea. Baina formazko eta egiturazko balio horietara hurbiltzeko kontzientzia bat behar du erdaldunak aurrena, Arestiren borondatea: euskaldun osoa izateko beharra sortu zitzaion erdalduna zela konturatu zeneke. Eta, luzera gabe, historikoki ukatutako herri xehearen sinboloa bilakatu zen euskara, nazio zapalketa eta klase zapalketa batzen zuen gainegitura gisa, Aresti bera eta Txillardegiz bezalako borondatezko euskaldunen jarrera irmoari esker.

Gaztelania pobrezia intelektual handi batean oinarritutako diktaduraren hizkuntza zen, eta euskarak, katalanaren antzera, modernitatea zekarren kantuan, antzerkian, literaturan, irakaskuntzan. Haize berri gozoa zen, balio aurrerazaleen bideratzailea. Zentzurik zabalenean, euskarak bestelako kultura politikoa zekarren bere buruaren autokritikan oinarrituta, hizkera estandarren inguruko zalapartak garbiki salatzen zuen bezala.

5

Makina jende ezagutu dut euskara galdutakoa, baina bakanak izan dira euskarak ez duela deusetarako balio esan izan didatenak. Gipuzkoaz ari naiz, eta Gipuzkoa industrialaz. Kasik denek zeukaten mutilazioaren sentimendua: hizkuntzaren debekua, eskolatik hasitako jazarpena eta sukalderraino sartutako beldurra, guraso biak euskaldunak, haurrekin erdaraz, «Haserretzen zirenean bakarrik egiten zuten euskaraz beren artean!» esan zidan batek, euskalduntzen ari. Paradisu galdua zuten hizkuntza haietako askok, eta 1970eko hamarraldian gorantza zetorren harrotasun sozialaren partaide motzak sentitzen ziren. Debekua apurto nahi zuten beraiek

ere, baina ezin zuten desobedientzia praktikatu... Atxikimendu handia zeukaten atal mutilatuarekin.

6

Joan den mendeko azken urtean, maiatzak hamar zituela, astelehenez, EAEko II. Soziolinguistikazko Mapa aurkeztu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, hainbat da-

Sailburuordearen esana omen zen titularrak durduzatuta gorde nituen, halakoa baitzen: «Euskara gaztelania bezain erakargarri izatea dugu erronka»

turekin eta datuei zegozkien interpretaziorekin. Urteetan eduki ditut gorderik albistea zekarten *Euskaldunon Egunkaria*-ren hiru orrialdeak. Sailburuordearen esana omen zen titularrak durduzatuta gorde nituen, halakoa baitzen: «Euskara gaztelania bezain erakargarri izatea dugu erronka». Hamasei urte eduki dut dokumentua karpeta barruan higatzen. Xeheki irakurri

dut azken egunotan, baina ez dut atzeman ahal izan titularraren kontestua sailburuaren ahoan, antzekoena hauxe:

Datozen hamar urteotarako erronka nagusia izango da, belau-naldi berrietako euskaldunentzat, euren heldu aroko eremu berezitetan eta garrantzizkoetan euskara gaztelania bezain erabilgarri eta atsegingarria izatea.

Titularra hitzon laburpen makurra ote zen, miaka aritu naiz hemerrotekan. Hauxe aurkitu dut *Deia*-n: «El reto de los próximos diez años es que las nuevas generaciones consideren el euskera tan gratificante como el castellano», eta azken zati hau lagin baten titularra da gainera, «Que consideren el euskera tan gratificante como el castellano». *El Diario Vasco*-n «[Uno de los retos de las diferentes administraciones] consistirá en lograr que el euskera sea para los jóvenes tan gratificante, sencillo de usar y útil como el castellano» aurkitu dut.

7

Nik ulertzen dudana da Sailburuordeak adierazi nahi zuela eta erraztasunak, hots, baldintza egokiak behar zituztela euskaldunberri gazteek, ikasten ari direna gauzatzeko. Datuen interpretazio zurrinak ezkutatzen duena digu adierazten komentarioak, kopuruen azpia erakusten du, euskara eskolan jasotako gazte askok ez zuten euskara ez atsegin, ez erraz, ez baliagarri, alegia, ez ziren ez hiztun kompetenteak eta ez zeukaten euskaltasunaren kontzientziarik. Euskara, azken finean, ikasgai askoren arteko bat zuten, besterik ez. Horixe adierazi nahi izan zuen Josune Ariztondok nik uste, garden-tasun ariketan jarraituz datu larriena eman baitzuen, nekez iristen ohi zaigun arduradun politikoaren gogoeta kritikoa erakutsiz: «Sailburuordeak kezkgarritzat jo zuen erakunde publiko eta pribatuen euskararekiko jarduerak gizartearen ahaleginaren erritmo berean aurrera ez egitea». Eten bat zegoen gizartearen eta erakundeen artean; euskaldunak ahaleginean ari ziren, erakundeak ez aski. Hogeia autonomia urte nahikoak izan ziren erakundeak ugertzen dituen burokrazia sortzeko, agidanez. Hori ere nabarmendu zuen prentsak laginen izenburuetan, «Baldintza egokien beharra», «No basta con los militantes», «Hay que ofrecer cada vez más servicios y productos en euskera»...

8

Urak bide egin du geroztik, eta eskolak sortzen dituen nola edo halako hiztun berriak euskaltasuna garatzeko baldintza egokitan bizi diren ala ez kontuan hartu barik, sarri samar azaldu zaigu euskarak erakarri egin behar duelakoa. Ez baita zenbait politikoren leloa bakarrik, galdu egin ote du gure hizkuntzak, gizartean zeukan izen ona? Gehienetan erdaraz eta erdaratik egiten diguten baieztapen edo salaketa edo aholku horretarik –Patxi Lopezek, lehendakari zela– ondorio hauek atera litezke:

1. Euskara ez da erakargarria.
2. Erakargarria gaztelania da.
3. Euskara hedatzeko gakoa erakargarritasuna da.

Txinera eta alemana atraktiboak bihurtu dira orain. Zeinek esan behar zigun! Atzo arte, izan zitezkeen hizkuntzarik zailenak genituen. Eta Moskuko eliteetan frantsesak zeukan izen onari Napoleonen inbasioak egin zion kalte bera ekarri zion alemanak gurean zeukanari naziek Gernika erraustu eta Francori lagundu izanak. Francoren diktadura gaztelarroak, berriz, lokatzetan utzi zuen gaztelaniaren prestigioa bestelako hizkuntza zeukaten estatuko lurraldeetan. Nondik nora aldaketa hori, zerk bihurtu ditu hizkuntza horiek erakargarri orain? Gaztelaniaren erakartzeko indarra, bere izen onean edo bere edertasunean edo bere kultura handian oinarritzen dela uste ote dute euskarak erakarri egin behar duelaka ari zaizkigunek?

9

Euskaldun bati gaztelaniak historikoki eskaini diona burla, bazterketa eta zampaketa izan da, ondoren alienazioa: super-hizkuntza honek azpian ditu, bere estatukoak ez ezik, Ameriketako hainbat hizkuntza, bertako kultura eta bertako populazioa sarraskitu eta murriztu ondoren. Nola izan liteke erakargarria, zer atraktibo dauka, hain zuzen, euskarari lege propiorik aitortzen ez dion estatuaren hizkuntza bortxazkoak euskaldunarentzat? Frantsesa erakargarria delako suntsitu ote da euskara Iparraldean?

Mega-hizkuntza den ingelesaren hurrengo zakur handi bi horien erakargarritasuna delakoa batak zein besteak duten hedadura eta botere politikoa da. Euskarak ezin du gaztelaniaren edo frantsesaren balioa izan burtsa linguistikoan, 'kapital' pobrea da gurea. Guk ezin dugu azaldu jokaleku horretan. Baina iduri luke beldur garela euskarak *mundutar izateko* balio duela esateko, euskarak *herritasuna* ematen duela, identitate kultural trinko hau. Identitate politikoaren ataria izan litekeena, bai.

10

Euskarak erakarri egin behar duela esaten digutenak tendentzia sozialak estetika bidez aldatu nahi luketen inozoak, edo inozotzat hartzen gaituzten bizkorrak bezala ikusten ditut: surrealistak ez ziren horrenbestearaino ausartu!

Zein da, halakorik balu, gaztelaniaren estetika? Zein euskararena?

Euskarak badauka bere zera EAEko lurralde gehienetan, inkestek eta soziolinguistikazko mapek erakusten dutenez. Sentimentala dela? Sentimendua ez ote da hizkuntzaren onerako, egitada bihurtzen delarik? Matrikulazio kopuruak ez dira jaitsi eredu euskaldunetan. Badago, bai, atxikimenduaren antzeko zer edo zer, lilura edo leialtasun efektu bat, euskarak sortua gurasoetan belaunaldiz belaunaldi. Bestela esanda, borondatea dago, euskaldun izateko borondatea, gizartean.

11

Guraso galegoen seme erdaldun bati galdetu nion zergatik ez zidan galegoz egiten, eta ez zuela maite esan zidan, hizkuntza galegoak ou asko dituela, eta gurasoak zaunka aritzen zirelako irudipena zeukan. Gaztelania

hizkuntza neutrotzat zeukan, ez du euskara inoiz ikasiko. Nik ordea Pako Aristik egiten duen galego ederra egin nahi nuke, zaunka guztiak eta jeada guztiak barne. Niretzat erakargarria dena izan liteke arbuia-garria auzokoarentzat, izugarri laketu liteke inor halako hiz-

kuntzan zu aspertu zaitzakeen bezainbeste. Egoera kolektibo bati, arazo sozial bati zor zaion irtenbidea arazo pertsonala bihurtzeko amarrua da erakargarritasuna: kontaktuan dauden hizkuntzak indar korrelazioan daude beti, eta gurean batak borondatea dauka, besteak estatuak ematen dion derrigortasuna.

Egoera kolektibo bati, arazo sozial bati zor zaion irtenbidea arazo pertsonala bihurtzeko amarrua da erakargarritasuna

12

Euskara ez da hedatzen ari, ez euskaldunek espero zuten adina behintzat, eta eskolako hizkuntza hutsa da –hutsa– haur eta gazte ugarirentzat. Hori barneratu ezean zaila izanen zaigu arazoaren muinera iristea. Euskarak ez badu aitzina egiten, eskolan egin lana gizartean luzatzen ez bada gizartean transbertsaltasunik ez daukalako da, eta ondorioz goitasun sozialik hartzen ez duelako: eskolaz kanpoko jardun guztiek osatzen dute gazteen gizartea, eta eskolaren munduak baino indar handiagoa dauka gizarte horretan eskolaz atekoak, familiaren jarrera linguistiko leialak baino familiaz ateko giroak indar handiagoa daukan era berean. Mingarri frogatua daukagu euskaldunok.

Hizkuntzaren hedapen indarra goitasun soziala da, eta statu quo hau alda ez dadin, ez dezagun, erakargarritasuna aipatzen digute errealitatearen –elebitasun asimetrikoaren– estalgarri. Euskarak literaturarekiko ezintasuna zeukan inoiz, gero zientziarekiko ezintasuna izan zuen, orain lilurarekiko ezintasuna dauka. Euskarak beti dauka ezintasun berezkoren bat. Aro honi ezintasun estetikoa dagokio, antza.

13

Erakargarritasunak eta bere lehengusu guztiek gure begia lausotzeko gandua sortzen dute, gaztelaniaren erakargarritasunaren mitoa apurtzen ez duguno dena izanen da euskararenganako maitasuna, urratsak eta milaka kilometro kantari, sekula ez behar izana, sekula ez ogia: folklore linguistikoa. Hauxe gure gaitzik larrietako bat, ekonomikoki beharrezkoa den bezain lobelarra delako antola ez gaitezen folklore hori ezinbestekoa egiten duten baldintza lotsagarriak aldatze alde.

Euskara ez da biziko euskaldunek berek baliabiderik sortzen ez badiote egunerokoan nagusitzeko. Eta horretarako, marxismoari gertatu bezala, hizkuntzak bere buruaren kritika integratu behar du euskalgintzan, euskalgintzak badituelako erakundeak, alegia, ugerdurak.

14

Bitartean, euskaldun potentzial mordoa galdu dugula esan genezake. Eskolatik irtendako euskaldunberri askoren euskara urtu egin da gaztelaniaren modako esapideen bidez, lexikoa aberastu ordez pobretu egin zaie, esaten dituztenak gaztelania dominantearen kalkoak dira, euskaraz hasi eta esatekoa gaztelaniaz adierazi beharrez amaitzen dute, eta azkenik zeharo bereganatzen ditu menperazioak. Ezin izan dute identitate kultural bat osatu eskolak eman dizkien txotxekin. Ez da izan hautu estetiko baten ondorio, baizik euskaltzaleak eta oro har euskaldunak azpikoz gain jartzera iristen ez garen erakunde publiko eta pribatuen erdal inertzia-aren emaitza, azpilan horren krimena.

Sortuko ote zaie borondatea noizbait euskaldungaldu horiei?

Edo galdutako atalarengana atxikimendurik gabeko muti-latuak izanen ote dira?

Batera ala bestera, ez dago guztiz beren baitan.

15

«Ariztondo realizó la presentación de este Mapa ante una nutrida presencia de vascófilos, acompañada por la directora de Eustat, Lourdes Llorens, quien, sin embargo, habló en castellano», zehaztu zuen *Deia*-k lagin batean, EAEko II. Soziolinguistikazko Maparen aurkezpenaz. Laginaren titulu-lua «Una sociedad lingüística [sic] plural» izaki, interpreta liteke albistea idatzi zuen kazetariaren aburuz aurkezleek pluraltasunaren eredia eman zutela, pluraltasuna euskaldunek, gehiengoa izan arren, gaztelaniaz (ere) hitz egitea dela.

16

Joan den mendeko azken urtean, maiatzaren hamaikan, asteartez, EAEko II. Soziolinguistikazko Mapa aurkeztu biharamunean, handik laster Zeanurin ospatzekoa zen Udalerri Euskaldunen IX. Egunaren berri emateko prentsaurrekoa

egin zuen UEMA erakundeak. «Euskara gaztelania baino askoz erakargarriago egin behar zutela udalerrri euskaldunetan euskararen erabilera sustatzeko» adierazi omen zuen Mankomunitate horretako idazkariak biharamuneko *Euskaldunon Egunkaria*-ren arabera.

17

Iduri luke geuk eraiki genuela, euskaldunok, gaztelaniaren azken mitoa. 🍷

Nazio hizkuntza izateari utzi estatu hizkuntza izan ahal izateko

 Unai Apaolaza
Filosofian lizentziaduna

Euskara eta naziotasuna

Euskal nazioaren bereizgarri nagusia zein den galdetuko bagenu, gehiengoak euskara dela erantzungo liguke. Gurean oso zabaldua dagoen ustea da euskararik gabe naziorik ez dagoela, eta alderantziz, abertzalerik gabe euskararenak egingo lukeela. Ezkontza horrek, baina, badu bere historia.

Sabino Aranarentzat naziotasunerako faktore erabakigarria abizenek agerian jartzen zuten arraza zen. Euskara ere naziotasunaren erakusgarria bazen, nahiz eta derrigorrezkoa izan ez. Euskal nazioa, gauzatu, arrazak gauzatzen zuen. II. Mundu Gerraz geroztik, alemaniarrek egindako arraza kontzeptuaren erabilera arrazista dela eta, naziotasuna definitzeko erabilgarri izateari utzi zion. Hori dela eta, arraza kontzeptua diskurtso nazionalista diferenteetatik desagertuz joan zen. Abertzaletasunak ere egokitzapen horiek egitearen premia sentitu, eta 60ko hamarkadan, ETaren eskutik nagusiki, arrazaren kontzeptua alde batera utzi eta euskara eta naziotasunaren arteko erlazioa estutu egin zuen.

Nazionalismoak, sarri, naziotasuna faktore objektiboekin marraztu izan du. Herri borondatea oinarri eskasegia iruditu

eta lur ‘sendoagoen’ bila aritu izan da maiz. Zoru zurrun hori zientzian aurkitu du. Naziotasuna zientifikoki ‘demonstratzeak’ segurtasun eta benetakotasun sentsazioa eman digu. Baina estrategia politikoaz ari garenez, granitozko egia borobilek granitozko pareta karratuak sortu dizkigutela ere konturatzen hasiak gara. Gauzen egoera aldatu nahi duten mugimenduei segurtasunak heriotza dakarkie. Ezagunak zaizkigu naziotasuna historiatik, genetikatik, etnografiatik... justifikatuz eraiki ditugun diskurtsoek sortzen dituzten kontraesanak. Euskara eta naziotasunaren bateratzea ere ez da azalpen zientifikoa atzaparretatik libratu, ezkontza horren ‘benetakotasunaren’ bedeinkazioa erlatibismo linguistikoaren hipotesiak eman baitio.

Erlatibismo linguistikoak bakoitzak bere hizkuntzan pentsatzen duela diosku. Hizkuntza partikularrek, beraz, pentsamendua moldatu eta sortu egingo lukete, beroriek dituzten baldintza kultural eta historikoetatik abiatuz. Joxe Azurmendiren hitzetan, hizkuntza partikularrak edozer pentsatzeko posibilitatea lirateke; askatasunaren espazioa lirateke. Erlatibismo linguistikoaz ari garenean, garrantzitsua da moldatu eta determinatzearen arteko bereizketa argia egitea, hizkuntza naturalek pentsamendua determinatuko balute, hizkuntza bereko hiztunek ideia etiko, politiko, estetiko... berdinak izango bailituzkete. Hizkuntzak, kasu horretan, askatasunaren espazio izatetik borondatearen giltzarrapo izatera pasatuko lirateke.

Naziotasuna erlatibismo linguistikotik justifikatu ahal izateko, hizkuntza naturalek pentsamendua moldatu beharrean determinatu egiten dutela onartu beharko dugu, nahi eta nahi ez. Hori egin ezean ezin baitaiteke zientifikoki justifikatu hizkuntza batean pentsatzeak subjektu politiko bateko kidetza eman dezakeenik. Determinismoaren bidea erabili izan da 60ko hamarkadatik aurrera naziotasunaren eta euskararen elkarketaren ezinbestekotasuna indartzeko. Bide horrek onura asko ekarri zizkion bai abertzaletasunari eta baita euskalgintzari ere. Gaur egun ere, nazioa eta hizkuntza

elkartzeko dugun modua erlatibismo linguistikoaren hipotesiak emandakoa da. Itzal luzea eta forma ugari ditu gurean teoria horren marko teorikoak. Modu zorrotzean batzuek eta lasaiagoan besteek, gehienek onartzen dute euskara eta naziotasuna elkartzeko modu hori.

60ko hamarkadarako baliagarria izan zen marko teorikoan gabiltza kateaturik. Hori baitute alor politikoa justifikatzeko erabiltzen diren azalpen zientifikoek: eraginkortasunari begiratu beharrean 'egiari' begiratzen diote, eta baliagarriak ez direnean aldatzea asko kostatzen da. Euskalgintza eta abertzaletasuna bikote zoriontsu izan zireneko zuri-beltzeko argazkiei bisigu begiekin begira dabilta, asmatu ezinik garai batean funtzionatu zuen horrek gaur egun zergatik ez duen balio.

Subjektu politikoak, antagonismoa eta botere harremanak

Subjektu politikoak berezkoak ez direla eta jendartearen nahi eta gogoen arabera sortu, indartu eta desagertu daitezkeela onartu genuenetik, beraien logikak ezagutzeko interesa piztu egin da. Subjektuaren afera, gaur egun, politikaz ari diren pentsalari gehienek kezka nagusia da.

Marraztu nahi dudan bidean aurrera egiteko, ezinbestekoa zait subjektu politikoa bezalako kontzeptu bat nola ulertzen dudan azaltzea. Subjektu politikoa etorkizunera begira nahi bera duten pertsonen multzoak osatzen du. Gainera, ezinbestekoa da bertako kideek subjektu horretakoa izatearen kontzientzia kolektiboa izatea. Hari horri tiraka, identitate politikoa erabat kontzientea den identitatea

Subjektu politikoa etorkizunera begira nahi bera duten pertsona multzoak osatzen du. Gainera, ezinbestekoa da bertako kideek subjektu horretakoa izatearen kontzientzia kolektiboa izatea

dela onartu beharko dugu, eta munduan izateko jarrera aktiboa inplikatzen duela.

Chantal Moufferen ustez, antagonismorik gabe ez legoke jendarterik. Jendarteak berezkoa du etorkizuna modu diferentean irudikatzen eta desiratzen duten pertsona-multzoak izatea eta horien arteko talka. Edozein subjektu politiko eratu eta elikatu antagonismotik egingo da, beti egin beharko baitu gutarren eta beste guztien arteko kontrajartzea, antagonismoa. Euskal Herrian estatu bat sortzearen aldeko subjektua, adibidez, gai honetan egon litezkeen beste aukera guztiei kontrajarriz eratuko litzateke. Beste aukera posiblez ez balego, ezingo genuke subjektu politikorik eratu, ezinezkoa litzateke. Zaldia derrigorrez lurraren gainean ibili behar direnez, zaldiek hegan egitearen aldeko subjektu politikoa ezingo litzateke sortu.

Jendarteek, beraz, izate gatazkatsua dute. Arrazoimen ilustratuak eta euren seme-alaba diren ideologia guztiek azpimarratzen dutenaren kontra, erabateko oreka duen jendartea ez da posible. Subjektu politikoen arteko talkak modu egokia edo okerragoan kudeatu daitezke, baina antagonismoak ezin izango dira desagertu. Subjektu politiko ezberdinen arteko erlazioak, beraz, ez dira erlazio razionalak; botere harremanak dira. Ondorioz, estrategia egokia eginez norberak lortu dezakeen indar posizioaren arabera, balantzak alde batera edo bestera egingo du.

Konfrontaziorako ardatz 'erreal' eta ardatz sinbolikoa

Subjektu politiko bakoitzak badu bere mugak marrazten dituen diskurtsoa. Muga horiek konfrontazioaren eremua zein den esango digute, gutarren eta besteen arteko konfrontazioa zer joko zelaitan eta zer arauen pean jokatuko den seinaltzen baitigute. Diskurtsoa ongi aukeratzeak, joko zelaia eta araudia ongi aukeratzea denez, konfrontazioan abantaila eman diezaguke.

Subjektu politikoek eratzen dituzten diskurtsoak bi multzotan sailkatu ditzakegu: konfrontazioa ardatz 'errealean' sortzen dutenak batetik, eta konfrontazioa ardatz sinbolikoan sortzen dutenak bestetik. Ardatz 'errealak' momentuko errealitatearen mugak jartzen dizkio gauzen egoera aldatu nahi duen subjektu politikoari. Hori egiteak, dauden botere erlazioak onartzen dituenek, gauzen egoera aldatzea ezintzen du. Ardatz sinbolikoak, aldiz, botere erlazio berriak 'asmatzen' dituenek, konfrontaziorako subjektu politiko indartsuagoa marratu dezake. Ardatz horrek, ondo finkatuz gero, gauzen egoera aldatzeko gaitasuna dauka. Horrela, konfrontaziorako ardatz 'errealak' gauzen egoera betikotzeko ardatza den bitartean, ardatz sinbolikoak desplazamenduak sortu ditzake ardatz 'errealean'. Esanak esan, gauzen egoera bere horretan mantendu nahi duenari ardatz 'errealean' egiten den konfrontazioa da komeni zaiona. Gauzen egoera aldatu nahi duena, berriz, ardatz sinbolikoa erabiltzera behartuta dago.

Esentzialismoaren eta ardatz 'errealaren' artean antzekotasun handiak daude. Esentzialismoa, ardatz 'errealak' bezala, subjektu politikoa jendeak etorkizunera begira eduki dezakeen borondatea kontuan hartu gabe marrazten saiatzen baita. Ardatz 'errealak' eta esentzialismoa dira *statu quo*-aren makulu onenak. Ezer aldatu nahi ez duenak ardatz errealari, esentzialismoari eta lehenagotik konbentzitua zegoena konbentzitze-ko soilik balio duen 'berezkotasunaren' ideari helduko die.

Euskara eta abertzaletasuna, ardatz 'errealean' elkartutako bikotea

Lehenago esan bezala, 60 eta 70eko hamarkadetan euskara eta abertzaletasuna bateratzeak onurak ekarri zizkion bai independentismoari eta baita euskalgintzari ere. Independentziarako nahia eta euskararen ezagutza (eta erabilera) hutsaren hurrengoa ziren momentuan, elkartze horrek euskarari harrotasuna ekarri zion. Independentismoari, berriz, estrategia nazionalistak erabiltzen duen diferentzia objektiboaren

logika oinarritzeko faktore objektibo indartsua. Hala ere, nahiz eta paradoxikoa iruditu, batze horrek, suspertzearekin batera, topeak ere ekarri zituen.

Nazionalismo guztiek bezala, abertzaletasunak ere, ardatz 'erreal' darabilenez, konfrontaziorako eremua euskaraz pentsatu (erlatibismo linguistikoaren bertsio gogorra) edo euskaltzale direnen eta beste guztien artean kokatzeko (erlatibismo linguistikoaren bertsio biguna) joera dauka. Abertzaletasunak ardatz 'errealen' konfrontazioa sortzeko erabili izan du euskara, eta euskaltzaletasunak beharrezkoa zuen dimentsio politikoa eskuratzeko erabili izan du abertzaletasuna. Baina, ardatz 'errealak' gutarren eta besteen arteko muga oso erraz marrazten du, errazegi, agian. Ondorioz, subjektu politikoen hazkundera, euskaraz pentsatzen (gogorra) edo euskararen aldeko jarrera aktiboa dutenenganaino (biguna) iritsi daiteke soilik. Ardatz horrek subjektuaren desagertzeari galga jarriko dio, baina ondoegi babesten duen murrerik ez duen horrek hazten ere ez dio uzten. Haurrekin gertatzen den moduan, gehiegizko babesak haztea ekiditen du.

Estrategia abertzaleak ezin dio euskarari normalizazioa eman, eta alderantziz, euskarak abertzaletasunari ezin dio estatua lortzeko indarra izango zukeen adinako independentismorik artikulatu. Ezkontza horrek euskarari abertzaletasunaren mugak jarri baitizkio, eta abertzaletasunari euskararenak. Gorpil zoro hori da apurtu beharrekoa.

Demokrazia zerri askara botatzea arerioaren joko zelaia eta arauak onartzea da

Xabier Amurizak idatzi eta Oskorrik abestu zuen *Euskal Herrian euskaraz* abestia euskalgintzaren ereserkia bilakatu da. Bertan, «Euskal Herrian euskara hitz egiterik ez bada bota dezagun demokrazia zerri askara» esanez, euskararen erabilera eta demokrazia kontrajartzen dira. Adibide horrek, inportantziarik gabekoa dirudien arren, jarrera orokor bat adierazten du.

Euskaraz bizi nahi ez dutenek euskarari ez-normaltasunaren izatea eman diote. 'Arazo identitarioa' eta euskara lotzetik hasi eta euskaraz bizi nahi izatea kapritxotzat jotzeraino, euskararen ez-normaltasuna azpimarratzen duten argumentuek segida luzea dute. Diskurtso horiek, euskaraz bizi nahi dutenak ez-normaltasunarekin lotuz, erdaraz bizi nahi dutenei normaltasun estatusa txertatzen die. Indar positioa areagotzen duen ardatz 'errealean' kokatzen diren argumentuekin eraikitako diskurtsoa darabilte.

Euskalgintzaren diskurtsoa euskara babestean zentratzen da, partikularitasunaren kontserbazioan. Ondorioz, euskaraz bizi nahi ez dutenek marrazturiko konfrontazio ardatzean eta arauen pean kateatuta dabil euskalgintza. Hizkuntza ekologiaren ideia da horren erakuslea; planteamendu horrek berezitasunak gordetzean, kontserbatzean egiten du indarra. Baina hori egiteak ez-normaltasuna azpimarratzen duenez, euskararen normalizazioa erabat ezintzen du. Euskararen 'berezkoa' omen den ingurunea babestean baino, euskarari ingurune berriak sortzean dago gakoa. Inoiz existitu ez diren 'berezkotasunak' dira sortu behar ditugunak, eta hori lortzeko euskarak berezitasunaren estatusari muzin egin eta normaltasunarenari heldu behar dio.

Bide horretan, jendartearen gehiengoak oso positibotzat dituen ideiak ezin ditu euskalgintzak galdutzat eman edo, okerrago dena, txartzat hartu. Estrategia politiko eraginkorraren oinarritzko harria gehiengo zabalak positibotzat jotzen dituen kontzeptuak norberegantzeko egiten den borroka da. Noren helburu politikoak identifikatuko ditu jendartearen gehiengoak demokraziarekin, justu izatearekin, askatasunarekin...

Euskararen 'berezkoa' omen den ingurunea babestean baino, euskarari ingurune berriak sortzean dago gakoa. Inoiz existitu ez diren 'berezkotasunak' dira sortu behar ditugunak

hitz batean: unibertsaltasunarekin? Horixe da hegemoniara-ko borrokaren muina. Euskal Herrian euskaraz hitz egiteko aukerarik ez izatea ez baita demokrazia izatearen arazoa, ez izatearena baizik.

Arerioak marraztutako joko zelai eta arauekin konfrontazioa egitera ohituegia dagoen herria gara. Erresistentziaren kultura da gurea, eustera ohitu dena eta sufritzea balio positibo bilakatu duena. Horregatik, bat baino gehiago, helburu politikoak utopikoak direla sinetsita, balitz eta balegoko putzuan itotzeari gustua hartzen ari zaio.

Euskalgintza jokutzen ari den zelai politikoa eta arauak konfrontazioa egiteko arerioari komeni zaizkionak direla agerian jartzen saiatu naiz. Urrats hori egitea ezinbestekoa da euskalgintzari, berari, komeni zaion diskurtsoa zabaltzen hasi nahi badugu.

Euskaldunon hizkuntza eskubideen alde egotetik, denon hizkuntza eskubideak bermatu nahi izatera

Rosa Parks, arraza beltzeko emakumea, famatua da autobus publiko batean arraza zuriko gizon bati aulkia utzi ez ziolako. Azalaren kolorea kontuan hartuz idatzitako legediari eta jendartean eraikita zeuden botere harremanei horrela egin zien kontra Rosak. Desobedientzia ekintza hori egin aurretik, beltz batek baino gehiagok egin zion kontra legedi arrazistari, baita Rosak bezala autobusetan zuriei aulkia ez utziz ere. Orduan, zergatik da ezaguna Rosa Parks? Ekintza justifikatzeko moduan dago gakoa. Lehenagoko kasuei eman zitzaien marko teorikoa zurien eta beltzen arteko konfrontazioarena izan zen; Rosa Parksen kasuan, aldiz, eskubide zibilena. Jada, konfrontazioa ez zen beltzen eta zurien artekoa, eskubideen alde zeudenen eta ez zeudenen artekoa baizik. Horrek arrazaren arabera segregazioaren kontrako borrokari beste dimentsio bat eman eta eraginkortasunean irabaztea ekarri zion. Konfrontaziorako ardatza eskubideak urrututa zituztenengandik (ardatz erreala) eskubideen alde

zeudenengana (ardatz sinbolikoa) desplazatzen zuenez, subjektu politikoa handitu eta aktibatu egin zen.

Rosa Parksen desobedientzia ekintzarekin erabili zen bidea hobeto ulertzeko, partikularraren eta unibertsalaren arteko harremanari erreparatzeak lagundu diezaguke. Eskari politiko guztiak dira partikularrak. Helburuetan aurrera egiteko, baina, eskari partikular horiek unibertsalizatzen dituen subjektu politikoari helburu horiek lortzeko aukera biderkatu egingo zaio. Demokrazia, justizia, askatasuna, eskubideak... bezalako kontzeptu unibertsalak ez dira ezer bere horretan, adierazle hutsak besterik ez dira. Eta edalontzi bat urez, ardoz edo laranja zukuz bete daitekeen moduan, kontzeptu horiek ere, gauzatu, eskari politiko partikular batek 'betetzen' dituen gauzatuko dira. Borroka politikoaren funtsa norberaren eskari politiko partikularrek unibertsalak sinbolizatzeke (betetzeko) egiten den ekitea da. Baina zer onura dauka horrek guztiak? Norberaren eskari partikularrak, norberaren subjektu politikoaz haratago, jendartearen gehiengoaren begietara unibertsalak sinbolizatzerira iristen direla, horixe da daukan onura. Hori dela eta, normaltasun berria sortzen hasten da eta normaltasun berri horrek epe ertainean norberaren subjektu politikoa zabaltzea eta aktibatzea dakar.

Lehenago aipatu dudan moduan, euskalgintzak nazionalismoak ematen duen marko teorikoa ontzat ematen duenez, konfrontaziorako ardatz 'errealean' kateatuta dabil. Marko hori onartzearen ondorio zuzena da euskararen normalizazioaren aldeko borroka partikularra babesteko koordinatuetan planteatzea, normalizazioa ezinduz. Hizkuntza eskubi-deak urratuta dituztenen (euskaraz bizi nahi dutenen) eta ez dituztenen (erdaraz bizitzeko hautua egin dutenen) artean konfrontaziorako muga finkatzeak (ardatz 'erreal'), indar harremanak onartzen dituenek, egoeraren betiketzea lekerkeela lehenago ere aipatu dut. Esanak esan, ez al litzateke eraginkorragoa izango muga eskubideen alde eta eskubideen kontra daudenen artean (ardatz sinbolikoa) marraztea? Modu horretan bakarrik handitu baitaiteke euskaraz bizi nahi

dutenen multzoa eta, ondorioz, indar erlazioak aldatzearekin batera, euskararen normalizaziora gerturatu. Historiak behin eta berriro erakutsi digu helburu politikoak ez direla lortzen eskubideak urratuta dituztenek soilik borrokatzen dutenean, subjektu politikoa eskubideak urratuta dituztenengandik haratago zabaltzen hasten denean baizik.

Euskaingintzak 'soilik' euskaraz bizi nahi dugunon hizkuntza eskubideen defentsan oinarritzen baldin badu bere diskurtsoa, hau da, konfrontaziorako ardatz 'errealean', zaila egingo zaio aipatu dudan unibertsalizazioa gauzatzea. Ardatz horrek euskaraz bizi nahi ez dutenak beraien posturan indartu baino ez ditu egiten. Zentzu horretan, euskaingintzak (hizkuntza) eskubide guztien aldeko mugimendu bihurtzen den neurrian izango du ardatz erreala desplazatzeko gaitasuna. Jakina, horrek badu bere 'tranpatxoa', euskaraz egin nahi duenak baititu hizkuntza eskubideak zapalduta %99,9an. Hor du euskaingintzak irabazten hasteko eremu zabala.

Horrek guztiak ez du esan nahi ardatz 'errealean' egiten den protesta/erantzuna alde batera utzi behar denik, ez.

Historiak behin eta berriro erakutsi digu helburu politikoak ez direla lortzen eskubideak urratuta dituztenek soilik borrokatzen dutenean

Protesta/erantzunak ardatz simbolikorako desplazamendua jasango duela esan nahi du soilik, eta, ondorioz, etsaiaren joko zelaitik ateratzen hasiko gara. Konfrontaziorako ekintza bat partikularren babesarekin edo eskubideak denontzako zabaldu nahi izatearekin justifikatu daiteke. Ekintza bera da; azalpena, berriz, diferentea. Ardatz batetik

besterako desplazamenduak euskarari egindako edozein eraso jendartearen gehiengoari egindako eraso bilakatuko luke. Horra hor momentu hegemonikoa.

Zer gertatuko litzateke Rosa Parksek autobusean eman zuen ezetza gizon hura zuria zela (ardatz 'errealarekin') esanez justifikatu izan balu? Konfrontazioa indarrean zegoen

botere harremanak onartuz planteatuko zukeenez, ez zuela gauzen egoera aldatzen lagunduko. Gogoeta hori da euskalgintzak egin behar duena.

Nazio hizkuntza izateari utzi estatu hizkuntza izan ahal izateko

Euskalgintza subjektu politiko bilakatu behar dela gero eta sarriago entzuten dugun kontua da. Artikulu honetan egin dudana subjektu politikoaren definizioari jarraikiz, euskalgintza beti izan da subjektu politikoa, etorkizun euskaldun bat nahi duen jende multzoari egiten baitio erreferentzia eta helburu hori lortzeko estrategia diferenteak planteatu izan baititu. Orduan, zertara dator subjektu politiko bilakatu behar hori? Eraginkortasunean irabazteko duen borondatea azaleratzen du nahi horrek, eta, ondorioz, euskalgintzak bere burua beste modu batera ulertzeko duen nahiaren konstatazioa da. Hori positiboa da, oso.

Lan honetan agerian jarri nahi izan dudana puntu garrantzitsuenetako bat hauxe da: subjektu politikoak estrategia politikoak direla. Ondorioz, ez da begiratu behar subjektu horiek 'egiazkoak', 'berezkoak', 'gezurrezkoak'... ote diren, eraginkorrrak diren edo ez da aztertu beharrekoa. Euskalgintzak, eraginkorra izan nahi badu, darabilen strategiari buruz galdetu/hausnartu behar du: nazioa eta euskara (erlatibismo linguistiko gogorra) edo nazioa eta euskaltzaletasuna (erlatibismo linguistiko biguna) elkartzea euskararen normalizaziorako estrategia eraginkorra al da? Defendatu dudana posturari jarraituz, elkartze horrek, nazionalismoak darabilen berezitasun objektiboaren logika dela eta, euskarari ez desagertzea ahalbidetu dio. Baina paretaz zurrunezia eraikitzen duenez, behin puntu batetik aurrera zabaltzea ere eragotzi dio. Abertzaletasunean beti izango da berezitasuna euskara, abertzaletasunak, edozein nazionalismok bezala, erdara den normaltasunetik bereizteko/babesteko logikari ezin baitio iskin egin. Euskararen normalizazioa ezingo du inoiz lortu.

Eta euskara abertzaletasunetik bereziko bagenu, posible izango al litzateke euskararen normalizazioa? Galdera horri ganoraz erantzuteko euskararen egoerari eta inguruneari begiratu behar zaio. Erdaraz funtzionatu eta erdara lehenesten duten bi estatuen barruan dago kokatua euskara, eta hitz egiten den tokietan bigarren mailako hizkuntza da. Egoera horretan, euskara beti izango da normaltasuna den erdaren ondoan ez-normala, museoetako piezak bezala ‘babestu’ beharreko zerbait. Baina museotik ateratzeko (normaltasuna lortzeko) egiten duen edozein mugimendu normaltasun erdaldunak eta bere estatu aparatuek zapaldu eta zokoratuko dute. Ez-normaltasunaren tokia ez da kalea.

Estrategia abertzalea eta euskalgintzarena batzeak, maila diferentean bada ere, euskalgintzari argizari museoko zaindariaren papera gordetzen diola uste dut. Eta badakigu, ‘berezitasuna’ kontserbatzera mugatzen dena, konturatzerako, hilko da. Abertzaletasunik gabeko euskalgintzak, aldiz, heriotza horren azkartzea lekarke. Bi bideek, kontrakoak diruditen arren, euskararen ez-normaltasuna babesten dutenez, euskararen desagertzea dakarte. Nola lortu orduan euskararen normalizazioa?

Orain arte esandakoetatik erraz ondorioztatuko dugu euskararen normalizazioa estatuak bakarrik ekarri lezakeela. Ez da nahikoa, noski, baina bai derrigorrezko baldintza. Horrek euskalgintza ulertzeko modu berri batera eraman behar gaitu, hau da, strategiaren birdefinizio batera. Eraginkortasunean irabazteko, euskararen eta nazioaren, edo nahiago bada, abertzaletasunaren eta euskalgintzaren arteko erlazio zurruna arinduz joan beharko da. Euskalgintzak politizatu behar duela esan eta esan bagabiltzan honetan, posizio politikoa hartu nahi badu, dimentsio politiko kamutsa duen abertzale izateari utzi eta estatua eskatzen hasi beharko du. Independentista ez den euskalgintza euskararen normaltasunari bizkarra ematen dion berezitasunaren logika antzuan ibiliko da buelta eta buelta. Euskarak, normaltasuna irabazi nahi badu, nazio hizkuntza izateari utzi beharko dio estatu hizkuntza izan ahal izateko. 🍷

Bibliografia

- Bhabha, H.K. (2010): *Nación y narración. Entre la ilusión de una identidad y las diferencias culturales*, Buenos Aires, Siglo Veintiuno.
- Breaully, J. (1990): *Nacionalismo y Estado*, Bartzelona, Pomares-Corredor.
- Connor, W. (1998): *Etnonacionalismo*, Madril, Trama.
- Laclau, E.; Mouffe, C. (2004): *Hegemonía y estrategia socialista*, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica.
- Laclau, E. (2005): *La razón populista*, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica.
- Miller, D. (1997): *Sobre la nacionalidad*, Bartzelona, Paidós.
- Mouffe, C. (2007): *En torno a lo político*, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica.
- Smith, A.D. (2004): *Nacionalismo*, Madril, Alianza.
- Zabaltza, X. (2006): *Una historia de las lenguas y los nacionalismos*, Bartzelona, Gedisa.
- Žižek, S. (2001): *El espinoso sujeto*, Bartzelona, Paidós.

Formulazio politikoaren bila

Joxe Manuel Odriozola

Idazlea eta euskara irakaslea

José María Sánchez Carrión *Txepetx*-ek behinola ohar-tarazi zigunez:

Euskalduntasunak ez du oraindik formulazio politiko independenterik lortu. Formulazio politiko hori lortzea da giltzarria, eta hori eraikitzeko honako hau izan behar dugu gogoan: nazio euskaldunaren interesak jarri behar dira gainerako interes guztien gainetik, zeren bestela gure artean sakabanatu eta zatikatu egiten gaituzte gainerako helburu-nahiek. [...] Euskal Estatu batek ere ez dauka zentzurik ikuspegi soziolinguistikoaren aldetik begiratuta: jadanik arrotzia dagoen nazio-proiektu bat izango baillizateke.¹

Txepetxen ustez, nazio eta estatu euskaldunaren aldeko prozesuaren erdian euskara kokatzen ez duen estrategiak gure arteko indarrak eta jokabideak «sakabanatu eta zatikatu» egiten ditu. Ederki aurreikusi zuen, ederki aurreikusi zuenez, gure soziolinguista zorrotzak. Izan ere, euskal Estatu independentearen nazioak behar duen bizkarrezurra euskaltasunean ezarri beharrean, «gainerako helburu-nahiek» euskara periferiaren zokondo batera baztertu nahi digute. Euskaltzaleontzat ez da sinestekoa, baina egia da gertatzen ari dena. Estitxu Eizagirrek-eta dioten moduan,

... surrealismoaren mugak zeharkatu ditugu azken boladan Euskal Herrian, euskara independentismorako traba ote den entzutera iritsi baikara, independentziarako motibo nagusienetakoa denean.²

Jakin bagenekien abertzaletasunaren bertsiorik koherenteena ere deseuskaldundua zegoela nazio linguistiko eta kulturalari zegokionez. Ez genuen asko usteko, ordea, hainbestekoa zenik estatu menderatzaileek lortutako heteronomia egoera. Halaxe da, zoritxarrez: euskaldunok jasan dugun nazio minorizazioaren ondorioz euskalduntasunak jasan duen desnazionalizazio mailak ikara ematen du. Hezurre-raino arrotzu dute gure identitate euskalduna, eta orain ez gara batere deseroso sentitzen nazio linguistiko espainolaren edo frantsesaren erreferentzia-sisteman.

Elebitasun sozialaren ondorioak beldurgarriak dira minorizazioak jotako komunitateetan. Hizkuntza minorizatutako hiztunarentzat praktikan soberan dago bertako eta jatorrizko hizkuntza, edota, onik onenean, bere asmo politiko eta nazionalaren eremuan erabileraren periferiko eta errituala esleituko dio. Euskalduntasunaren identitate erreferentzietan bizitzea oinarrizko giza eta nazio eskubideekin lotzen ez duen independentzia zalea ez du euskalduntasunak bizi. Ideologia politiko bat lehenesten du halakoak, nahiz eta politika horren identitate linguistiko eta kulturala arrotza izan. Hizkuntzak ezaugarritzen ditu naziotasunaren gainerako ezaugarriak hizkuntza hori jatorrizkoa eta propioa denean, baina ez da horretaz jabetzen gure independentista. Ñabardurak ñabardura, euskalduntasunetik eraikitzen ez den Estatu *de facto* Estatu espainola edo frantsesa da hemen.

Zergatik jarri behar ditugu nazio euskaldunaren interesak gainerako interes guztien gainetik Txepetxek zioen moduan? Batetik, sistema nazionalaren krisia delako Euskal Herriak nazio euskaldun gisa daukan kontraesan nagusia. Sistema sozialari doakionez, bistan denez, euskal gizarteak sekulako arazoak dauzka bizi gaituen sistema kapitalistaren ondorioz. Baina analitikoki bereizi beharreko auziak dira aurreko bi sistema horiek, nahiz eta sistema nazionala sistema sozialaren baitan katigatua egon eta, alderantziz, sistema soziala sistema nazionalaren altzoan txertatuta egon. Independentziaz ari garenean, sistema nazionalaren auziaz dihardugu oroz

gain, eta sistema horretan bete-betean sartzen den elementu ardatza euskara da.

Beraz, Txepetxen proposamenari jarraiki, «nazio euskaldunaren interesak jarri» behar genituzke gainerako faktore guztien gaineratik. Euskal Herriaren arazoa herri eta nazio gisa naziotasunari darion krisia baldin bada, kontraesan nagusia nazio moduan daukagu. Euskaldun izan nahi duenak nazio euskalduna behar du, lehenik, eta nazio euskaldun hori bermatuko dion Estatu burujabea, bigarrenik. Mundua sistema nazionalen arabera antolatua dago; zehazkiago esanda, Estatu nazionalak ditugu gaurko munduaren oinarritzko botere eta burujabetasun guneak nazio identitateari darizkion auzi hauetan bederen.

«Zein izango da euskal estatuaren hizkuntza ofiziala (eta erreala) euskara ez bada?». Horra Estitxu Eizagirrek-eta egiten duten galdera. Funtsezko galdera, auzi honetan ezer funtsezkorik baldin bada. Euskal Herriaren Estatuaz mintzo gara, berezko hizkuntza bat daukan herriaren Estatuaz. Kultura euskal kultura, lurraldea euskal lurralde eta historia euskal historia bihurtzen duen naziotasun ezaugarriaz, alegia. Txillardegik zioen moduan, «Euskarak mamitu eta mugatu du euskaldungoaren hedadura»³. Euskara partekatzen ez duten Estatuaren kultura, lurraldea eta historia ezin dira izan Euskal Herriaren kultura, lurralde eta historia. Euskararik gabeko nazio kulturak ezin dituelako nazio faktore horiek sozializatu eta ezaugarritu euskalduntasunean. Eneko Bidegainekin batera esateko, «ez genuke euskal estatu bat sortzea aldarrikatuko, lurralde honetan ez balitz sekula euskaldunik izan»⁴.

Hizkuntza ez da hizkuntza soilik, ez da komunikazio-tresna hutsa. Hizkuntzaren matrizean sinbolizatzen dira kulturaren

«Zein izango da euskal estatuaren hizkuntza ofiziala (eta erreala) euskara ez bada?». Horra funtsezko galdera, auzi honetan ezer funtsezkorik baldin bada

eta identitatearen zer-nolakoak. Hizkuntzaren altzoan hozitzen da pentsamendua pentsamendu, sentimendua sentimendu, emozioa emozio, atxikimendua atxikimendu. Hizkuntza, bere bakardadean, ez da ezer asko. Alabaina, nazio bat, kultura bat, identitate bat tartean dagoenean, jatorrizko hizkuntza propioa izan ohi da naziotasunaren gainerako osagarri guztiak ezaugarritzen dituen eragile bereizgarria.

Arestian egin diguten galderari erantzun beharra daukagu. Hau da, Euskal Estatuak batez ere zein hizkuntzatan funtzionatuko du? Hizkuntzarik gabeko Estatu-gizarterik ez dagoenez, hizkuntza hegemonista⁵ batek eratuko eta ehunduko ditu gizarte harremanak gerora ere. Balizko euskal Estatuaren hizkuntza erreala Estatu horren eraikuntza prozesuan nagusi izan den hizkuntza bera izango da; ezinbestez izan ere. Eraikuntza nazional eta politiko batean oinarritutako egiturak, baldintzak eta ezaugarriak ezin direlako izan eraikuntzaren logikapeko sorkariak baizik. Zentzu komunak inoiz erabateko zentzurik baldin badu, honako honetan du: euskal Estatu independente baten eraikuntzan modu nagusian erabilitako hizkuntza izango da balizko Estatu burujabearen hizkuntza erreala. Kultura soziolinguistikoaren oinarritzko irakaspena da gizarte elebidun batean hizkuntza bat gailentzen dela piramide soziolinguistikoaren egituran⁶.

Batez ere euskaratik eta euskaraz eraikitako estatugintzak bermatzen du balizko euskal Estatuaren izaera euskalduna. Gainerakoan, *de facto*, Hegoaldeari bagagozkio, egungo hizkuntza eta kultura espainolak ezaugarrituko du amesten dugun euskal Estatu. Esan dezagun, orobat, gure herriaren mendetako okupazioak eta kolonizazioak ez lukeela funtsezko aldaketarik izango balizko independentzia formalaren ostean. Izan ere, independentzia nazionalak ez lioke gain hartuko euskal gizartearen sakoneko espainoltasunari.

Eraikuntzak determinatzen du eraikinaren izaera. Alferrik da gero eraikin estatalaren identitate soziolinguistikoa aldatu nahi izatea. Eraikin nazional eta estatalaren izaera ezin da izan eraikuntzan erabili diren baliabide eta bitarteko linguistiko

eta kulturalaren araberakoa baizik. Ideologia politiko nazionalista hutsak ezin dio erantzun euskal identitatearen alimaleko erronkari. Ez da auzi ideologiko eta politiko bat soilik. Partekatzen den hizkuntza nazionalaren izaera kulturalak mugatzen du eraikin nazional eta estatalaren zentzua.

Independentismo utilitarioaren ezaugarriak

Euskal independentista askoren iritziak ezagututa, badirudi Kataluniako borroka bidea baliagarria zaigula gurerako ere. Alegia, utikan identitate-kontuak! Utikan esentzialismoak! Utikan nazio hizkuntzaren aldeko helburuak! Izan gaitezen praktikoak eta eraginkorrak. Bereizten gaituen oro zokora. Batzen gaituenak indartuko eta gotortuko omen gaitu. Horra nazionalismo utilitaristaren eredua.

Gauzak horren argiak ote dira, ordea, Katalunian? Ez dirudi abertzale katalanen iritzi guztiak bat datozenik. Vicent Partalen lekukotasunak besterik dio. Katalan horrek dioenez:

Azken aste honetan esentzialismo independentista deritzon horren inguruan dezenteko zalaparta izan da. Independentista batzuek aspalditik salatzen gaituzte besteok esentzialistatzat, zeren eta guk pentsatzen dugu independentzia ez dela kontu utilitario hutsa; aitzitik, pentsatzen dugu herri zapaldu baten aldeko justizia-egintza bat dela, nazio gisa dauzkan eskubideak berreskuratzeko modu bat. Gu nazionalistak kontsideratzen gara. Orain eztabaidaren tonua igo egin dute eta era honetako esamoldeak zabaldu dituzte: 'etno-independentistak', 'esentzialista etnikoak' eta antzeko mezuak dabilta han-hemenka. Eztabaidaren jatorria batik batik Kataluniako Errepublikan espainierak izango lukeen edo ez lukeen ofizialtasunaren auzitik dator. Erasoaren jomugan gaudenon iritzi gaztelaniak ez luke hizkuntza ofiziala izan behar.⁷

Biziki zirikagarria da euskaldunontzat independentismo «utilitarioaren» inguruko eztabaida hori. Izan ere, oso deigarria egiten zaigu inklusioaren izenean nazionalismo sozioekonomikoa aldezte eta nazioaren identitate historikoa eta linguistikoa gutxiestea, eta are destainatzea. Gure ustez, nazionalismoak alde makurrik baldin badu, ekonomiaren

alorrean baitu bereziki: hartara, munduan dauden milioika gizakiren zori gaiztoak ez du izenik eta neurririk, baina Estatu nazional bakoitzak bere mugapeko herritarrak

Euskal Estatuaren
formulazioan
abertzaletasunaren
aldaera guztiak oker
dabiltza euskara
borrokaren erdigunetik
periferiara baztertuta

bakarrak ditu zaindu beharreko herritarrak. Bost axola mugaz bestaldeko goseteak, miseriak, pobreziak eta desberdintasunak⁸. Zureak egin du jaio zaren Estatuaren muga barruan jaio ordez egoera sozioekonomiko madarikatu bateko beste Estatu batean jaio bazara. C. Ulises Moulinesen «politikoki egokia den nazionalismo bakarra nazionalismo in-

ternazionalista da» proposamenari nik neuk zentzu sozioekonomikoa esleituko nioke⁹.

Katalana eta euskara, dirudienez, 'eskluieteak' dira, zeren eta herritar bakoitzak bere identitate-sentimenduak omen ditu, eta guztiok omen daukagu lekua balizko Katalunia edo Euskal Herria independentean. Kontua ez omen da eragin diguten etnozidio historikoa erreparatzea Vicent Partalek deritzon bezala, hots, «herri zapaldu baten aldeko justizia-egintza bat» burutzea. Ez, kontua bide da Eskozian, Katalunian edo Euskal Herrian hilean euro batzuk gehiago irabaztea eta ongizate maila hobea edukitzea. «Estatu bat eduki nahi dugula ulertzea kosta egiten da Espainiako erregio baten modura amaitzeko». Gure egiten ditugu erabat Víctor Alexandreren hitz horiek¹⁰.

Nazionalismo sozioekonomikoaren argudio nagusi bat hau izaten da: hobeto biziko gara gure baliabideak eta erakundeak guk geuk gobernatuta. Alabaina, «hobeto bizitzea» ez da zentzu hertsian sistema sozioekonomikoari bakarrik dagoen balio sozial bat; pertsona bat hobeto bizi da, halaber, bere nazio-identitateak bermatzen dizkion oinarritzko eskubideen sisteman txertatuta. Hau da, bere nazio hizkuntzak, kulturak, historiak eta lurraldeak osatzen duten erreferentzia

sistemaren baitan. Hobeto bizitzea ez da soilik baliabide sozioekonomiko batzuk eskueran edukitzea. Gizakiaren beharrak askoz ere zabalagoak eta askotarikoagoak dira.

Euskal Estatuaren formulazioan abertzaletasunaren aldaera guztiak dabilta oker euskara borrokaren erdigunetik periferiara baztertuta. Bai, jakina, mendetako okupazio eta kolonizazio nazionalak erroetaraino arrotzu gaitu. Gure baitan habia egin duen espainol edo frantses txikiak gure naziotasun euskalduna erauzi egin digu. Gure praktika euskalduna ez da nazionala, etnikoa baizik. Gure euskalduntasuna diglosikoa da, ez nazionala. Guztiarekin ere, ordea, ez da bidezkoa nazio euskaldunaren erreparazio eta justizia historikoari ekin ordez, Euskal Herriaren izaera linguistikoa eta kulturala merke-zurrean saltzeko jarrera zuritu nahi izatea.

Balizko euskal Estatuaren sistema nazionalean euskalduna etxean arrotz eta erdaldunak etxeko bihurtzeko prest dagoen independentismoak azalpen bakarra dauka: hots, ez dela deseroso sentitzen egungo espainoltasun edo frantsestasunaren sistema nazional linguistikoa. Estatuaren fetitxismoan sinesen du, Estatuak nazioaren euskalduntasuna bidera dezakeelakoan. Independentismoaren helburuak aseta daude nonbait *vascoa* izatearekin. Txepetxek behinola zioen moduan:

Denak *vascoak* direnez eta *vasco* gehienak erdaldunak direnez, euskaldun izatea *vasco* izateko modu minoritario eta baztergarri bat besterik ez da. Erdigunea, Komunitate Linguistikoa Euskalduna, periferiaren periferia bilakatzen da.¹¹

Erdalduntasunean euskalduntasunean bezain eroso eta are laketago sentitzen diren abertzale independentzia zaleei gauza hauek ulertaraztea ez da gauza erraza. Horregatik, Txepetx hurrengo pasarteak ez diet itzuliko, ea mezua hobeiki ulertzeko modua eskaintzen diedan horrela. Euskaraz bizitzea oinarritzko eskubidea izateaz gain, beren askatasun eta duintasunaren oinarria euskalduntasuna dutenentzat,

... la vida o la muerte del Euskara no es una moda pasajera, ni un tema de conversación para una charla de café. Ellos están com-

prometidos en Euskara con todo su ser. Y no pueden consentir de ninguna de las maneras que se exterminen a su lengua, porque en ella está comprometida su valoración de la realidad, su percepción del mundo y su intercomunicación con los demás: es decir, aquello precisamente que determina su modo propio –e insustituible– de ser hombre en el mundo.¹²

Espantuka hasiko zaizkigu gure independentzia zale amorratuak euskararen auzia horren maila gorenean paratuta. Hala ere, nik galdera bat egingo nieke Txepetxen zentzu bertsean: errealitatearen balorazioa, mundua hautemateko modua, gainerakoekin daukaten erreferentzia-sistema, hau da, gizakia izateko daukaten modu propio eta ordezkazina nolakoa izango da balizko euskal Estatuan orain bezala espainieraz edo frantsesez bizi direnentzat? Ez al dute horiek guztiek, *vascoen* erabateko gehiengoak alegia, bizitza soziala eta pertsonala modu horretan biziko? Espainieratik eta espainieraz, esan nahi genuen. Jakina da alde zaureratik gauzak halaxe izango lirartekeela, errealitatearen eta pentsamenduaren arteko lokarriak lotzen dituen hizkuntza hegemonismoaren mintzaira izango dela.

Euskal Herria euskaldunen herri historikoa izan baldin bada, herri horrentzat sistema nazional burujabe bat –Estatu bat– eratzea da abertzaletasunak eta independentismoak daukan erronka behinena. Ezagun denez, askotariko motibazioak daude independentziaren aldeko borrokan esku hartzeko. Ez dezagun ahortzi, haatik, nazio-arazoa dugula oroz gain esku arteko auzi hau, eta gainerako motibazio eta helburuen indarrak kontraesan nagusi horren konponbidera moldatu behar direla. Arbolak ez diezagula basoa ikustea eragotzi. Zatiak ez dezala osotasuna desitxuratu.

Eredu klasikoak ez digu balio

Frantziako iraultzaren garaian, frantsesak ez omen ziren %30 baino gehiago. Frantziako herritar gehienak, hizkuntzaz eta hizkuntzari loturiko nortasun etnokulturalari zegokionez, ez ziren frantsesak, nazio identitate politiko eta ideologikoaren

sistemari begira frantsesak sentitu arren. Frantsestasun hura aski abstraktua zen eguneroko bizimoduaren nondik norakoak ezaugarritzeko jardueran. Jendea herrian herriko hizkuntza eta kultura erreferenteetan bizi zen. Jendearen bizitza soziala eta kulturala herrian herriko identitate etnikoak hezurmamitzen zuen. Denboraren poderioz eta inperialismoaren eskutik, ordea, Frantziak sortu zuen Estatu hegemonistaren helburu etnozida azken bururaino mamitu da azkenean. Hartara, bere nazio hizkuntza, kultura eta ideologiaren ezpaleko bilakarazi ditu herritar guztiak, euskaldunak barne. Horra bada mendean hartutako hizkuntzak eta nazioak iraungiaraziz, nazio eta hizkuntza arazoak nola desagerraraz ditzakeen Estatu etnozida espansionistak.

Estatuaren eta nazioaren arteko dialektikan, esan dezagun oinarrizko bi eredu daudela: Estatuak nazioa eraikitzeke daukan eredia, batetik, eta nazio minorizatuak Estatua eratzeko daukan eredia, bestetik. Frantziako ereduan bezala, nazio linguistiko minoritario bat –frantsesa– nazio hegemoniko bihurtzeko, nazio minoritarioaren identitate erreferenteak Estatuaren boterearekin bat datozenean. Etxean bertan daukagu eredu horren gauzapena: XVIII. mendeko eta ondorengo Gipuzkoa guztiz euskalduna baldin bazen, eta euskara besterik ez zekiten haien artean erdal komunitatea gutxiengo izanda ere, denbora kontua besterik ez da izan hizkuntzari dagokionez espainiar Estatuarekin bat zetorren gutxiengo erdaldun hura komunitate hegemoniko bihurtzea. Eredu klasiko horren arabera, beraz, Estatuak nazioa eraikitzen du.

Euskalduntasuna naziogintzaren periferian kokatu nahi duguten gure independentzia zaleek eredu klasikoaren kontuak aipatzen dizkigute. Estatua behar omen dugu. Boterea behar omen dugu. Baina ez digute argitzen eredu klasiko hori nola arraio aplikatu daitekeen hizkuntza minorizatuaren baldintza nazional hauskorretan. Ez digute argitzen, argitu ezinekoa delako: hain zuzen, eredu klasikoak ezin baitu funtzionatu minorizazioak jotako hizkuntzaren baldintza

soziolinguistikoetan. Ikusi dugun bezala, bere hizkuntza minoritarioa Estatuak bere mendeko lurraldean hedarazi eta inposa dezake, baina Estatu batek nola normalizatuko du praxian bere hizkuntza ez den hizkuntza minorizatu bat? Nazio euskaldun bat behar dugu euskaldunok, egungo nazio arrotua euskaldundu behar dugu, egunen batean euskal Estaturik eraikiko badugu. Naziotasuna ehuntzen duten faktoreak landu behar ditugu lehenik¹³, Estatuaren proiektua abian ipintzeko.

Estatuaren eragin-indarra eraginkorra da hizkuntza kontuetan, baldin eta normalizatu nahi den hizkuntza haren praxi eta interes linguistikoekin bat baldin badator. Gainerakoan, Estatuaren ahalegina antzua da, formala, eta azkenean amore ematen du, Irlandakoak eman zuen antzera. Nazio irlandarra Estatuaren jabe egin zen, baina ez zen gai izan minorizazioaren marra gorriak igarotako gaelikoa zulo beltzetik ateratzeko. Eta minorizazioaren marra gorriak zertan ote dira euskarari dagokionez? Uemako¹⁴ udalerriak salbuetsita, zein hizkuntzatan funtzionatzen du euskal

gizartearen ehundura eta egitura ekonomikoak, sozialak, mediati-koak, kulturalak? Azken batean, zein da gure gizartearen jardue-
ra komunikatiboa ahalbidetzen duen hizkuntza ia bakarra? Zein da botere faktikoen hizkuntza bakarra, hots, Salvador Cardúsen esanera botere harreman guztien bederatzitik zortzi kontrolatzen duen boterearen hizkuntza?¹⁵.

Estatu batek hizkuntza minoritario bat normaliza dezake bere

lurraldean bien arteko botere kidetasuna dagoenean, baina ez hizkuntza minorizatu bat. Eta arrazoia oso sinplea da: ez dago botere kidetasunik bien artean, ez dago elkarrekiko dialektika eraginkorrik. Hizkuntza minorizatu normaliza dezakeen Estatu mota bakarra hizkuntza horretan funtzionatzen

Hizkuntza minorizatu normaliza dezakeen Estatu mota bakarra hizkuntza horretan funtzionatzen duen Estatuak da. Euskaraz hezurmamitzen ez den Estatuak ezin du euskararen nazioa eraiki

duen Estatua da. Euskaraz hezurmamitzen ez den Estatuak ezin du euskararen naziorik eraiki.

Euskal Herriari eragin dioten etnozidio historikoa erreparatu eta justizia egin beharrean, euskaldunoi eragindako bidegabekeriaren aurrean ezin dugu beste aldera begiratu orain. Joxe Azurmendiren hitzetan esanda, «oraingo gure borrokak arbasoen iraganeko bizitza duintzen du, historia-ko galtzaileen arrazoia errebindikatzen du»¹⁶. Eta halakorik ez genuke egingo guk orain haien euskalduntasun zapaldua eta baztertua ahantziko bagenu. Haien mina gure egingo ez bagenu. Haiekiko enpatiarik erakutsiko ez bagenu.

Herri eta nazio gisa Euskal Herriaren baliorik behinena euskalduntasunean datza gure ustez. Estatu bat behar du gure herriak beste modu batera garatu eta eutsi ezin dion euskalduntasun hori sustatu, biziberritu eta gauzatzeko. Oinarrizko giza eskubidea dugu euskaldunok euskaraz bizi ahal izatea, eta hori ahalbidetzen ez duen Estatuaren proiektua orain arteko bidegabekeria historikoari jarraipena ematea izango litzateke. Etnozidioaren kate bortitzari beste kate-maila bat eranstea. Horregatik da euskararen aldeko borroka euskal nazio eta Estatuaren aldeko politikaren bizkarrezurra.

Amaitze aldera, betoz Salvador Cardúsen hitz argigarri hauek:

... lehendabizi independentzia lortu behar dugu ala zer egin erabaki behar dugu dilemaren aurrean, bi prozesuak aldi berean egiten ikasi behar dugu. Eta norbaitek esaten badigu bat bestearen aurretik doala, seguru asko, biak eragotzi nahi dizkigu.¹⁷

Oharrak

1. José M^a Sánchez Carrión *Txepetx, Un futuro para nuestro pasado*, 1987, 272.
2. Estitxu Eizagirre, Axier Lopez, Lander Arbelaitz, 'Hizkuntzaren presioa aldeztatzen goaz', *Argia* 2.455, 2015-03-29.

3. Txillardegi, *Huntaz eta hartaz*, 1983, Elkar, 69.
4. Eneko Bidegain, 'Historia eta oraina', *Berria*, 2015-05-21.
5. Hegemonismoak inperialismoa eta arrazakeria ditu zentzu eta mami, nazionalismo askatzaileak ez bezala; hegemonia bidezkoa da hizkuntzen eta nazioen arteko berdintasun estatusa bermatzeko, hegemonismoa ez.
6. «Elebitasuna, hizkuntza ordezkapen prozesuaren urratsetako bat dela diote dakitenek, diglosia bezalatsu. Euskaldunon kasuan, ez elebitasuna eta ez diglosia, elebikeria, zokoraketa, eta minorizazioa dira gure egoerari ondoen egokitzen zaizkion kontzeptuak. Baita itxurakeria ere» (Jonjo Agirre Martinez, 'Elebikeriak bizi gaitu', www.erabili.eus, 2015-02-04).
7. Vicent Partal, 'El (falso) debate sobre el esencialismo', www.vilaweb.cat, 2015-02.
8. «Gaur egun, hiritartasunean oinarrituta bidegabeko bazterkeria eta desberdintasun [sozioekonomikoak] daude indarrean jaitze-lekua bezalako gertakari zorizko eta kasualitate hutsezko bat dela medio» (Miguel Carbonell, in Will Kymlicka, *Fronteras territoriales*, Trotta, 2006, 13).
9. Beste proposamen hau ere osoki onartzen dut: «Nazio orok eskubidea du, baita eginbidea ere, ahal den neurrian bere identitatea zaintzeko, gordetzeko; eta aldi berean beste nazio batzuek berena zaintzeko errespetatu behar diren baldintzak errespetatzeko obligazioa du» (C. Ulises Moulines, *Manifestu nazionalista*, 2008, Txalaparta, 105).
10. Víctor Alexandre, '¿Qué haremos de la lengua al ser independientes?', www.victoralalexandre.cat.
11. José M^a Sánchez Carrión *Txepetx*, *Un futuro para nuestro pasado*, 1987, 267.
12. *Ibidem*, 265.
13. Luis Villororen arabera, lau ezaugarri nagusi ditu nazio identitatearen sistemak: 1) kultur komunitatea; 2) naziokide izatearen kontzientzia, 3) egitismo komuna; 4) lurralde batekiko harremana (in C. Ulises Moulines, *Manifestu nazionalista*, 2008, Txalaparta, 58).
14. Jakitekoa litzateke Uemako herrietan burutzen den jarduera ekonomiko industrialaren hizkuntza nagusia zein den. Zein hizkuntzatan pentsatzen, idazten era formulatzen diren jarduera horren gora-beherak.
15. Salvador Cardús, 'El iceberg y el deshielo', www.lavanguardia.com, 2013-01-23.
16. Joxe Azurmendi, 'Sarrionandia: nazioaren kontzeptua behelaino artean', *Jakin* 207, 2015, 23.
17. Salvador Cardús, 'Desde cero', www.nabarralde.com.

Euskara, estatua eta feminismoa

Jule Goikoetxea

UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakaslea

Sarrera

Euskal estatugintza feministaz aritzerakoan, euskaldun eta feminista kontzeptuek jada mugatzen dituzte estatu horren balizko esanahi eta praktika multzoak. Euskaldun izatea eta emakume izatea subalterno izatea da. Eta, beraz, emakumeari gertatzen zaiona gertatzen zaio, zenbait eremutan, euskaldunari. Ikus dezagun lehenik zertan datzan emakumearen subalternitatea, euskaldunarena azaltzeko. Euskara ez baita subalternoa. Subalternoak euskara darabilten pertsonak edo klase sozialak dira.

Emakumearen eskusioan oinarritzen den eremu publikoa ez da soilik eremu pribatuaren bidez, hots, familia nuklearraren bidez eratu, baizik eta emakumeek populazio osoaren birsortzea eta zaintza dohain egitearen bidez, ordutegirik gabe, soldatarik gabe, eskubiderik gabe. Euskaraz bizi nahi duenak ere egoera antzekoa bizi dezake, eta feminismoa adituen kontua ez den bezala, euskalgintza ez da komunitate zientifikoaren jarduera, baizik eta guztion eguneroko praktika. Aldiz, euskarak ez bezala, geure egungo demokraziarik sistema patriarkalean du oinarria: sexu-generoen eta espazioaren (publiko-pribatu) ezberdintzearen bidez giltzatzen

den sistema da. Hainbat feministek esan izan duten moduan, gizonezkoen eremuak balioz betetakoak dira, ez ekintza edo lan batzuek balio handiagoa dutelako eta horiek gizonezkoentzako erreserbatuak direlako, baizik eta gizonezkoek egiten duten orok balioa hartzen duelako gizonezkoek egite hutsagatik (ikus Basque Culinary Center).

Antzeko zerbait atzeman dezakegu gaztelera eta frantsesarekin. Gaztelera edo frantsesaz egindakoak balio handiagoa du euskaraz egiten, ekoizten, irudikatzen, pentsatzen eta idazten denak baino. Balioa edo prestigioa ez ditu gizabanakoak ezartzen; geure ekintzen eta ideien balioak egitura sozialak, ekonomikoak eta politikoak ezartzen ditu, eta balio (moral, ekonomiko, kultural, politiko) horien arabera egituratzen da geure gizartea. Geure gizartean gizonezkoek gobernatzen dute ez dirudunak direlako, Smith, Burke edo Marxek uste bezala, ezta jakintsuak direlako ere, Platon, Aristoteles, San Tomas, Descartes, Kant, Freud, Rawls, Habermasek eta egungo heziketa sistemak eta hedabideek ulertzera eman nahi izan duten bezala. Gizonezkoek gobernatzen dute zakila izate hutsagatik. Berdina gertatzen da gazteleraekin eta frantsesarekin. Hegemonikoak dira, unibertsalak nahi bada, estatua dutelako (egitura soberanoa), ez jakintsuak edo dirudunak direlako. Edo, nahi bada, jakintsuak eta dirudunak dira (hegemonikoak) estatua (zakila) dutelako, eta ez alderantziz.

Subalternitatea

Gramscientzako, 'subalterno' hitzak behe mailako esan nahi du, boterea duten klaseen menpe dauden beste klaseak dira subalternoak: langileak, nekazariak, etorkinak. Botere hegemonikora iritsi ezin daitezkeen horiek dira subalternoak. Subalternoen historia, hortaz, zatikatua da, subalternoek ez dituzte baliabideak beren errepresentazioa, irudia, ahotsa izateko (Spivak, 1985), ez baitute kulturarik, hau da, balio, autoritate eta prestigiorik, eta, beraz, erakundeetarako sarbiderik ere ez. Horregatik, beren historia ez da historia unibertsala,

ez da sikiera historia. Hori da emakumeekin gertatzen dena sistema patriarkaletan. Hori da euskaldunekin gertatzen dena estatu espainol eta frantsesean.

Hori aldatzeko, Gramscik klase subalvernoen iraultza egin behar zela zioen. Halere, ‘Can the Subaltern Speak?’ testuan, Spivakek argi uzten du: subalvernoa ez da entitate bat, subalverno mota asko dago, subalvernoak ez dira homogeneous beren interes, identitate, desio eta berezitasunetan. Subjektu hegemoniko-homogeneousaren aurka, subjektu subalvernoak identitate zatikatua du, anitza, eta hala izan behar da pentsatua –zatikatua–. Horrela, aliantza anitz egiteko subjektu ezin ho-

bea bilakatzen zaigu subalvernoa. Praktika politikoari dago-kionez, egia da subalvernoak identifikatzeko esentzialismo pragmatikora jo behar dela, hau da, «*Ni subalvernoa naiz eta zu ere subalvernoa zara –berdinak gara*»; baina identitate subalverno hori, emakume izate hori edo euskaldun izate hori ez da eratortzen esentzia bat dagoelako emakume edo

Euskaldun izatea, emakume izatea bezala, borroka hegemoniko zehatzen ondorioa da; hain zuzen ere, esentziarik ez dago emakume edo euskaldun egiten gaituena

euskaldun egiten gaituena. Euskaraz aritzeak euskaldun egiten gaituela esatea oso postmodernoa izan liteke, oso irekia eta likidoa irudi dezake; baina errealitatea ez da horren likidoa, eta ni alemanez egiteak ez nau aleman bilakatzen, eta nire ama, hamarkadetan debekatua egon den euskaraz egiten ez dakiena, euskalduna da, nire amona eta birramona euskaldunak ziren bezalaxe. Eta edozein kasutan, euskaldun izatea, emakume izatea bezala, borroka hegemoniko zehatzen ondorioa delako; hain zuzen ere, esentziarik ez dagoelako emakume edo euskaldun egiten gaituena. Euskalduna ez da euskara duena eta gizona ez da zakila duena. Ezberdintze hori egin ezean, euskalduna esentzializatzen ibiliko gara, emakumeekin (eta gizonekin) patriarkatuak egiten duen bezala.

Euskaldun egiten gaituena ez da euskaraz aritze hutsa, elitetik eta botere hegemonikotik at egoteak bilakatzen du emakumea ema-kume, euskalduna euskaldun, eta, beraz, emakumearen eta euskaldunaren identitatea eta subalternitatea boteretik at egotetik eratortzen da. Emakumea eraikitako figura da, euskalduna bezala. Eta zer da emakumea galdera ez dugu erantzungo esanez: titiak edo bagina duena da emakumea. Beraz, «zer da euskaldun izatea? Euskaraz egitea» ondo dago mobilizaziorako lema gisa, baina identitate kultural eta politikoa ez dator gauza bat egin edo edukitzetik (euskara, zakila, bagina), baizik eta praktika eta diskurtso multzoen ondorioz sortzen den identitate gatazkatsutik. Ez dago ezer emakumeen artean, ezta euskaldunen artean, esentzialki berdinak egiten dituen (ezta gizonezkoen artean ere), baina emakume, etorkin, euskaldun edo 'diferente' bezala borrokatzen denak diskurtso menperatzailearen kategoriak erabiltzen ditu 'emakume, etorkin, etab.' diskurtso horri berari aurre egiteko. 'Etorkin', 'euskaldun', 'emakume', 'pobre' identitateak kolektiboak dira, gatazka sozial, politiko eta ekonomikoen ondorio dira. Deleuzek esango lukeen moduan, identitatea diferentzietan oinarritzen da eta diferentziak sozialki eratuak dira (Butler, 2000: 28).

Subalternoek, euren borroka eta oposizioaren bidez, subalterno kokagunetik ateratzea dute helburu, eta hori gertatzen den heinean, subalterno berriak sortuko dira. Berebizikoa da hori ez ahaztea euskal estatugintzaz ari garela.

Komunitate ororen eraketak biolentzia baitakar, ekidinezina da, amankomuna sortu behar den heinean, integrazioaren bidez egin behar da, baina integrazioak eskklusioa dakar, zeren eta komunitaterik ez legoke diferentziarik egongo ez balitz, demagun, euskaldun eta frantsesen artean, aleman eta espainolen artean. Komunitatearen eraketa eta antolakuntza helburu duen sistema orok, demokrazia barne, kanporaketa behar du barneraketa egiteko, 'gu' bat behar duelako eta 'gu' horrek 'haiek' bat (Mouffe, 1997), alegia, identitateak diferentzia behar du, haren menpe bizi delako, onerako eta txarrerako.

Hortaz, geure testuinguru demokratikoan, ‘subalterno’ hitza gizon hegemonikoaren logikak eta dominazioak proiektu demokratikoa alde batera uzten duela salatzeke erabiltzen du feminismoak; demokraziak ez duela biolentziaren absentsia esan nahi argitzeke eta komunitate politikoetan populazioaren parte bat bakarrik dela demos edo herritar mahaigaineratzeke erabiltzen da ‘subalterno’ hitza.

Demosa berdinen herria da eta demokrazia berdinen gobernu, baina biztanle guztiak ez dira berdinak, hori da gako; pobreak eta aberatsak, bertakoak eta etorkinak, gizonak eta emakumeak, umeak eta zaharrak, euskaldunak eta ez-euskaldunak ditugu: nortzuk dira berdinak eta nortzuk diferenteak?

Zein diferentzia sustatuko dira eta zein neutralizatu euskal estatugintzan? Demos orok uzten du kanpo beti zerbait-norbait; helburua, beraz, eskusio mekanismoak identifikatu eta kontrolatzea da ahalik eta eskusio murriztena edo eragingarriena egiteko ahalik eta biolentzia txikiarekin.

Demokrazia eta patriarkatua

Patriarkatua diferentzia zehatz batzuen birsortze sistema da, baita kapitalismoa, sozialismoa eta demokrazia ere. Sistema guztiak taxutzen dute existentzia (emakumea izan, euskalduna izan) –berdintasunak eta diferentziak eraikiz edo deuseztatuz–. Diferentzia ulertzeko era asko dago. Aipatu dugu diferentzia identitatea baino lehenagokoa dela Deleuzerentzat, diferentziak egiten duela posible identitatea.

Gizona zer da? Emakumea ez dena. Gizona esentziala, zintzoa, normala, subjektua, burua, kultura, purua, publikoa, maskulinoa da. Emakumea zer da? Gizona ez dena. Emakumea akzidentala, maltzurra, desbideratua, objektua, gorputza, naturala, lizuna, pribatua eta femeninoa da. Euskalduna zer da? Lizuna, akzidentala, naturala, objektua eta, jakina, pribatua. Argi dago paralelismoa eta geure sistema politiko, sozial eta ekonomikoen oinarri filosofikoa.

Eguno geure *sistema* [soziala, politikoa, ekonomikoa]
diferentzia kontzeptual hauetan oinarritzen da:

Gizona	Emakumea
Esentziala	Akzidentala
Zintzoa	Maltzurra
Normala	Desbideratua
Subjektua	Objektua
Burua	Gorputza
Kulturala	Naturala
Purua	Lizuna
Publikoa	Pribatua
Maskulinoa	Femeninoa
(Espainola/Frantsesa)	(Euskalduna)
(<i>Kapital sinbolikoa</i>)	(<i>Biolentzia sinbolikoa</i>)

Euskal estatugintza feministaren helburu nagusia euskal feminismoa hegemonikoa bilakatzea da, baina egungo munduan ez dago hegemoniko izaterik, epe luzera, estaturik gabe. Ahalmen politiko gehien metatu duen erakunde multzoa baita estatua (Jessop, Weber). ‘Ahalmen politikoa’ erakundetako eta lurraldeko boterea da: errealitate sozial eta

Estatua da, sistema demokratikoetan, errealitatea birsortzeko ahalmen gorena duena zurekin, familia batekin, mugimendu sozial, sindikatu eta enprekin konparatuta

politikoa sortzen eta egituratzen du ahalmen mota horrek. Estatua da, sistema demokratikoetan, errealitatea birsortzeko ahalmen gorena duena zurekin, familia batekin, mugimendu sozial, sindikatu eta enprekin konparatuta. Hori da gakoa. Estatu orok birsortzen ditu lehen aipatu diferentziak (genero-sexuen artekoa, bertako-etorkin, aberats-pobre) kapitalen ekoizpen eta birbanaketaren bidez (kapital kulturala

–hezkontza eta formazioa–, ekonomikoa –diru sarrerak–, eta, sinbolikoa –balioak, autoritatea, prestigioa, errespetua).

Horregatik mintzo gara estatugintza feministaz. Feminismoa hegemonikoa bilakatzeko estatu egiturak hartu behar dituelako, euskarak bezala. Estatu gabe oso zaila da ostutako

autoritatea, prestigioa, errespetua, balioa eta bai emakumezkoek bai euskarak eta euskaldunek ekoizitako aberastasuna berreskuratzea. Estatu aparatua hartu nahi izateak kontraboterean sortu eta hazi direnentzat, herrigintzaren eta kontraboterearen birkontzeptualizazioa eskatzen du, beherago egingo dugun moduan.

Estatu orok sortzen ditu diferentziak, baina Estatu Demokratikoa deitzen dugunak kapitalen edo boterearen erreproduzio hori erakunde publikoen bidez egiten du, orain dela 300 urte ez bezala. Eskolaren, formazio gradu eta unibertsitateen bidez, batetik, hedabideen bidez, osasun eta justizia sistema publikoaren bidez, sindikatu eta enpresari elkartearen bidez, bestetik, eta, jakina, alderdi eta familia hetero-patriarkalaren sustapenaren bidez birsortzen ditu botere-kapital ezberdinak eta diferentziak.

Demokratizazio prozesu ororen ezaugarria da, beste batzuen artean, berdintasun sozioekonomikoa, eta diferentzia sozioekonomikoa handiagotzen den heinean, desdemokratizazioa gertatzen da. Demokratizazioak, komunitatearen eraikuntza zehatz horrek, beraz, berdintasun sozioekonomikoa ekarri behar du, baina berdintasun mota hori Estatuaren ahalmen politikoaren bidez soilik egin daiteke. Zergatik? Momentu honetan Estatuak bakarrik inposatu dezakeelako berdintasun sozioekonomiko eta politikoa, eta ez badu inposatu nahi, egun gertatzen ari den moduan, diferentzia sozioekonomikoa handitzen da. Eta diferentzia sozioekonomikoak handitzean, beste bi ardatzak ere aldentzen dira, alegia, bertako-etorkinen arteko diferentzia eta, jakina, oinarrikoena, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko diferentzia. Horregatik doaz eskutik demokrazia eta feminismoa.

Berdintasun politikoa ez da naturan 'gertatzen' den fenomeno bat, eraikitze prozesu bat da, biolentzia barne duena. Aipatu dugu berdintasun sozioekonomikoaren inposaketa hegemonia zehatz bat lortuz eta estatu erakundeek duten ahalmen politikoaren bidez egin dela: zergen bidez, derri-gorrezko hezkuntzaren bidez, hezkuntza, osasun eta justizia

publikoaren bidez... Finean, demokratizazioa instituzionalizazio prozesu bat da, zeinak diferentzia eta berdintasun batzuk (eta ez beste batzuk) sortu eta birsortzen dituen, era zehatz batean, eta, beti, herria gobernatze prozesuan barneratuz. Diferentziak anitzak dira, baina, aipatu bezala, hiru ardatzetan banatzen ditugu nagusiak (klase sozioekonomikoa, tribu-nazio-kultura, sexu-generoa), eta hiru diferentzia ardatz horiek modu zehatz batean birsortzen ditu sistema demokratikoak: populazioa gobernatuz.

Populazioa gobernatzearena nahiko berria da. XIX. mendean hartzen du indarra ideia horrek, eta liberalismo ilustratua, industrializazioa eta sozialismoa zabalduz doazen heinean hezurmamitzen hasiko da. Zer esan nahi du gobernatu? Zer egin da populazioa gobernatzeko? Populazioa erregulatu, hau da, diziplinatu eta kontrolatu (Foucault). Diziplinazko gizartea aipatu erakunde publikoen bidez hazi eta hezten den gizartea da, eta kontrolezko gizartea, erakunde-kokagune horietan (haurtzaindegia, eskola, tailerra, lantokia, administrazioa, erresidentzia, etxe nuklearra) bere bizitza guztia pasa gabe ere, beste bide batzuen bidez kontrolpean dagoen gizartea da, hala nola, ogasunak errenta aitortpena egina balditzen dizunean, zu hara joan gabe, Osakidetzak zitologia egiteko deitzen dizunean, zuk hara deitu gabe, edo bisarekin eta osasun txartelarekin antisorgailuak erosten dituzunean prezio erdira edozein farmazia pribatutan; *freelance*-ak, autonomoak, ordutegi malgua izan eta lantokitik kanpo lan egiten dutenak, guztiak dira kontrolezko gizarte baten elementu eta praktikak.

Lortutako berdintasun eskasa erdiesteko, biolentzia zuzena baino zeharkakoa eta sinbolikoa erabili izan da. Kapitalen ekoizpen, birbanaketa eta birsortze zehatz baten bidez sortzen dira diferentziak eta berdintasunak, eta sistema demokratikoetan aipatu diziplina eta kontrol jarraituaren bidez egiten da, eta segurtasun gailuak medio gauzatu. Norma estandarren arabera funtzionatzen duen gizartea da geurea, 'normalizazio gizartea' esaten zaio, eta diziplinazko

mekanismo erregulatzaileretan oinarritzen dela esateak geure sistema demokratikoetako gizarteak estatalizatuak direla baieztatzea da. Estatua ez da justizia sistema, aldundiak, polizia eta ogasuna soilik; epaileek, poliziek, gurasoek, irakasleek, garbitzaileek, sindikalistek, etxeoandreek, laburbilduz, herritarrek hezurmamitzen dute Estatu demokratikoa (kapitalista eta patriarkala). Estatuak ezarritako ordutegian lanera joatea da estatugintza, supermerkatuan edo kooperatiban erositako olio hartzea eta umeak goizero eskolara eramatea. Herrigintza XXI. mendeko Europan ez da Estatuaren kontrako praktika, Estatua demokratizatzeneko praktika multzoa baizik, ezin baita demokraziarik egon herriaren eskakizunak gauzatu gabe. Gauzatze hori, aldiz, erakunde publikoen bidez egiten da, eta ahalmen politiko handiena duen erakunde multzoa Estatua da.

Herrigintza eta estatugintza

«Herrigintza aratzean dabilzala uste duten letxuga auto-gestionatuek» genioen artikuluan batean, «errepideak behar dituzte bidaiatzeko, guztion zerga sistema estatalaren bidez sortutakoak». Bestetik, sarritan jartzen dira letxuga autogestionatuon jabeak gaixo; beraz, osasun sistema ere behar da, baina horretarako eskola eta goi-hezkuntza sistema publikoa, hots, estandarra, nekazari, garraiolari eta erosle gaixo horiek sendatzeko behar diren medikuak eta erizainak zein eskaner berriak asmatuko dituzten ingeniariak hezteko, ospitalea garbitzeko duten eta gaixoei bazkaria egingo dieten langileen multzoa sortzeko. Estatu aparatuen gune organikoa eta produktiboa gurasoek, sindikatuek, enpresari elkarteek, mugimendu sozialek, hedabideek, Osakidetza eta Osasunbideko staffek, irakasleek, gizarte hezitzaileek eta familia heteropatriarkalak taxutzen dute. Zailtasunak sortzen omen ditu ulertzeak Estatu aparatua modernorik gabe ez litzatekeela gizarte zibilik, familia nuklearrik ez sindikaturik existituko, ezta garraio, eskola, osasun eta justizia sistema publikorik

ere. Estatugintza gizartean sakabanatuak dauden hamaika mikropraktika dira; horregatik, estatugintza eta herrigintza-ren arteko zatiketak ez du, zenbait eremutan, inolako esanahirik, batetik, herria estatalizatua dagoelako, eta, bestetik, estatugintza herritarrek egiten dutelako.

Hegoaldean ditugun Euskal Estatu Erakundeek (EEE), oraingo espainiarrak direnak europarrak eta euskaldunak bezainbeste, baliabide eta ahalmen politiko, ekonomiko eta sozial zehatzak dituzte, baina baliabide horiek gure lurraldeetan bizi diren herritarren egungo mobilizazio eta ekoizpen mailaren araberakoak dira. Jakin badakigu EEE horien ahalmen politikoa oso prekariora dela Estatu soberanoekin alderatuta, baina berebizikoa da ulertzea NFE eta EAE bezalako unitate administratiboek dituzten ahalmen eta ondorio juridiko eta politikoak, identitate berriak sortu eta zaharrak desberdinki birsortzen dituzten sistemak baitira, demokratizazio ooren zutabe, alegia.

Nola erabili erakundeok euskal estatugintza feministarako? Hori da galdera. Politika beti da politika alderatua. Jakiteko zergatik duten batzuek ongizate maila altuagoa, gizon zuri aberatsek esaterako, edo jabekuntza murriztagoa, emakume etorkinek bezalaxe, edota zergatik den espainolagoa, euskaldunagoa edo frantsesagoa lurralde hau edo hura, ezinbestekoa da lehen aipatu botereen eratze, metaketa eta birsortze moduak azaltzea, eta, horretarako, ezinbestekoa da EEEen inplikazio material eta sinbolikoak aztertu eta erabiltzea euskal feminismoaren aldetik. Hegoaldean erdietsi ditugun ongizate maila ezberdinak eta identitate anitzak EEEek lortu duten ahalmen politikoari lotuak daude, eta azken horien ahalmen politikoa,aldi berean, iraganeko eta egungo gizarte mobilizazioaren araberakoa da.

Azpimarratu beharrekoa hurrengoa da: herriak sortzen duela estatua, demokraziarik ez dagoela estaturik gabe eta euskal demokrazia feministak herrigintza estatala egitea eskatzen duela, bai euskara bai feminismoa hegemoniko bilakatuko badira.

Ondorioak

Laburbildu dezagun esandakoa. Kapitalen (botere ezberdinen) bidez ezarri eta birsortzen da diferentzia eta berdintasun politikoa (ekonomikoa, kulturala, sinbolikoa). Diferentzia politikoa kapitalen diferentzia da (ez bakarrik, batez ere), sozioekonomikoa, kulturala eta sinbolikoa: zerk bilakatzen du atzerritarra atzerritar, emakumea emakume, pobrea pobre? Eta, euskalduna euskaldun? Daukan kapital sinbolikoak, sozioekonomikoak eta politikoak; horren bidez sortzen da diferentzia politikoa, eta, beraz, emakume pobrea, gizon etorkina eta euskal emakumea.

Diferentzia politikoa kapital ezberdinen artikulazioaren araberakoa da eta kapital sinbolikoaren bidez egiten da artikulazioa, baina kapital sinboliko oro biolentzia sinbolikoa medio birsortzen da (ikus koadroa: kapital/biolentzia sinbolikoa).

Beste era batera esanda, komunitate oro kooperazioaren eta gatazkaren bidez eraikitzen da, akordioaren eta biolentziaren bidez, alegia. Ezin da, beraz, biolentzia sinbolikoa ezabatu, erakundetzearen eta birsortze sinboliko ororen gakoa baita –gatazka eraldaketaren gakoa den bezala–. Euskal komunitatearen existentzia beste batekiko dituen diferentzietan oinarritzen da, eta horrek eskusioa esan nahi du. Guztiok euskaldunak izango bagina, euskalduna desagertuko litzateke.

Bestetik, biolentzia sinbolikoaren osagarritasunak esan nahi du Euskal Herrian euskaraz izango dela eskola publikoa, beharbada frantsesez eta gazteleraz ere; baina arabiarrek ezin go dute arabiarrez ikasi lehen eta bigarren hezkuntza, euskal eskola publikoan. Azken hori euskal estatuaren baliabideen

Herriak sortzen du estatua, demokraziarik ez dago estaturik gabe eta euskal demokrazia feministak herrigintza estatala eskatzen du, bai euskara bai feminismoa hegemoniko bilakatuko badira

eta borroka ideologikoaren arabera, hau da, biolentzia sinboliko, material eta zuzenaren bidez erabakiko da. Eta era berean erabakiko da zer den euskaldun izatea, zer emakume eta zer etorkin, sekula itxi edo amaituko ez den eguneroko zentzuaren borrokan.

Baina horrexegatik galdetu beharko diogu geure buruari nolakoa izango den euskal estatugintza demokratikoaren biolentzia sinbolikoa. Bi helburu erdiesteko: orain, jada, gauzatzen dugun biolentzia identifikatzeko, eta, bestetik, etorkizunera begira, hura kontrolpean mantendu eta eraldatzeko.

Esan nahi baita, norma-lizaziorik edo gizarte norma-lizaturik gabe, ezin da hezkuntza curriculum nazionalik egon, medikuntza publikorik, industria prozesurik, industria produkturik... (Foucault, 1976). Ez dago herririk ez ideologiarik hegemonikoa izan nahi ez duenik bere lurraldean. Eta hegemonia biolentzia sinbolikoan oinarritzen da, mundua ikusteko era zehatz bat orokor bilakatzen duelako hegemoniak. Gazteleraren hegemoniaz ari garenean, zer esan nahi da? Espainiar estatuan espainolez hitz egiten dela eta hitz egin behar dela bizitza publikoan parte hartzeko, ongizate maila on bat lortzeko... Hau da, kapital ekonomiko, kultural eta sinbolikoa metatzeko.

Transfeminismoak hetero-araua edo hetero-norma-tibitatea apurtzeko helburua du, baina ez araurik gabeko eremua osatzeko, non kultura-balio-iritzi-praktika *guztiok* lekua izango duten. Norma(litatea) edo arauak transfeminismotik egiteko baizik. Hortaz, Euskal komun-unitatea eraikitzeko, amankomuna izango dena sortzeko, ez da unibertsaltasun orokor eta neutral batetik egingo, hegemoniaren bidez egin beharko da, hau da, norma-arau edo nahi bada balio eta kultura zehatz batzuetatik egingo da, kanpoan utziz beste batzuk.

Ez da egia «guztiok hobeto biziko gara» leloa. Guztiok ez gara hobeto biziko Euskal Estatu demokratiko eta feminista batean: euskararik ez dakitenek euskara dakitenek baino zailtasun handiagoak izango dituzte, eta misoginoak, sexistak eta aberatsak okerrago biziko dira. Lehen esan bezala, batzuen kapital sinbolikoa bestean biolentzia sinbolikoa

delako. ‘Guztiok’ ez gara hobeto biziko, guztiok ez ditugulako helburu berdinak: batzuek boterea metatu nahi dute, jendea pobretu, publikoa den aberastasuna, guztiok ekoizten dugun aberastasuna pribatizatu eta ondokoa kolpatu nahi dutelako; beste batzuek berea ez den prestigioa ostu nahi dute, emakumeon jakintza deuseztatu, ama zintzoaren irudia zabaldu, emakumeak eta langileak oro har esklabo bilakatu. Beste batzuek etorkinek lana musu-truk egin dezaten desio dute, hauek euskararen desagertzea nahi dute eremu publikotik, horiek dirutza kobratu nahi dute zakila izate hutsagatik eta beste askok espainolez mintzatze hutsagatik prestigioa, autoritatea, kultura eta jakintza eurena dela aldarrikatzen jarraituko dutelako. Ez, guztiok ez gara hobeto biziko euskal estatu demokratiko eta feminista batean.

Demokraziak ez du unibertsala izateko beharrik. Euskal estatuak ez digu bake unibertsalik ekarriko, euskal estatu bat baizik. Eta Euskal Estatua euskalduna, demokratikoa eta feminista izango da feminismoa, euskara eta demokrazia hegemonikoak bilakatzen baditugu. Eta hegemonia biolentzia sinbolikoan oinarritzen da, gaur eta beti. Aukeratu beharko da, orduan, edo euskaldun eta feminista izan edo zintzotasun unibertsala (espainola eta patriarkala) gorpuztu. 🍷

Bibliografia

- Butler, J.; Laclau, E.; Žižek, S. (2000): *Contingency, Hegemony, Universality. Contemporary Dialogues On The Left*, Londres eta New York: Verso.
- Foucault, M. (1976): ‘*Society Must Be Defended*’. *Lectures at the Collège de France 1975-1976*, New York: Picador, 2003.
- Mouffe, C. (1999): *El retorno de lo político. Comunidad, ciudadanía, pluralismo y democracia radical*, Bartzelona: Paidós.
- Spivak, G. (1988): ‘Can the Subaltern Speak?’, in C. Nelson eta L. Grossberg (arg.): *Marxism and the Interpretation of Culture*, Urbana eta Chicago: University of Illinois Press, 271-313.

Euskal errepublika independenteaz

Eduardo Apodaka

*UPV/EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien
Metodologia Saileko irakaslea*

Estatu feministarik?

Aspalditik dator kontua, baina entzun berri dugu iazko azaroan Ondarroan egin zen *Emakume Abertzaleen VI. Topaketa Feministen* eskutik. Topaketen leloa 'Euskal Herriaren burujabetza feminista lortzeko bidean' izan zen. Harez geroztik behin baino gehiagotan entzun eta irakurri dut euskal estatu feministarantz goazela, edo hura aldarrikatu behar dugula.

Aldi berean, beste horrenbestetan entzun dut euskara ezin dela izan subiranotasunaren ardatza, ezta estatu independentearen aldeko borrokaren muina ere. Euskalgintza eta independentismoa lokatzen ari diren seinalea?

Bi adibide (barka biezadate aipatuek txatalak testuingurutik erauzi izana). Unai Apaolaza honela mintzo da «patologia identitarioaz»:

Patologia honen adibidea da «Euskal Herria euskalduna, sozialista... ezean, ez dut independentziarik nahi» baieztapena. Euskal identitatearen inguruko matraka ematen duen independentismoa da unionismoari komeni zaiona... (<http://basque.criticalstew.org/?p=11644>).

Eta Jule Goikoetxeak patologia bera zein kaltegarria izan daitekeen gatzigatzen digu:

Euskal identitatea ez genuke soilik euskal hizkuntza eta pare bat dantza motekin lotu behar [...] larria deritzot, horren larria non euskal egitura politiko eta sozio-ekonomikorik gabeko euskal identitatea existitu daitekeela pentsatzeraino iristen diren batzuk (www.berria.eus/paperekoa/1955/022/001/2014-10-01/euskal_identitatea.htm).

Nola ez irakurri hori dena Ondarroari begira? Estatu feminista bai, baina euskalduna ez? Nola ukatu ahal zaio euskalgintzari feminismoari ematen zaion elikagai bera? Estatu feministarik badaiteke izan? Feminismoa ez al da identitarioa? Euskal identitatea zer da (dantzak eta hizkuntza!?) eta zergatik behar du egitura soziopolitikorik? Zergatik ote da identitatearen desira patologia eta ez estatu propioarena? Ba al da estatu bat izan edo desiratzea berezko balio bat? Ez al da azaldu, esplikatatu, argudiatu, edo hitz bakar batean legitimatu behar? Ez al da oso identitarioa desira hura?

Galderaz itota utzi naute, saiatuko naiz haietatik burua ateratzen.

Unibertsal modernoa: totalizazioaren fantasia gazi-gozo hura...

Feminismoak badu unibertsala dela aldarrikatzeko harrotasuna; hori bera ukatzen zaio euskarari, edota euskalgintzari. Unibertsaltasun hura, bistan da, aukera guztiak edota bizi-praktika guztiak artikulatzeko eta bestelakotzeko ahalmenaren aitortza da. Euskarak ez du halakorik: borroka sinbolikoa galtzen ari da, hemendik gutxira identitatearen diferentzia osagarri eta baliagarria baino ez da izango. Identitatea, bistan da, erdara da. Euskara edota dantzak osagarri eta apaingarri estetiko-politikoak omen dira (eta Identitatean gehiegi nabarmentzen direnean anomalia antojagarriak). Baina, gure kezka hurbilen atzetik korritzen den auzia unibertsaltasunaren bertsio zaharraren eta berrien arteko lehia da.

Unibertsaltasun zaharraren beharra bera jartzen dut kolo-kan. Haren diskurtsoan, feminismoa unibertsala izan daiteke

sistema orokorraren logika begi-bistan jartzen duelako, eta horregatik ere, denok inplikatzeko dituen borroka delako. Handik etor dakioke hegemoniko eta legitimoa izateko behar duen unibertsaltasun hazia.

Modernitatean gogor saiatu dira ideologia politiko gehienak unibertsaltasuna lortzen: gehienek izan nahi izan dute munduaren logika bakarra (*Logos* delako hura) eta, bide-nabar, bakoitzaren xedeak (eta balioak zein interesak) unibertsalak zirela aldarrikatu dute. Unibertsala, horrela definiturik, Jainkoaren begiradaren ordezkotzat sekularra da, dena bere begiradaren mende hartzen duen kontzientzia kreatzaile harena. Hala ere, Modernitatean bi unibertsal mota bereizi behar dira: errealitatea ezartzen duena eta erreala eraldatu nahi duena.

- Lehenengoa, azken finean, errealitatearen egitura baino ez litzateke, ahaztura bat nonbait: erreala zuzen-zuzenean bizitzeko ahaztu egiten baitugu hura noiz eta nola sortu zen, ahaztu zein menderatze eta ekoizte harremanetan taxutu zen. Unibertsala da, alde horretatik, eguneroko bizi-praktiketan eta egituretan naturalizaturik eta legitimaturik dugun guztia. Honetan, berebiziko eragimena aitortu ohi diogu Estatuari.
- Bigarrena eraldatze eta askatze-ideologiaren jarrera izan ohi da: guk badakigu zerk egituratzen duen errealitatea, badugu kontzientzia, zeren eta menderatzen eta zapaltzen gaituen logika hura da osotasuna egituratzen duen logika bera. Guk, hortaz, osotasunaren izenean aritu ahal dugu: gu gara Herria... Gu gara *unibertso sozial osoa* begi-bistan duen kontzientzia eta, ondorioz, hura osoki eraldatu ahal duen borondatea.

Baina biak uztartzen baditugu arazo askotxo izaten ditugu: nola pentsatu ahal du mendeko kontzientziak Unibertsala ez dela legitimoa? Edo Unibertsalean egokitu zaion tokia ez dela onargarria? Nola sentitu ahal du lotzen duen logikaren zentzugabetasuna (eta injustizia, eta legitimitate eza) mundua sentitzeko eta pentsatzeko Unibertsalak ezarririko sentierak

eta pentsabideak baino ez dituenak? Nondik aterako bestela izateko, bestela sentitzeko eta bestela pentsatzeko biderik?

Erantzun borobila dut galdera horientzat: Unibertsala beti izaten da partziala eta ez du inoiz 'totalizazioa' lortzen, hartarako munduko bortxa guztia erabilia ere. Eskerrak! Uniber-

tsal hori, badakigu, unibertsalarena egiten duen parte bat baino ez da eta, ondorioz, besteak *mendeko dibertsoak* izatera kondenatzen dituen. 'Kondena' diot, dibertso horiek mendeko osagarri gutxituak izan behar baitute, edo bestela guztiz desagertu. Asko dira, ostera, dibertso izatera mugatuta ere, sasi-unibertsala

Unibertsala beti izaten da partziala eta ez du inoiz 'totalizazioa' lortzen, hartarako munduko bortxa guztia erabilia ere. Eskerrak!

subertitzen dutenak, *dibertsoak* eta *subertsiboak* direnak. Eta badira nik defendatzen dudan bestelako unibertsaltasunaren eragileak: *dibertso subertsibo* guztiek unibertsaltasun totalizatzaileei aurre egitea dutelako unibertsal.

Edozein logika sozialek parte anitz ezartzen ditu beti. Soziala, oroit, parte askoren arteko harremanen eta harremanetan sortu multzoen izaera da. Jendeok ditugun ekoizpen sistema guztiak (ekonomia, sexua, hizkuntza...) sozialak eta sinbolikoak dira, beraz, guztietan parteak ari dira jokoan: toki eta une jakinetan jokatzen. Aniztasuna da sistema sozialetan ezinbesteko atondura. Hori da, hain zuzen, jende ororen paretotasunaren oinarri *prepolitikoa*, izan ere, denok gara joko sozio-sinbolikoetan egoera eta une partzialetan jokatu behar duten parteak. Usu, *subjektibitatea* deritzo kokapen partikular horri. Bide bakarra egon da historian subjektibitate aniztasuna ezabatzeko: parte baten totalizazioa. Hala eraiki dira eskuarki ezagutzen ditugun unibertsalak eta 'kontzientzia' hegemonikoak (eta horregatik, askorentzat, (euren) lekuz kanpoko kontzientziak direnez, faltsuak edota arrotzak direnak).

Baina, demaseko bortxa beharko lukete unibertsal horiek mendeko eta zapalduaren bizi-esperientzia erabat ezabatzeko,

esperientzia horietan behin eta berriro agertzen baitira parekotasun prepolitikoaren erresistentziak: esperientzia horietan hazi ahal da ‘kanpokotasunaren kontzientzia’, hots, hor sentitu eta ehundu ahal da Unibertsal faltsu harekin lotzen duen lokarria (eta joko sozial hura) ez dela norberaren Egile osoa, eta hor bete behar den jokalaria postu hura ez dela norberaren ‘identitate osoa’. Baduela nork zapalkuntzaz kanpoko *beste nor-izanik*, bestetasun menperagaitz bat, nonbait.

Erresistentzia borroka guztiek pentsatu behar izan dute kanpokotasun bat, alegia, zapalduak eta menderatuak ‘bere burua’ berez eta bereiz aldarrikatu, irudikatu edo eraiki behar izan dute nahitaez mendekotasunari aurre egiteko. Hori berez bada bestelako unibertsaltasun bat: singulartasun edo partikularitasun (propio)an tematzen diren subertsiboek komun dute antagoniko izan beharra.

Eta hori da interesatzen zaidan bestelako unibertsaltasuna: erresistentzia, eraldatze eta askatze-praktiken ‘unibertsaltasuna’. Lehen esan bezala, dibertso subertsiboen unibertsaltasuna. Bestelako unibertsala, beraz, ekoizpen sistema sozio-sinbolikoetan aniztasun ezabaezinaren arrastoen agerpena da. Antagonismoen etengabeko agerpen eta itzulera.

(Horretan ñabardura bat: antagonismoetan (bere buruaren) totalizazioa bilatzen duen parte bat izan ahal dugu eta totalizazio horri mugak eta hesiak jartzen dizkion beste bat. Argi dago zein den askatasun eta justiziaren alde egiten duena. Baina kontuz, askotan totalizazioa besteari egozten zaio, hau da, aniztasuna eta bestetasuna gauzatzen ari denari. Taktika arrunta da totalizazio sinbolikoan. Ondo dakigu euskaldunok euskara dela inposizio totalitarioa eta erdara askatasun unibertsala!)

Horrenbestez, nik totalizazio eta unibertsalizazio horiekin uko egingo nieke. Eta dibertsoen ‘parekotasun’ prepolitikoa *politiko* nola bihurtu pentsatzen hasiko nintzateke. Nola egin hori, gure kasuan, hau da, nola egin euskara (diferentzia partikular hura) diferentzien unibertsaltasunaren artikulatzaile?

Badakit kontu estrategikoa edo marketina izan daitekeela hau dena: Identitatearen unibertsala geure alde erabili ahal

dugu nonbait, diferentzia partikular baten mesedetan (berdintasunaren izenean, esaterako). Eta oso motibagarria izan daiteke, nola ez, Unibertsalaren plazerak eta erosotasunak, nonbaiten eta aldi baterako bada ere, desiratzea eta gozatzea. Hain dira onak Hiritarraren eta Humanoaren plazerak!

Haietan lohituta, ordea, gure anormalitate/singularitate partzial eta zapalduaren kontzientzia galtzen badugu, gureak egin du. Euskarari dagokionez, ez dezagun ahantz euskaldun askok ez dugula Hiritar Humanoa izateko arazorik, euskara bera ez bada; asko baikara gizon kapitaldun zuri heterosexual mende-baldarrak eta abar. Euskara da, beraz, askok eta askok dugun diferentzia gutxietsia eta beste etsia. (Bidenabar: inor ez da izari bakarrekoa, inork ez dihardu posizio sozial bakarrean...) Baina diferentzia gutxitu hori ez da denona, ez da bakarra. Eta ezin ditu joko soziopolitikoetan beste guztiak azpiratu. Egia da ekoizpen-sistemen begirada berezia ematen digula, boterearen ondorioak eta totalizazioaren indarkeria ikusarazten digula, geure-geurezkoa dugula (hala sentitzen dugunok), baina begirada singular bat da beste askoren artean.

Beraz, totalizazioaren fantasiari uko egin diezaiogun proposatu nahi dut, eta haren ordezt, erresistentzia eta diferentzia haustaileen artikulatze irekia proposatu.

Subordinazioaren ordezt, artikulazioa

Artikulaziorako lehendabiziko ikasgaia azaldu dudana da: sasi-unibertsala salatu behar dugu eta dibertso subertsiboen unibertsala defendatu. Unibertsal horren muina 'bestetasun antagonikoa' da (sistemari oldartzen zaion kanpokotasun beregainekoa). Bestetasuna beti izaten da singularra eta partziala, *ergo*, beti izaten dira anitz eta ugari. Gure gaiari dagokionez: independentismoa eta euskalgintza antagonismoetan sortutako proiektuak dira: Unibertsal errearen kontra jotzen duten neurrian dira zentzudunak. Baina ez dira bestetasun antagoniko bakarrak, ezta beste ezer baino *Besteagoak* (unibertsal gisa agertu nahi duten borroken desira, Beste Antagonikoa izatea).

Bigarren ikasgaia baliokideen arteko kutsadura eta elkar ahalduntzea da. Aspaldian, Laclau eta Moufferen ideiak tar-teko, hedatu da artikulazio modurik eraginkorrena hustuketa dela. Adierazle huts batek omen du artikulatze-dohaina. Edo-zein 'irakurketa' onartzen duen adierazleak antagonismoetan diren baliokideak bere baitan artikulatu ahal dituela dio tesi horrek, gutxi asko. Horrela, 'estatu independentea' irakurri eta, nahikara, zera ulertuko genuke: feminismoa, sozialismoa, ekologismoa, euskara, edo (zergatik ez) ongi bizitzea, goi-teknologia edota osasun-sistema onak... Baina, adierazle hutsa izan dadin, adierazlea hustu egin behar omen dugu. Estatu independentea diogunean, besterik ezin omen dugu esan.

Estrategia makurra da hori. Gutxienik hiru arrazoirengatik:

- Ez duen berezkotasun bat ematen baitzaio estatu-desirari, estatu independente batek 'berezko balio nahikoa' izango balu bezala, berezko xedea balitz bezala.
- Hustuketa horretan estatu-desirak zentzua galtzen duelako irakurketa zehatzetan engaiaturik dagoenarentzat. Afektuak eta atxikimendua kaltetzen dira ekinbide hartan.
- Dibertso subertsiboei Adierazle Nagusia ezartzen dielako, alegia, Adierazle Jabea (sistemaren totalizazioari erantzunez, Bestetasun hegemoniko bat totalizatu nahi duena).

Nik ez dut nahi Independentismoa Adierazle Jabea izatea, beste subertsioak 'azpi-borrokak' izatera mugaturik. Alabaina, horrek ez du esan nahi une jakin batean borroka jakin batek beste guztiak sustatzeko indarririk ukan ezin dezakeenik. Hor dago strategiaren gakoa: une kritikoetan zein diren 'premiazkoagoak' edo 'irabazi errazagoak', unean-unean zein den baliabide eraginkorrena jakitea... Kasu, baliabidea edo tresna edo lanabesa edo bitartekoa, ez helburu gainordenatua.

Horrenbestez, estrategia ez da hustuketa, baizik eta zentzuen (esanahien, afektuen eta desiren) artikulazioa. Zapaltze eta menderatze logiken kontra gorpuzten diren dibertsitate subertsiboek ez dute euren artean lehiatu behar baten batek beste guztiak bere helburuen mende ezar ditzan, ezta hura

adierazle huts gisara aurkeztuta beste guztien ordezkari jardun dezan. Zein da alternatiba?

Adierazle hutsa baino, adierazle lokaren ideia nahiago dut. Adierazle lokak badu adierarik, baina gai da besteren bat konnotatzeko, iradokitzeko, gogorarazteko... Kasu honetan, *independentzia* adierazleak euskara, feminismoa, ekologismoa... esan nahi du; loka eta erraria, zabala eta irekia, denez, horiek eta gehiago esan ahal ditu. Jakina, ez du horietako bat ere guttiz 'harrapatzen', ezta haren ordezkari aritzen. Eta, parez pare ibiltzen direnez gero, elkar kutsatu, nahastu eta uztartzen dute.

Bestela esan, Kausa Handiaren tentazioari eutsi behar dugu, ez dagoelako denok batera batzen gaituen mendeko posizioarik, ez delako gutako inor menderatze-logika bakar baten taxukoa. Esperientziak irakatsi digu Kausa Handiaren izenean beste kausak txikitu eta mesprezatu egin direla, eta horrela ere, hainbat zapaltze-logika askoren mende geratu dela isilik eta geldirik, Kausa Handiaren logika bakarraren azpian. Kausa batek besteen energiak xurgatu beharrean, nahiago nuke kausa batetik bestera emozioak garraiatzen,

afektuak kutsatzen eta bizi-gogoak txertatzen asmatuko bagenu. Hortaz, kausa konstelazioaren irudia nahiago.

Nire proposamena independentzia adierazlea 'betetzea' da, xedez, balioz eta afektuz. Euskal identitatea sentitzen dutenei sentiarazi behar zaie hura dela euren aukera

Horrenbestez, nire proposamena independentzia adierazlea 'betetzea' da, esan dudan moduan xedez, balioz eta afektuz. Hartara, euskal identitatea (euskalduntasuna edo dena delakoa) sentitzen dutenei sentiarazi behar zaie hura dela euren aukera, bai eta feministei, ezkerzaleei, ekologistei eta abarrei ere. Hitz

gutxitan, inguru honetan izan diren *dibertsitate subertsibo baliokideen* aukera dela. Baina, esan dudan legez, besteek gauza bera esatea eduki beharko dute; esaterako, euskalgintza

edo feminismoa independentziaren aukera direla sentitu beharko lukete independentistek.

Lurralde honetan estatu independente berri bat altxatu nahi duenari zertarako eta zergatik galdetzen diot: nik proiektu hori zertan den jakin nahi dut. Ez baita estatua lurralde hauetan bizi diren jendeen patu halabeharrezkoa, ezta ezinbesteko hautua (ezta, nire uste anarkoide apalean, inorentzat ere). Eta badut, halaber, erantzun bat; nire gustuko erantzuna: independentismoak eskaintza zabala behar du izan, ez hutsa; gutxi asko *ondare komun* gisa definituz goazenak hauspotu eta ondu beharko lituzke: askatasuna, elkartasuna, parekotasuna, ongizatea, euskara, natura... Alabaina, nolatan izan daiteke independentzia horien guztien ongarria?

Propioa, norena?

Independentzia ahalmen eta agentzia politikoen jabe den *subjektu* baten gauzatze-ariketa (etengabea) da; zehatzago esan: 'dependentziak' agerraraziz, salatuz eta ezabatuz zehazten da zein den *norbera* eta zein den *arrotza*. Bistan da, ekintza horietan *geurezkotzat* jotzen dugun agentzia, ahalmen eta eragintza sortzen da, eta efektu horiei deitu ahal diegu 'independentziaren subjektua'. Hortaz, independentzia diogunean, norena da?

Kontuan har dezagun euskaldunak eta euskal herritarrak ez direla inondik ere '*apatridak*', estatukideak dira, gehienak estatukide normalizatuak... Inor bada Euskal Herrian estatu gabe ilegalak dira, alegia, paperik gabekoak: estatu-lotura ofizial eta legalik gabe bizi behar duten haiek. Baina euskal biztanle gehienek estaturik eduki badaukate. Eta gainera, espainiar estatuan autonomiak direla eta, badugu 'euskal izaera ofizialik' ere (eta nafar herritartasuna...). Baina independentistek ez dituzte erakunde horiek 'estatu propiotzat' jotzen, estatu horiekiko 'lokatu' dute euren burua: ez dira *geurezkoak*. Nork lokatu du, zehatz-mehatz, bere burua? Nor dira estatu propio berria nahi dutenak? Erantzun bila euskal *historizitatera* jo behar dugu.

Euskal Herriaren ideia modernoak bi erro ditu: foru-era-kundeak eta euskara. Eta hala-holako arrakasta izan badu Euskal Herri honek, bi horiekiko identifikazioak eta atxikimenduak bizirik zirauten gunetan izan da. Haietatik kanpo, ez da inongo estatua sortzeko mugimendurik izan. Hala ere, uztarturik baina ez guztiz baturik joan dira bi ildo horiek. Euskal Herria gorpuztu, hezurtu eta mamitu nahi izan duten guztiek ez dute euskara erabateko lehentasunez eta erabateko ezinbestekotasunez hartu. EHri forma instituzionala eman nahi izan diotenak maiz ez dira euskararen eta, oro har esan dezadan, euskarazko bizi-munduaren alde aritu.

Euskal estatu independentearen proiektuak ez du zentzurik bi tradizio (antolakuntza politiko-juridikoa / hizkuntza) horietatik kanpo bizi direnentzat. Bestek ikusi ahal diote zentzurik autonomia gradu bati edo besteri edo zuzenean beregain izateari (UPNk ozenki defendatzen du ‘nafar beregaintasuna’), baina espainiar eta frantses izateari uztea... hori euskara eta antolamendu juridiko-politikoak batzen ziren lurraldeetan jaio zen. Geroago batuko ziren industriaren eta ezkerren eragina. Mapek ematen digute horren kontu zehatza: euskaldun kopurua eta independentisten kopurua korrelatiboak dira. Badirudi, beraz, euskaldunek sentitzen dutela euskal estatu baten beharra, agian sarriegi egin dutelako talka *izatez diren* estatuekin, eta horrela ere, kanpo-dependentsiak oso dituztelako agerian nozitzen, noraino eta euren burua estatutik kanpo eta haren aurka definitzeraino. Demagun, hipotesi moduan, pentsatzen dutela EH estatu bihurtuta euskarak aurrera egingo duela, hala lortuko duela normalaren identitatea. Zuzena al da ideia hori? EHko estatuak euskara salbatuko du?

Independentziaren *subjektua* independentzia ariketan artikulatzen da: nor ari da ariketa hartan?

Egin dezagun gogoeta Estatuaz: zer izan den eta zer den. Maiz Estatu *subjektutzat* hartzen dugu, normala da: Estatu

instituzioa den aldetik 'subjektu politiko eta juridikoa' baita. Eta mundu modernoa estatuka antolatu da, 'estatu forma' elkarrekin bizitzeko modu bakarra eta gorena izango balitz bezala. Baina modu horrez gain, bestela ere subjektutzat hartzen dugu estatua: Estatua errealitatea kreatu, gobernatu eta gidatzeko jende-antolamendu beregaina dela diogu eta ondorioz Subjektu beregainaren ezaugarriak egozten dizkiogu. Estatua errealitate-sortzailea dela ondo dakigu, areago, neurri handi batean estatuek sortu dute gure inguruko 'erreal', baina nola egin dute lan hura?

Estatuak, mugaz barrura nola kanpora, haren mendean bizi diren populazioen, jendeen, herrien, estamentuen, klaseen, hizkuntzen, eta abarren arteko 'borroka-guneak' dira

Subjektu moderno moldean ez, behintzat. Ez dago nolabait eskema hau: *subjektuaren gogoargia / bere oldezko helburua / ekintzaren planifikazioa / borondatezko ekimena / objektuaren erabilpena / helburuaren lorpena...* Horrez gain, Estatua jainkoa lakoa da, beregain, subirano, ahalguztidun..., jendeok ezin duguna Estatuak egin dezake. Estatuak izugarritzko ahalmen, baliabide, aliatuak, e.a., dituenek, eskura du zernahi helburu.

Burubide hartan, Estatuak subjektu dihardu gizartea deritzogun estatu-populazioa objektu delarik, baina halako irudia lekutan dugula uste dut. Nire irudiko, estatuak ez dira subjektuak, ez dira halako subjektuak. Estatuak mugaz barrura nola mugaz kanpora *borroka-guneak* dira, tentsio eta antagonismo-eremuak. Estatu mendean bizi diren populazioen, jendeen, herrien, estamentuen, klaseen, hizkuntzen, eta abarren arteko *guda-guneak* dira gehienbat, inoiz ere, negoziazio-guneak.

Agerikoa da gehienetan zeinek irabazi duen guda hori, eta nola maiz estatua monopolizatu duten taldeek eremua baketu eta borroka-gunetik beste guziak egotzi dituzten. Historia hori ondo ezaguna da. Baina, estatua ez da inoiz soil-soilik

estatu-aparatuen multzoa; hori izanik ere, Estatuaren baitan egikaritzen da 'gizarte zibila' deritzoguna eta zehazten nola-ko 'autonomia' duen estatu-aparatuetatik. Baina, ez aparatu horietan, ezta estatupeko populazioetan, Estatuak ez du 'subjektu bakarraren izaera'. Eta ez da estatu-aparatu kanpoko existitzen den Subjektu baten lanabesa. Hala aurkezten bada ere *Estatu Subiranoen Ideologia* nazionalistan.

Estatuan *subjektibitate* asko ari dira jokoan. Alegia, gune gisa ulertzen badugu, berehala konturatzen gara estatuan ez dagoela agentziadun entitate bakar bat eta jende asko ari dela bai aparatuetan, bai populazioetan, lehian eta borrokan, elkarren aurka edo aliantzak eginez, zein bere interes, helburu eta balioen alde.

Esan bezala, maiz borroka-eremua baketu eta aparatuak klase baten zerbitzuan jarri dira. Estatu totalitarioetan erraz sumatzen da hori, aparatuen presentzia noranahi zabaltzen baita, baina 'estatu liberaletan' ere subjektibitateak atomizatuz aise ezartzen da antagonismo gabeko 'gizarte zibila'. Eta kasu guztietan *herri* deritzogu subjektibitate dibertso eta subertsiboak artikulatzeari, mugiarazteari eta agentzia eraldatzailea sortzeari. *Herria* deritzogu Estatuz kanpo den bestetasun artikulatuari.

Herria ariketa bat da. Ez dago behin betiko eginda, ez dugu bere buruz eginda topatuko. Oroz gain, herria jende-ariketa baita: jendea arian, esan nahi baita. Ez da, hortaz, lehengo 'subjektu' moduko bat, baina eragintza badu, ordea: ez da 'agentziadun entitate kolektiboa', agentzia (edo eragintza) sortzen duen ariketa biltzaile edo kolektiboa baizik. Funtsezkoa da ariketa hartan subjektibitateak, hots, mendeko dibertsoak artikulatzea. Maiz metafora edo irudi baten bidez egin da lan hori; eta nik ez dakit gaur egun noraino behar dugun metaforarik, ordezkariarik, alegoriarik, pertsonifikaziorik eta, arestiko hitzak erabiliz, Adierazle Nagusirik. Nik bestelako jarrera defenditu dut: artikulazioan ez dadila dibertsitatea galdu eta, aldi berean, afektu zein zentzu pizgarriak erabil daitezela artikulazioa bizkortzeko.

Inguru honetan herria ernatu eta suspertu duen ariketarik izan bada, nik esango nuke Euskal Herriaren aldeko mugimendua izan dela. Hala ulertu ahal dugu *euskal subjektibitate*: estatuen kontrako ariketa zaildua. Izan ere, Estatuan lortzen eta galtzen dituzten posizio erlatiboan arabera antolatzen dira subjektibitateak ‘gizartean’, eta, itxura batean, estatuz kanpokoak izango balira bezala jokatzeko dute. Kasu askotan, gurean bezala, estatu aurreko eta estatuz kanpoko ezaugarrietan antolatutako singularitasunak dira, baina subjektibitate gisa estatuekiko hartu-eman gatazkatsuetan mamitu eta gauzatu direnak. Euskal Herria, hitz gutxitan, estatuen kontra biziraun duen ‘singularitasuna’ izan den neurrian bilakatu da subjektibitate, tentsio-ariketa hartatik eratorri da *euskal subjektibitate*. Independentziaren aldeko mugimendua izan da, ariketa horren ildo bat izaki ere, hoberen ikusarazi diguna zein zen jokoan ari zen bestetasuna eta zertan zen *dibertsoa*.

Bestalde, ez da batere arraroa Estatua beretzat zuten askok orain subiranotasuna berreskuratu behar dutela sentitzea eta aldarrikatzea. Estatua, diote, oligarken aparatu bihurtu da, goi-kastek edo interes-taldeek lapurtu diote herriari estatua. Dena den, herriak ez du estatua guztiz galdu (gizartea irabazi ez duen bezala). Guk herrikotzat jotzen ditugu udal-txeak edo aldundiak, estatukoak izaki. Baina posizio horiek ahulak dira estatu-aparatuen hierarkian eta hor dago koska: nola kendu gaineratik ‘dependentzia arrotzak’. Banaezinak dira, beraz, herria eta independentzia kontzeptuak, herria beti baita ariketa independentista eta subiranista: herria, berriro diot, (nagusien) menperatzearen kontra artikulatzen diren dibertsoen ariketa subertsiboa baita. Herria beti izaten da dependentzia edo dominazioei aurre egiten dien ariketa. Alde horretatik, herria beti izaten da *de facto* zer edo zertan independentea: gu, euskal independentistok, independentziaren lehendabiziko gradua lortuta dugu jadanik, gure bestetasunaren baieztapena baita gradu hori.

Euskal independentzia ere egikeran den ariketa da. Jakina, ez da hori bakarrik. Baina noizbehinka nabarmendu beharko

Estatuaren 'erabilera'
defendatzen dut,
eta ez inondik
inora estatuaren
beregaintasun
sinbolikoa; estatua
ez da helburu bat:
bitarteko bat da

genuke independentzia ez dela inoiz dena-ala-ezereko kontua, ez dela helduko egun bat non euskal estatu independentea lortuta gure xede guztiak beteko diren, estatu horretan ere, oraingoan bezala, posizio eta eragimen borrokak egongo

direla, estatupeko gizarte hartan ere antagonismoak egongo direla eta han ere herria artikulatu eta agentzia eraldatzailea sortu beharko dela, zertarako eta estatu horretan independentzia graduak lortzeko.

Horrenbestez, inoizko Estatu (independente)aren fetitxismoan guztiz erori gabe, Independentzia bestela pentsatu nahiko nuke, ariketa gisan: jendeek bere buruaz eta bere agentziaz jabetze aldera egiten duten ariketa. Edota Estatuaren menpe eta Estatuaren borroka-guneetan arian-arian egin beharreko borroka dela. Hartan zertzen da (euskal) herria deritzoguna. Egungo ariketa da, gaur-gaurkoa, eta ez da inoizko estatu independente batean bukatuko. Adi, euskal herriaren independentziaz ari naiz, euskal jendeen burujabetzeaz. Horregatik ere ez dago inongo kontraesanik gaurko estatu-erakundeetan, herrigintza kolektiboan edota eguneroko bizitzan egiten diren independentzia-ahaleginen artean, guztietan gauzatzen ari baikara euskal besetasunaren burujabetza.

Ikuspegi horretatik esan daiteke estatua herriaren tresna bilakatu daitekeela, alegia, dibertsoen artikulazioa piztu duten helburuak lortzeko abagunea edo aukera izan daitekeela. Ez berezko subjektua, ezta tresna ahalguztiduna: baliatu eta lortu beharreko *aukera* baizik. Ikusten denez, estatuaren *erabilera* defendatzen dut, eta ez inondik inora estatuaren beregaintasun sinbolikoa; estatua ez da helburu bat: bitarteko bat da, jendeen askatasuna gauzatzeko aukera eremu bat. Hala izan dadin estatua 'konkistatu' behar da, oraingoan ezinezkoa

bada, beste estatu propioa sortuz. Beste joko-eremu bat lortu beharko dugu mendeko dibertsook, onuragarriagoa izango zaigun beste bat.

Errepublika da herri ariketaren efektua

Labur bildurik, honako tesi hauek aurkeztu nahi izan ditut:

- independentziaren helburua eta ondorioa jendeen burujabetza da;
- estatu independentea, helburua barik, dibertso subertsiboen helburuek aukerarik izan dezaten baliabide edo abagunea da;
- horregatik, independentismo estatuzalea proiektu gisa aurkeztu behar da: edukiz beteta, dibertso subertsiboak artikulatuz;
- totalizazioari uko egin behar diogu, alegia, kausa baten mendera edo zerbitzura gainerako guztiak ezarri gabe elkar sustengatu dezaten elkarketak eta elkar kutsatzea bultzatu behar dira;
- zinezko independentzia jendearena da, ez estatuarena (estatu oligarkiarena edo merkatuarena izan baitaiteke), eta hemen estatu independentea aldarrikatuz bere buruaz jabetzen ari den jendea gehienbat euskaldunak dira;
- euskal (herriaren) independentzia da, beraz, estatu independentearen aldarrikapenaren xedea;
- hori lortze aldera zabaltzen den proiektuan artikulatu behar dira gainerako dibertsitate subordinatuak eta beti jendeak burujabetzeko ariketan, *herri* deitu dudana hartan.
- hala ere, independentzia burujabetzeko ariketa denez, herri jardunez bere buruaz jabetu eta bere burua ahalduntzeko ariketa denez, ez da etorriko estatu baten eskutik (hura aukera onuragarria izaki ere); etengabeko jarduna izan behar du;
- jardun horrek eszenatoki batzuk ditu: estatu-erakundeak, gizarte zibileko jardunak eta lekuak, herrigintza zabala, eguneroko bizi-praktikak, e.a; horietan guztietan euskal

independentzia ez da soilik estatu propio baten eskaera, euskal herritar burujabe jardutea da;

- euskal subiranistek *herri burujabetza* defenditzen duenari sinestarazi beharko diote edonoren burujabetza oraingo estatuetan bainoago euskal independentzian bermatzen dela.

Azkenik. Herria ariketa dela esan dut, dibertso izatera kondenatuta daudenen ariketa subertsiboa: mendekoaren burujabetzea baita. Euskal independentzia ariketa horretan kokatu behar dugu, funtsean, mendeko dibertsoei artikulazio eremua eskaintzen dielako eta horrela burujabetza lortu, sustatu eta praktikatzeko aukera eman. Nik horri *euskal errepublika* deitu nahi diot: ondare komunak burujabe sortzeko eta gobernatzeko euskal ekintzaileek egiten duten gonbita, eskaintzen duten espazio, sare eta jardunbide publikoa. Jardunez ere, horretan dihardute euskal ekintzaileek. Ez da itxaron behar *euskal errepublika* sortzeko inoizko estatu independentearen aldarrikapen egunera: errepublika hori etengabe goaz praktikatu, hartan jardunez, egunez egun. 🍷

Amaiur berri baten alde: emakumeena, prekarioena, euskaldunena

Idurre Eskisabel

*Kazetaria, UPV/EHUko Kazetaritza II Saileko irakaslea
eta Jakin Taldeko kidea*

Banderak hegoaldeko ertzetan, eta galderak

2013ko uztailaren amaiera, Espainiako hegoaldeko ertzerera eraman gaituzte oporrek. Almeriako Cabo de Gata errentagarritasunari begira egindako aukera da: eguzki segurantziaren nahia, ez baitaukagu astirik denbora leihotik zerura begira *bihar akaso*-ka xahutzeko. Era berean, turismo gidek promestu digute natura exotiko eta basa, itsaso gardena, eta bakardade neurtua –jendetza aglomeratuaren arrunkeriatik urruti, baina trepeta ziber-netikoentzako seinale estaldura onarekin–. Halaxe iritsi gara Europa *zibilizatzaileko* azken muturretakoa den bazter honetara, eta, egia, laketzeko motiboak aurkitu ditugu hamaika.

Baina atsedean lekura iritsi aurretik ikusi ditugu beste gauza batzuk: berotegizko itsaso bat, esaterako. Eta pasaeran aipatu dugu jasangaitza izango dela hor lan egitea, kanpoko bero errea infernua izango dela barruan. Baita ere ikusi dugu herri bat, eta iruditu zaigu beste mundualdi batekoa: lau horma soilezko etxe pobreak, ate-leihoak zabalik, eta jende saldoa barruetan zein kanpoan. Adibidez, andre bat etxe atarian

palankanaren laguntzaz bizpahiru urteko umea garbitzen. Nolanahi ere, ez dute erdi klasearen kolorerik, *moroak* baitira: asko Magrebetik iritsiak, beltzak, ijitoak; eta pobreak, oro har.

Mendi bizkar batek urrundu gaitu berotegietatik eta herri-tik. Gure laket lekua oso bestelakoa da: zuria, txikia, polita, jostailuzkoa bezala. Eta telesailetakoa bezalako hondartza geure oinetara. Berotegiei, herriari, bizkarra emanaz paratu gara.

Baina, halako batean, olatuekin jolasean, beste neskato baten lagun egin da alaba. Paqui ei dauka izena, eta urteak zortzi. Ez da gu bezala oporretara etorri, baizik eta han ingurukoa da, 40 bat kilometro barnealdera dagoen herri batekoa. Aita itsasertzetik hurbileko berotegi batzuetan ei dabil lanean azken boladan, eta ama, anaia eta bera hondartzan lagatzen ditu, iluntzean bila etortzen den arte. Uretako betaurrekoak dauzka eskuetan Paquik, ez ditu askatzen, altxorra bezala zaintzen ditu: komunioagatik jasotako oparia omen. Kontatu digu albistea izan berri dutela etxean: 17 urteko lehengusinak haurdun dagoela jakinarazi omen zuen atzo, eta ezkondu egingo dela. Izebaren ardura omen da nola sartuko dituzten beste bi etxean, nola emango dieten jaten. Gustura hartu du eskaini diogun melokotoia. Ez duela inoiz dastatu azaldu digu, garestiak direla, eurek udareak jaten dituztela beti.

Amari gurekin dagoela esatera doa. Metalezko lau hesolarekin eta Espainiako bandera erraldoi batekin osatuta daukate hondartzako aterpea. Irribarrez baina lotsati agurtu nau Paquiren amak, *rojigualda*-ren gerizpetik.

Eta ezinbestean, neure buruari galdetu diot zergatik eta zertatik babesten dituen bandera horrek, noiz eta *marcaespaña* erabat gutxietsita dagoen 2013 honetan, zinegile progreenak ere bere aldeko propaganda egiten jartzeraino. Neure kautan, galdetu dut, halaber, prekarietatera zigortutakoei bandera horrek zer ematen dien bizitza murriztearen ordainetan. Eta ezinbestean, neure buruari galdetu diot zeren babes, zeren ordain, nahi dudan nik neure bandera.

Epika kirrinka, eta galderak

2014ko maiatza. Eguneko zereginak amaitu, sofán jarri, eta gustura hartu dut esku artean *Argia* aldizkaria. Atseginez hasi naiz Reyes Ilintxetak Xabier Morras margolariari egingdako elkarrizketa irakurtzen. Interesez ez ezik, pozik leitu dut Amaiurko batailaren gaineko tamaina handiko margolan bat duela egun proiektu nagusi; interesez eta pozik irakurri dut, hain justu, uste dudalako Amaiurko erresistentziaren irakurketa historizismotik aske, malgu eta irekia material ederra izan daitekeela Euskal Herri beregain baten aldeko iruditeria elikatzeke, galtzaile izatearen bazter begiradatik herri ikuspegi eraldatzailea eraikitzeke.

Morrasek, margolanak bulkada politiko eta eraldatzailea duela aitortuz, honelaxe azaldu ditu egitasmoaren zertzelada nagusiak:

Oso lan berezia da, pasioz egiten ari naizena. Nire omenaldi pertsonala da Amaiurko defendatzaileei. [...] Zerbait historikoa behar zuen motibo askorengatik. Batetik, kulturalki noraino gauden kolonizatuak ikustea zaila egiten zaigulako. [...] Margolari bezala sentitu nuen ene ekarpena egin behar nuela eta Amaiurko bataila hautatu nuen. [...] Amaiur, beraz. Ongi, baina zer? Hiruzpalau urte eman nituen hausnarrean zein eszena nahi nuen islatu erabaki arte. Bataila bera ez, ez delako argi ikusten nor den nor, galdu ondorengo unea umiliagarria zen... Azkenean erabaki nuen saiatu behar nuela harrapatzen gure soldaduek etsaia begien bistan ikusi zuten unea. Urrutira begira ari dira, oso kezkatuta. Hori erabaki ondoren, otu zitzaidan gure defendatzaileei aurpegi ezagunak, izen-abizenak jartzea, nire bizitzan oso garrantzitsuak izan diren pertsonen omenaldia egiteko: Jimeno Jurio, Pablo Antoñana, Jorge Oteiza... eta hil diren nire beste lagun asko. Oso lan zaila da emozio horiek guztiak aurpegietan erakustea espanturik gabe. Amak negarrez eta oihuka beren semeak hil behar dituztelako erakustea ez da gure estiloa. Gu nafarrak gara.

Zerbaitek kirrinka egin dit barruan.

Urtearen hondarrean, abenduan, iritsi zaizkit Morrassen margolanari buruzko xehetasun zehatzagoak, Ignazio Aiestaran pentsalari eta idazlearen *Komunzki* blogaren bidez,

Iruñean jarritako erakusketan ikusi baitu egitasmoaren orain arteko emaitza, ia bost metro luzeko irudia: lehen lerroan Morrasede iragarritako gizon ilustreak –bai, gizonak denak–, hala nola, Antoñana, Jimeno Jurio, Oteiza, Basterretxea, Urzainki edota bere autoerreturatu. Bigarren planoan, berriz, gizon gazteak. Eta, azkenik, atzerago ez ezik, babesean, emakumezkoak.

Barne kirrinka kanpotik aditzeko modukoa izan da oraingo honetan.

Eta galderak etorri zaizkit ezinbestean: nola liteke identitatearen, historiaren eta instituzio zein jendarte antolaketaren ikuspegi nagusiari beste bat kontrajartzeko asmoa duen lan batek, Euskal Herriaren gaineko iruditeria politiko eraldatzaile bat sortzeko gogoia, emakumeak azken zokora eta pasibitatera zigortzea? Edo, Aiestaranek zorrozki kritikatu duen bezala, prekarioak eta migranteak ahanzteak? Eta, beste alde batetik, garaipen bokazioko epika militar kutsukoan oinarritzea, herri sen berritzailea erresistentzia hutsean eta galtzaileen begiradak duen indar eraldatzailean zutoindu beharrean?

Zer garen, euskara, eta galderak

Joan den martxoan Korrikak zabalduzako euforia kolektiboaren parte izan nintzen neu ere: pozez eta hunkiduraz egin nuen lasterka, pozez eta hunkiduraz segitu nituen Urepeletik Bilborainoko urratsak. Milaka lagunak indarra neure sentitu nuen, eta indar hori *bagara* baieztatuz mamitu zen nire baitan. Halaber, *bagara nor* aldarrikatu zuen Bilbon amaiera ekitaldian Lorea Agirre Jakin honetako zuzendariak, Euskal Herria eskuz esku ibili zuen mezu mamitsuaren egileak: «Auzia ez da izan ala ez izan. Nolako edo halako izan. Kontua ez da hori. Nor galdetzeari utzi eta nor izatera jauzi egitea da kontua. Nor gara? Bagara nor».

Bide beretik azaldu zuen Jurgi Ekiza Willis Drummond taldeko kantariak *Facebook*-en Korrikan Bilboko Zabalburu plazara iristean sentitu zuen zirrara:

Hitzik ezin da atxeman Korrika zer den zehazteko. Hori da Korrika azken finean, energia trukaketa paregabe bat, eta batez ere, zerbaiten parte eta egile girela sentimendu indartsu eta eder hori... 'Zerbait' hori zer da? Lasterraldi bat? Ekintza amankomun bat? Lurralde bat? Herri bat? Eta zein herri? Euskal Herria? Euskararen Herria? Bah... Zerbait hori zehazten ez dakit nik, eta ez zait hainbeste inporta... Ez gira beti behartuak gauzak zehaztera, gauza hauetaz gozatzeko... Dakidana da, bai, zerbait girela...

Eta, adibide bakun horiez gaindi, esango nuke sentimendu orokortua izan zela Korrikan parte hartu zuten milaka lagun artean *bagara* hori bizitzea. Are, *bagara* hori, nola edo hala, euskararen gainean altxatzen dela sentitzea.

Besterik da, ordea, garen horri izenik jartzea. Balirudike, *bagara* sentipen zabal, euforitzailer eta barne betetzailer hustu egiten zaigula izen eta kontzeptu zehatzetan zedarritzen dugunean; are, azkura sortzailer eta nekoso bihurtzen zaigula.

Ezinbestean, galderak piztu zaizkit nire kautan: garai ez oso urrunetan halako jarioz aipatzen genituen herri, aberri edota nazio zergatik zaizkigun orain hain esangaitz; zergatik hartzen diegun zaharminduaren antza, zergatik eransten zaigun lizun gustua eztarri eta mingainean esaten ditugunean. Zergatik eta zeren arabera sentitzen dugun bagarela, eta zergatik zaigun hain ezinezkoa garen horri izena jartzea.

Esango nuke sentimendu orokortua izan zela Korrikan parte hartu zuten milaka lagun artean 'bagara' hori bizitzea. Are, 'bagara' hori, nola edo hala, euskararen gainean altxatzen dela sentitzea

Beste bide bat (ez erdibidea)

Ziur aski, pasadizoaren balioa baino ez dute ekarri ditudan hiru bizipenek, baina uste dut haietatik sortutako galderak gure jendarteko parte batean –nolabait mugarrizearren, era

batera edo bestera euskal herritar geuregain izan nahi dugunon artean– azkenaldian bolo-bolo dabiltzala. Izan ere, ETArek borroka armatuak guztia baldintzatu duen mende Erdiko zikloaren ondoren, galdera zaharrak etorri zaizkigu forma eta indar berriz. Funtsean, zer den *bagara* horren *gu*-a, zerk egiten gaituen *gu*, komunitate; zer den herri identitatea¹, zertarako nahi dugun *gu* edota herri izan. Eta munduaren joana ikusita, orain arteko erantzunak ez ote zaizkigun maiztu ez ezik erabat zaharkitu –eta erantzunekin batera, jakina, haiek bermatzen dituen iruditeria–. Are, orain arteko oinarritzko kontzeptu eta hitzek, hala nola, identitate, nazio edo herrik –eta gurean haien argamasa dugun euskarak–, ez ote duten ustelaren kiratsa hartu batik bat geuregaintasunerako bidera ezinbesteko ditugun sektoreak batzeko. Lurpean ernatzeko zain izan diren galdera horiek denak etorri zaizkigu orain, neke eta minak sendatzeko garaia ez ezik, geure burua itauntzeko eta pentsatzeko aroa baita –are, ez ote den hori osatzearen parte.

Eta ari gara, dudarik gabe, ariketa egiten. Baina irudipena dut gure ohiko joera binario eta banderizo autosuntsizailetan tratatuta ez ote diren ari galdera horien aurrean muturreko jarrera elkarren baztertzailak nagusitzen. Hau da, laburbilduz, muturretako bat osatuko luke kontzeptualki herri identitateak hizkuntza, kultura, ohitura, lurralde historia eta etnizitate parametro finko, itxi eta aldagaitzetan ulertzen dituen ikuspegiak; hots, izate kolektibo, *gu*-aren marrazketa esentzialista eta naturalizatu bat dakarrenak. Politikoki, *gu*-a osatuko luketen eta *haiek* osatuko luketen pertsona zehatzen artean muga argi eta iragangaitza ezarriko luke, kolonizatu eta kolonizatzaileen² artean, egun aplikatzeko ia ezinezkoak lirartekeen irizpideen arabera, eta elkarren aurkako konfrontazioan.

Beste aldean, berriz, identitateak, eta, zehazki, herri identitatea, zer berez ia atzemanekin, unean uneko, aldagarri eta eraiki ez ezik, norbanako bakoitzaren arabera konplexu eta errepikaezinak direlako ikuspegia daukagu. Funtsean,

hizkuntza, kultura, ohitura, lurralde historia eta etnizitatearen ohiko osagaiez hustuko luke. *Gu*-a erabat ireki, malgu eta aldagarri marraztuko litzateke, finean. Politikoki, ostera, indibiduo libreen borondatearen arabera osatzen da *gu*-a, bakoitzaren askatasun eta interesetan zutoinduta. Arazoa da, batetik, ikuspegi horrek norbanako zehatza hasi eta buka guztiz beregaina dela ulertzera garamatzala, hots, bakoitza bere interes eta nahi huts balitz bezala, askatasuna eta borondatea modu aratz eta berezkoan existituko balira legez. Bestetik, azken burura eramanda, *gu*-a bera, subjektu zehatzaren marrazketa, ukatzen du.

Horrenbestez, bietatik edango lukeen ikuspegi eta diskurtsoa harilkatzea da proposamena. Ez nuke esango erdibidekoa –lehen jarreran kontzeptualki eta politikoki elementu baliogabe askotxo pilatzen baitzaizkit–, baina bai elkarren osagarria eta, bereziki, ez elkarren baztertzaila.

Horretarako, ekarri ditudan hiru bizipenek sorrarazitako galderak erantzuten saiatuko naiz, atzekoz aurrera.

Euskara, feminismoak berritu dezakeen *asabiya*

Beraz, has gaitezen Korrikak hainbeste jenderi sentiarazitako *bagara* hori izen eta eduki zehatzetara eramateko zailtasunetatik; alegia, ikusten herri, nazio eta zer esanik ez aberri zergatik zaizkigun hain zamatsu, eta, era berean, aztertzen zeren arabera sentitzen dugun bagarela.

Ildo horretatik, ziurrenera, ezintasun horrek badu ETaren estrategia militarren gainean ardaztutako aro politikoak izen horiei erantsitako gehiegikeria eta herstura kiratsarekin zerikusirik. Baina horrez gaindi, arestian iradoki bezala, hainbeste kosmopolitismo, postmodernitate, hipermmodernitate eta hipsterismok erraietaraino itsatsi digute askatasuna ez ezik guztia ere norberaren baitan hasi eta amaitzen delakoaren lilura. Norbanakoa bakoitzaren interes eta borondate huts delako sineskeria, hain justu, nahimena, erabakimena eta askatasuna ezerk baldintzatu gabeko zer aratz eta berezkoak

balira legez. Isuria garela diogu, malgu eta irristakor, likido, etengabe nahi dugun identitatera egokitzeko gai. Ezin ezer-tan gatzatu, ordea. Eta gorputzaldi likido horretan nazioa eta herria –zer esanik ez aberria– berun zaizkigu, zama ito-garriko lasta.

Baina, hala eta guztiz, Korrikan sentitu dugu bagarela. Ezin izenik jarri, ordea. Apenas mamirik ere. Eta aspalditik daki-gu izena eta izana elkarren aurki eta ifrentzu direla. Gatzatu gabe ez dagoela izaterik.

Joseba Sarrionandiak Abderraman Ibn Khaldun XIV. mendeko pentsalari islamiarra dakar *Moroak gara behelaino ar-tean?*-era *bagara* horren gatzatzea esplikatzen. Zehazki, hark Magrebeko tribu autarkikoak erakundetze trinkoagoetara, estatalizatzen bultzatu zituen prozesua azaltzeko baliatutako *asabiya* kontzeptua, zeina denboran zehar itzulia izan den *borroka gogo*, *ahaidago*, *nazio kontzientzia* edo «organismo politiko eta sozialen protoplasma psikiko» gisa. Hots, *bagara*-ren mamia. Ibn Khaldunek zehaztu zuen Magrebeko tribu-*en asabiya* erlijioa zela, hor zegoela funtsezko protoplasma.

Eta guk, Korrikaren harira *bagara* sentitu dugunok, badugu geure *asabiya*-ren arrastoa: euskara da, eta euskararen izate eta bilakatzearen inguruan txirikordatu dugun ondare asko-

tariko eta kontraesankor guztia.

Euskararen diskurtsoa
ere zaharkitua geratu
zaigu, esentzietara,
tautologietara eta
norbanako misiodunen
ikuspegi moderno eta
gainditura kateatuta

Ez da, gainera, ezer berria. Aitzitik, abertzaletasunaren parte batek bederen identitatearen funtsa euskararen gainean zutointzeko hautua egin du historikoki: euskararen herri garela aldarrikatu du, hizkuntzaren jabe denari eman dio euskaldun izaera, identitatea. Baina euskararen gaineko diskurtsoa ere zaharkitua geratu

zaigu, esentzietara, tautologietara eta norbanako misiodunaren ikuspegi moderno eta gainditura kateatuta: saihestu dugu ikustea gure *asabiya* hizkuntzaren gainean eraikitzea aukera

bat dela, ez ezinbesteko berezko bat. Era berean, «Euskara zertarako? Euskaldunak garelako»-ren gisako tautologiak darabiltzagu erantzun gisa dena zalantzarri den garaio-tan. Halaber, Europako hizkuntzarik zaharrena salbatzeko misioaren zama erantsi diogu euskaldun izateari.

Horren ordez, demokraziaren, justizia sozialaren eta eskubideen terminoetara ekarri behar da euskararen gaineko diskurtsoa; pribilegio eta botere harremanen araberako problematizaziora. Ulertarazi behar da hegemonia global menperatzaileetatik aldentzeko bidea zaigula, dibertsitatea eta bestelakotasuna lantzekoa, askatasuna eduki sendoagoz hornitzekoa, justizian eta demokrazian sakontzekoa.

Eta, bide horretan, feminismoaren gorputz teorikoa zein praktika bidelagun aproposak ditu euskalgintzak, hain zuzen ere, feminismoaren ekarpen handienetako bat baita itxuraz identitateari –emakume izateari– huts-hutsean lotutako auzi bat eskubide, justizia eta demokrazia parametroetara, hau da, politika orokorreko kuestio, unibertsal, izatera eramatea. Eta, aldi berean, jakina, identitate hori esentzia eta naturalizazioetatik askatzea. Partikularra unibertsalizatzea, unibertsala bera hankaz gora jarri arte.

Amaiur berregiten

Euskararen gaineko diskurtsoa feminismoarekin lotzeak artikulu honetan planteatutako bigarren galdera sortara garamatza nolabait; hots, Xabier Morras Amaiurko batailari buruz egiten ari den margolanak sorrarazitakora. Izan ere, autoreak berak aitortu duenez, bulkada politikoa duen obra da Amaiurri buruzko hori, identitatearen, historiaren eta instituzio zein jendarte antolaketaren ikuspegi nagusiari beste bat kontrajartzeko asmoa baitu, Euskal Herriaren gaineko iruditeria politiko eraldatzaile bat sortzeko gogoia. Baina ustez aldaketarako tresna den horrek gizon zuri, handi eta heroikoen iruditeria proposatzen digu, emakumeak azken lerrora ostenduz, migranteak ezkutatuz. Azken batean,

iruditeriak herri identitatearekin eta tresna eraldatzaile izatearekin duen loturaz galdekatzen gaitu. Uste dut euskal abertzaletasunak sexu/genero sistemari buruz egin dituen irudikapenetan arakatzea dela erantzuteko bide egoki bat.

Ildo horretatik, beste galdera bat planteatzen zaigu aurren-aurrena: hain zuzen ere, euskal abertzaletasunak sortu ote duen sexu/genero irudikapen zein diskurtso berezitu eta propiorik. Erantzuna da baietz, eta, gainera, ezinbestean egin behar izan duela. Izan ere, *gu*-a sortzea diferentziazio ariketa da, herri izatea erlazionala, beti bestearekin tentsioan.

Alde horretatik, interesgarria da oso Miren Llona historialariaren ekarpena³:

Klaseen arteko muga eta hesi modernoek eraikuntzan genero eduki estigmatizatzaileen erabilera ohikoa izan da. Sailkapen gutxiestailen horien kontrako erresistentzia planteamendu defentsiboetatik egin da, eta horretarako bestelako genero erreferente sinbolikoak eratzea izan da zutoin nagusia. Klase nortasunaren eta genero nortasunaren azterketa bi errealitate banaezin dira beraz.

Laburbilduz, Llonaren arabera, sexu/genero identitate eta iruditeriak eratzerakoan, ezinbesteko baldintzagarria da klasea, eta nik erantsiko nuke hein bereko baldintzagarria dela herri identitatea. Izan ere, sexu/genero sistema burgesiarentzat proletargoa gutxiesteko eta menperatzeko tresna pribilegiatua izan den bezalaxe izan da estatu handientzat beren azpiko herri izateak gaitzesteko. Azken batean, sexu/genero irizpideen arabera gizontasun eta emakumetasun egokiak definitzen dira, pertsona, herritar egokiak. Zehatzago, emakumetasun egokia erabiltzen da gizontasun egokia zehazteko, eta, alderantziz, emakumetasun txarra gizontasuna gaitzetsi eta gutxiesteko. Esaterako, Meatzaldeko emakume langileak bere ideal gisa marraztutako andrazkotasunaren ifrentzuan jarriko ditu burgesiak: basa eta, batik bat, sexu promiskuitateari lotuta, hartara gizon langileak ohorerik eta duintasunik gabeko gisa aurkezteko.

Hain justu, Frantziako eta Espainiako estatu aparatuek euskal emakumeei buruz eman eta ematen duten irudiari behako

bat ematea aski da eskema bertsua errepikatzen dela ikusteko, Pierre de Lancre-tik hasi eta *Ocho apellidos vascos* film ustez xalo eta hiperarrakastatsuraino. Funtsean, mendeetako konstante batean, arauzkotik kanpoko emakumetasuna egozten diete Euskal Herriko andrazkoei: sorginak izatea, bortitzak, itsusiak, feminitaterik gabeak, sexuan grinatsuak, edo, kontrara, batere grinarik gabeak. Nolanahi ere, alde batera, edo bestera, beti neurritz kanpo, ziur aski, maskulinitate hegemonikoak jarritako neurria betetzea baita emakumetasun hegemonikoaren funtsa. Pentsa dezagun zenbat txiste egiten diren abertzale gisa estereotipatutako emakumezkoen flekillo, bekoki beltz, ustezko jarrera zaunkariaren kontura; zenbat algara hedabide handienetatik *nekane* ustez itsusiei begira. Finean, emakumetasun estigmatizatu bat sortzea da jokoa, hartara gizonak, partikular horretako unibertsa, gutxiesteko.

Eta, besteak beste, horren aurrean, sexu/genero irudikapen propioak sortzea beste aukerarik ez du izan euskal abertzaletasunak. Bide bat baino gehiago urratu ditu, zenbaitzutan kontraesankorrak iduri lezaketenak, elkarrekin gurutzatuz. Batetik, estigma ezabatzeko saioa izan da hautuetako bat, eta horretarako, begirada menperatzaileak ezarritako emakumetasun egokiaren bertuteak esajeratzea izan da estrategia: inor baino garbiagoa, aratzagoa, ama besteei emanagoa irudikatzea euskal emakumea. Gure literaturan, esaterako, erraz topa ditzakegu horren arrastoak. Baina, era berean, arestian aipatutako diferentziazio ariketa horretan balioetsi egin ditu estigmaren arloetako batzuk, matriarkatuaren mitoan oinarrituta. Hala, abertzaletasunaren irudikapenean egokitasunaren barruan sartzen da emakume sendoa, indartsua, eta goitik etorritako eredu hegemonikoetan baino erabakimen handiagoa duena –jakina, abertzaletasunak egin duen irudikapena ez da finkoa, ez denboran, ez abertzaletasunaren baitako sektoreetan, baina esango nuke ama besteei emana eta emakume indartsua irauten duten konstanteak direla.

Orain, galdera da hor marraztutako imajinarioan ba ote dagoen elementurik iruditeria eraldatzaile baterako eta zeintzuk

izan daitezkeen. Uste dut emakume sendo, *bortitz*, *itsusi* eta ez-femeninoaren irudikapenak badituela osagaiak jendarte berdinzaleago baten imajinarioa elikatzeko, azken batean,

Iruditeria eraldatzaile
baterako zantzuak
ematen dizkigu
sexu/generoan
eratutako horrek, eta,
batik bat, erakusten
iruditeria praktika
eraldatzaileetarako
giltza dela

emakume erabakitzaile eta beregainen marrazkia baita. Adibide bat jartzearen, interesgarria iruditzen zait arakatzea benetan zer esaten ari garen Euskal Herrian larrutan ez dela egiten dioen topikoa errepikatzen dugunean: sakoneko esanahia ez ote den euskal emakumeek ez dutela nola edo hala baimentzen larrua jo diezaieten. Edo beste era batera esanda, beren sexualitate eta gorputzaren gaineko erabakimen handia dutela. Eta, noski, hori

berdintasunerako bidean aldeko osagaia da. Dena den, iruditeria horrek badu maskulinoaren goraipamenean eta feminitatearen gutxiespenean erortzeko arriskua. Ziur aski, konpentsatzeko, maskulinitate femeninoago baten proposamenak landu beharko lirateke. Iruditeriaren arloan, esaterako, Kukai dantza talde bikainak ekarritako mutil dantzari gonadunak interesgarriak zaizkit oso.

Baina, funtsean, iruditeria eraldatzaile baterako zantzuak ematen dizkigu sexu/generoan eratutako horrek, eta, batik bat, erakusten iruditeria badela praktika eraldatzaileetarako giltza.

Emakumeena, prekarioena, euskaldunena

Horrenbestez, aurreneko pasadizoko galderetara iritsi gara: hots, zer ematen dien estatu bateko banderak, hain justu, prekarietate eta pobrezia amilarazi dituen herritar horiei. Eta, era berean, zer nahiko nukeen nik neureak ematea.

Iruditzen zait galdera horietatik lehenak herri identitatearen ohiko osagaiak erauzi eta abantaila sozioekonomiko

hutsez betetzearen aldekoak jartzen dituela kuestioan, adierazten baitu *gutasunak* baduela indarririk, ematen duela baliorik, bizi baldintzetan oinarritutakoetatik gaindi –Eskoziako eta Kataluniako adibideak jartzen dira abantaila sozioekonomikoak piztutako prozesu independentisten adibide, baina uste dut ahaztu egiten dela bietan, bakoitzean bere osagaiekin, herri identitatea oso sendoa dela, une batean edo bestean har dezaketen egitura politikotik landa.

Eta, bai, egia da, *gutasunak* ematen dituen beste balio horiek oso arriskutsuak izan daitezkeela; are eta arriskutsuago testuinguru sozioekonomiko zailtan: bestearen aurka gotortzeko bide, etsaia kanpotik datorkeen pareko ahulean atzemateko tresna; nazionalismo itsu eta faxismoen elikagai. Horregatik da hain garrantzitsua herri identitatea bestelako osagaiez betetzea, gure bandera nolakoa nahi dugun marraztea. Demokrazian, eskubideetan eta justizian sakontzea da bidea, azken batean, gure iruditerian herri erresistentziaren ikur den Amaiur emakumez (eta ez-gizonez), prekarioz eta euskaldunez betetzea. 🍷

Oharrak

1. Herri eta herri identitate erabiliko ditut nazio eta nazio identitate barik, Koldo Diaz Bizkarguenagak *Faceguk: euskal identitatearen eraikuntza soziala etnografia digitaletik aztertuta* doktore tesian argudiatzen duen ildo beretik: hain zuzen, nazioak izan dezakeen egitate politiko instituzionala gainditzeko. Halaber, doktore tesi berean ematen den definizioaren arabera ikusten dut herri identitatearen kontzeptua, hau da, kideei zentzua eman eta beren kideei habitus moduan gorpuztutako praktika eta diskurtso sozial jakin batzuk izatea ahalbidetzen dien signifikazio sistema gisa.
2. Bat nator herri kolonizatua garelako diotenekin, prozesu historiko luze eta korapilatsu batean. Ez, ordea, egungo praktika politikora norbanako kolonizatu eta norbanako kolonizatzaile banaketa egingaitza ekarri nahi dutenekin.
3. ‘La construcción de la identidad de la clase obrera en el País Vasco. Género y respetabilidad de clase, dos realidades inseparables’, *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía* 35, 2006, 287-300.

EGUNEN GURPILEAN

123 Kultura

Curriculumaren polisemia
Herrietako curriculumak
Arabar Errioxan mugaren mugak
Nagore Amondarain

129 Ekonomia

Doaneko diruaren jaia amaitzera doa
Greziako jendearen borroka
Hauteskundeen emaitzak
Azeria oilategiaren eskolan
Telebistari so
Henrike Galarza

135 Soziolinguistika

Ekina
Outing
Management
Txerra Rodriguez

141 Telepolis

Ikus-entzunezko berriak
Ana eta Mia
Inoiz baino autoago
Gorka Julio



Kultura

Nagore Amondarain

Curriculumaren polisemia

Berriz etorri dira albistegien lehen lerrora eskoletako curriculumak edo, hobeto esanda, irakaskuntzaz arduratzen diren guneen gainetiko ebaluazio frogak. Gainetiko diodanean, hezkuntza legearen erreformen albo-kateez ari naiz, LOMCeren aplikazioaren garapenaz, alegia. Eskolak kanpo eta barne baldintzak landu behar ditu hezkuntza komunitate sendoaren mesedetan, kanpo eta barne horiei gainetik datozkion inposaketak jasaten ibili behar ordez. Ebaluazio froga horri bizkarra ematearekin batera, hezkuntza sistema berri bati aurpegia jarri beharko zaio.

Ebaluazio froga horren inguruan sortu den eztabaida erabili nahi dut aitzakia edo sarrera moduan, esateko: eskola ez dela betidanik existitu izan den zerbait, gizarteak eratu duen erakundea dela. Helmuga sozial eta norbanakoen garapena du bere baitan; beraz, esan daiteke eskola giza-sistema kultural bat dela. Normalak dira gizarteak hezkuntza komunitateko kolektibo ezberdinen baitan ematen dituen erantzunak zein ukazioak. Oraingoan, LOMCeren aurkakoak dira erantzunak edo-eta Espainiako gobernuak diseinatutako ebaluazio sistemaren aurkakoak, baina hurbilagoko administrazioen jarreraren aurkakoak ere ari dira izaten salaketa asko, dela EAE, Nafarroa, Baionako suprefeta edo Paris, Paueko prefeta.

Esaten da gizarte batek zenbat eta arazo soziopolitiko gutxiago izan (dela kulturala, linguistikoa...) orduan eta eskola eredu orekatuagoa izango duela. Ez dakit ba nola ekarri hori gurera. Euskal Curriculumaren zabalkundean ardatz diren ikasmaterialak ikustea besterik ez dago. Euskarri horien aniztasuna itzela da, eta, eskola zentro batek baten aldeko hautua

egiten duenean, gainerako instituzioa kontu eske etorriko zaio txikieria hau edo beste aitzakia hartuta, debekua ezartzeko (Nafarroako testuliburuaren gaia, kasu). Curriculumak hezkuntzaren xedeak eta xede horiek burutzeko estrategia pedagogikoak biltzen ditu, preskripzio, iradokizun eta orientabide multzo bat da. Gaitasunen eta ezagutzen transmisiorako markoak behar dute izan curriculumek, eta ezagutza batzuk unibertsalak diren neurrian, beste zenbait tokian tokikoak dira, lurraldearen arabera, alegia. 1925ean sortu zen euskarazko aurreneko eskola-liburua, gaitasun eta ezagutzen transmisiorako orientabiderik ez zen garaian sortu zuen Ixaka Lopez-Mendizabalek *Xabiartxo* liburua. Aurten betetzen dira beraz laurogeita hamar urte, eta Euskadiko Artxibo Historikoan *Gure Xabiartxo* erakusketa atondu dute, ekainaren 23ra arte zabalik egongo dena.

Ez dugu ukatuko curriculumak ezartzeko beharrezko diren testuliburuak, tresna didaktikoak izateaz gain, tresna ideologikoak ere badirenik. Ezin dugu beldur edo lotsarik izan behar hori onartzeko, hemen eta edonon gertatzen den errealitatea baita, orain eta lehen. Gaur egun ikasgeletan lantzen den curriculumaren zati handi bat testuliburuaren bitartez jasotzen da. Euskal Curriculumaren garapenerako, adibidez, Ikastolen Elkartetik sortutako EKI deituriko ikasmaterialak aitzindariak ari dira izaten bide horretan. Gero eta presentzia handiagoa dute IKTek, adibidez. Beraz, egun ezin da soilik testuliburuaz berba egin, euskarriak zabalagoak baitira.

Gure historiari begiratu, zeregin horiek talde pedagogikoetan sortu ziren hasiera batean eta, gerora, argitaletxeetara pasa zen prozesu hori. Hezkuntza legeek eta hezkuntza zentron hazkundeak behar bat sortu baitzuten arlo honetan. Kasurik txarrenean, kanpoko argitaletxeak testuliburuak euskaratu eta bertan saltzen hasi ziren. Euskal Herriko ikasgela askotan baliatu izan diren testuliburuak Euskal Herritik kanpo sorturikoak izan dira, aniztasun horretan denetariko ereduak aurkitzen dira egun ere. Eta kasurik onenean, sorrereta-ko talde pedagogiko eta argitaletxeen arteko aliantzak eratu

dira. IkasElkar dugu (Ikastolen Elkartea+Elkar) adibide hori; testuliburu berriak IkasElkarren zigiluarekin argitaratzen dira egun, hezkuntzari begirako edizio lanak, orokorrean.

Herrietako curriculumak

Beraz, hezkuntzaren antolaketa ezin da izan legeetatik soilik ordenatua, gizartean hurbilen dituen gertakari eta eragileek eraiki eta garatutako iritzietatik ere gidatu behar da. Gizartean islatzen den aniztasun zabalak eskolaren egiteko eta antolamendua egokitu ohi izan du. Begira bestela Euskal Herrian kokaturiko erdal ikastetxe askok hartu duten norabide aldaketa. Hezkuntzaren printzipio unibertsalak eta tokian tokiko ezaugarriak barnebildu nahi badituzte, ez dute beste aukerarik izan berritzea baino. Euskal gizartearen kultura eta berorren ikur den hizkuntza, euskara, alegia, abiapuntu hartu baitira, eta horrekin batera zelofanezko beste aldaketa asko ere. Euskal Herriari (bizi dugun errealitate) euskal hezkuntza eredu bat gauzatzea dagokio. Baina sortze lan horretan edo adoste bide horretan ez dut uste gure arazoa laiko, kristau, publiko, pribatu... etiketetan dagoenik, esango nuke ez garela ados jartzen euskalduntasunetik eta euskaratik erakitako euskal hezkuntzak behar duen babes eta ahaleginean.

Euskal Curriculumak, hezkuntza sistema nazional bati erantzungo dion tresna izanda, ez lioke bakarrik euskarazko irakaskuntzari erantzun behar, hizkuntzarekin batera joan behar du kultur transmisioak ere. Testuliburuak betikotuko dituzte (gero eta epe laburragoetan) hausnarketa horiek, baina testuliburu horien osagarri izango diren materialak sortzen ari dira herriz herri, tokiko errealitateari erantzuten dioten curriculumak.

Herrietako kultur ondarea transmititzeko helburuarekin abiatu dira hainbat prozesu: Errenteria, Oñati, Ordizia... Curriculumak sortzeko prozesuan, herriko ikastetxeak, udala eta guraso taldeak daude batera lanean.

Orion, adibidez, bertako curriculuma eskoletatik herrira eta herritik eskoletarako ibilbidea egiten ari da. Ezagutzak bi norabide behar ditu izan, Orioren ezagutza edo herriaren izaera definitzea hezkuntzatik harago herriko eragileei ere badagokielako. Aurretik esan bezala, eskola gizarteak eratu eta mugitu duen erakundea delako. Gainera, curriculumaren kontzeptuak ez dira estatikoak, etengabeko aldaketek loturik daude eta eskola esperientzietatik harago ere kokatzen dira. Curriculum planifikatu gabeko beste eskola esparruetara ere zabaltzen da; beraz, gela barrutik patiora eta herriko plazara.

Arabar Errioxan mugaren mugak

Eskolaren kanpoko baldintzek moldatzen dituzte ikastola bakoitzaren ezaugarri edo soslaiak. Hau da, nor bere nortasuna eta egiteko-eragiteko moldea finkatzen du, eskola bakoitza autonomoa izanik kide den saretik. Ezin da, beraz, eskola zentro guztiez berdin hitz egin; bakoitzak bere beharrak dituen moduan, bakoitzak bere heldulekuak ditu. Kokatu gaitezen Arabar Errioxan, ardoaren eta upategien lurrian, Ebro ibaiaren ertzean dagoen eskualdean. Muga-mugako herri laboraria dugu Lapuebla de Labarca, Ebroren bestaldean zapaldu daiteke Espainia.

Euskararen galera modurik gordinenean gertatu zen lurralde honetan sortu zen Assa ikastola 1979an Lapuebla de Labarca herri txikian. Araban gertatzen ari ziren mugimenduen baitan kokatu beharra dago: 1977an Arabako Foru Aldundiak euskara ondare kultural izendatzea, ikurrinaren legeztatzea... Izateko nahi baten errepresentazio hutsa ari-keta demokratiko bihurtzen da Lapueblan. Garai horietan, eskuineko alkatearen ezetza ikusita, ikurrina udaletxean jartzearen gaineko erreferenduma eskatu zuten herritar batzuek eta eskuineko alkateak baimendu (ezetza nagusi izango zela pentsatuz). Euskararik ez baina izate bat bazuten herritar

haiek sortu zuten ikastola. Zailtasunen aurrean haziz joan da euskara eta euskalduntasuna eskualde honetan.

Bestetik, 1993ko Euskal Eskolaren Legea traumatikoa izan zen Arabar Errioxan. Unibertsitate bitarteko ikasketak euskaraz egitea bermatu nahi zuten, ikasleen norabidea hegoaldera (Ebroz bestaldera) baino iparraldera izan zedin eta euskaraz. Ekonomikoki eta administratiboki ere itolarria ekarri zuen prozesu horrek guztiak, baina batxilergoa, sare publikora sartu barik, eskaintzea lortu zuen Assa ikastolak. Hemen esan deza-kegu hasi zela eskola-komunitate bateko kide guztien arteko elkartasuna, konpromisoa eta parte-hartzea indartzen eta trinkotzen. Gaur egunera arte eredu bihurtu den eskola-komunitateaz gaindiko trinkotzea: guraso, irakasle, ikasle, herriko erakunde eta eragileen artekoa, hain zuzen ere.

1993ko egoera larritik 1994ko Araba Euskaraz gogoangarri hura egiteko indarra eta ilusioa pilatu zuten. Maila kulturean egosten eta errotzen ari zenaren ispilu izan zen jai hura. Hertzainak taldearen doinuarekin eta Jon Sarasuaren hitzekin atondu zen *Non eta mugan* edizio arrakastatsu hura. Abestiak, aurretik aipaturiko sortzaileez gain, honakoak ere izan zituen kolaboratzaile: RIPeko Mahoma, Bizkar Hezurrrako Triku, Evaristo eta Tito musikariak, Amuriza, Elortza eta Iturriaga bertsolariak. Bideoa, berriz, zinema, antzerki eta kirolaren mundukoek ekarpenarekin egin zen: Bajo Ulloa, Karra Elejalde, Eloi Beato, Karanka, Ritxi Mendiguren, Basconiako jokalaria...

Bertako eta kanpotik (Arabatik eta beste probintzietatik) etorritako irakasle gazteen ekarpena handia izan zen ikastolako martxan. Herriko hainbat pisutan bizi ziren irakasle horiek, eta, unibertsitate garaian hirira doan gaztearen antzera, ikasle bizitza egiten zuten laborari giro erdaldunean; herrian, beraz, 24 orduko inplikazioa zen horiena. Horietako askok bertan hartu zuten bizitokia eta muga hartan bertakotu dira. Beraz, herriaren eta ikastolaren artean eraiki zen giroa ardatza izan zen euskal giroa sendotzeko. Upategien bueltako gizonen ohitura omen zen astearteetako pala partida eta

ostean upategiko afaria. Erritual horretara hasi ziren joaten ikastolako pare bat irakasle; handik gutxira, erritual hori gizon zein emakume eta irakasle-herritarren arteko asteroko hitzordu bihurtu da, gaur arte iraun duena. Ikastolako arazo eta konponbideak ere bertan garatzen ziren eta kultur mailako gonbidatuak izaten ziren eta dira sarri asteartetan.

Esan bezala, eskolako kanpo baldintzek oso desberdin egin dezakete ikastola eta eskola bat eta, zelan ez, curriculum baten ezarpena. Assa ikastolako gazteen kultur erreferenteak, elkarbizitza egoki baterako sentsibilitatea, heldutasuna eta euskararekiko duten motibazioa zein diren ikustea besterik ez dago. Neurgailurik edo ebaluazio frogarik balego horretarako, ez litzateke nire iritzia soilik izango.

Eskola gizarteratzeko prozesu bat da, hasieretako urratsa, sarritan. Haur, nerabe eta gazte hori egungo eta etorkizuneko agertokian jarri nahi dugu, eta horretarako geureak ditugun tresnak eman beharrea gaude. Testuliburu onenek ere ez dute eragingo aldaketa, ez badago giza sistema kultural bizi bat egitura hori eusten; horrela errazago bihur daiteke hezkuntza sistema konpetente. 🍷



Ekonomia

Henrike Galarza

Doaneko diruaren jaia amaitzera doa

Joan den maiatzaren 22an, Janet Yellen-ek, AEBetako Erreserba Federalaren Sistemako Gobernadoreen Kontseiluko buruak, hitzaldi oso pedagogikoa egin zuen Providence (New Hampshire) hiriko Merkataritza Ganberan; bide batez, bere garaian hango Brown University-ko ikaslea izan zela gogoratu zuen. Funtsean, ekonomian ezer ez dela ziurra azaldu zuen, irakasle hobereenen umiltasun eta gardentasuna lagun. Horrela, FEDen zazpi kideek ez dakite ziur ongi egiten ari diren, baina, 2015. urtearen amaieran, interes tasa igotzera doa, haien gehiengoaren ustean hazkunde ekonomikoa egonkorra izaten laguntzeko. Izan ere, AEBetan langabezia tasa biztanleria aktiboaren %5era hurbiltzen ari den honetan, 2016ko amaierarako hango lan merkatuaren egoerak inflazioa (ber)piztuko duelakoan daude, soldaten gaur egungo maila txikiegia eta estatistiken benetako esanahia gorabehera.

Edonola ere, interes tasaren igoera 'homeopatikoa', adjektiboa gurea da, iragarri zituen Yellen andreak, egoera ekonomikoaren arabera ezberdin egiteko prest zegoela argi eta garbi utziz, baina. Hitzaldiaren mezua helarazita ere, munduko lehen potentzia ekonomikoaren agintari monetario nagusiari ñabardura batzuk bidean geratu zitzaizkion. Erraterako, interes tasaren igoeren aroa poliki-poliki hasteko arrazoia omen da neurri monetarioek salneurrien gainean eraginik izateko hartu ohi duten denbora tarte luzea, 12 hilabete gutxi gorabehera; baina, aldi berean, beldur da tasaren igoera txiki horiek inbertsioaren eta lan kontratuen aurreikusitako bilakaeren gainean izan ditzaketen epe motzeko eraginez. Oso bereziki, ez badute soldata maila baxuek

igo behar, pixkanaka-pixkanaka haiek ere bai. Bertzaldetik, barneko ekonomiari begira egindako hitzaldia izanda ere, interes tasaren igoerak dolarraren euroarekiko balioaren gaineko eragina arestian aipatu bazuen ere, ez zion gehiegizko garrantzirik eman, nahiz eta AEBetako esportazioen lehia-kortasuna nozituko dutela ia aditu guztiek pentsatu duten.

Azkenik, baina inondik ere ez garrantzi gutxiagoz, AEBetan azken urteotan moneta kopurua ikaragarri hazi ondoren, Erreserba Federaleko Bankuan eta banku pribatuen kontabilitateetan zorren hazkunde simetriko erraldoia pilatu da, likidezia lortzeko eskatu behar izan zituzten interes tasa txikiko kredituei dagokiena, hain zuzen. Hori horrela, ulertzekoa da tasaren igoerak tentuz kudeatzen saiatzea, kapital merkatuetan finantza-aktibo horien kotizazioek egun batetik bertzerajaisiera ederra izan ez dezaten. Finean, Lehman Brothers bankuaren zorigaiztoko porrotetik ia zazpi urtera, oraindik ezin uxatu krisialdi finantzario orokorraren mamua, banku zentralena barne.

Greziako jendearen borroka

Draghi jaunak, Europako Banku Zentralaren lehendakariak, beldur eta ahalezko porrotez jakin badaki. Greziaren ekonomiaren arazoak era ulergaitz batean Eurogunearentzat hil ala biziko kontua bilakaturik –‘ulergaitz bezain susmagarri’ gehitu beharko genukeelakoan gaude–, aditu eta finantza-bi-tartekarien erranetara aritu behar du EBZk. AEBetako kasuan bezala, finantza-aktibo ugariren balioaren berehalako jaisiera basatia ekidin nahi da, Greziaren ahalezko porrot ekonomiko-finantzarioak Atlantikoz bertzaldeko tasen igoeraren eragin berbera izan dezake eta.

Greziaren ekonomiarako azken orduko konponketa aurkitzen hamaika bider ibili ondoren, negoziatzeko tarte amaitzen ari zaio Tsipras jaunak zuzentzen duen gobernuari. Merkel andrea, Hollande jauna eta troikaren ordezkariak,

Europako zein nazioarteko interes boteretsuenen izenean, temati ari dira Greziako jendeari gastu murrizketa gehiago eskatzen, «sufritu dezatela baina ez gehiegi» lelo politiko-ekonomiko baliagarria izango balitz bezala. Ikustekoa da antzerki diplomatiko hura tragedia edo amaiera zorionsuko kontaktuzuna izanen den; baina, dagoeneko, ezin argiago geratu dena sistema kapitalistaren gupidarik eza izan da. John Maynard Keynes ekonomialariaren hitzak datozkigu burura: «Nazioen atzerriko zorrak soilki ordaintzen dira herrien duintasuna errespetatzen den heinean; horrela ez bada, ez dira inondik ere ordaintzen».

Hauteskundeen emaitzak

Zaila da oraindik Estatu espainoleko zenbait Autonomia Erkidego eta tokiko erakundeetarako izan berriki diren hauteskundeen benetako ondorioak zehaztea. Erabateko gehien-gorik gabeko egoeretan, politika demokratikoak helburu herrikoiak adosteko gaitasuna frogatu behar duelakoan gaude. Horretarako, 'sukalde' lan isil eta kementsua ezinbertzekoa da, ahalezko partaide politikoen aldeko umiltasun eta jendearekiko konpromiso garden eta tinkoaren laguntzaz. Hego Euskal Herrian pairatzen dugun banaketa politiko-administratiboaren ingurumarian, porrot eta garaipen erlatiboak ere banatu dira. EAJ-PNV eta PSE-PSOE alderdiek Gipuzkoan arnasa hartzeko emaitzak lorturik, Bizkaiko jeltzaleen gotorlekua ziurtatuta, prest omen daude haien zuzendaritzak EH Bilduri azken lau urteetako txanpona itzultzeko. EH Bilduk, Gipuzkoan behintzat, hezkuntza lana, egindako akatsez gain, nahiko garesti ordaindu duela pentsatu dugu, eta ez soilki hiri hondakinen kontura. Izan ere, Nafarroa Garaiko Barkos andreak ongi badakiela erakusten ari den ildoan, boterea erabiltzeko bide eta formak helburu politikoak bezain garrantzitsuak dira zalantza izpirik gabe, are gehiago Gipuzkoako jeltzale eta sozialisten oposizio basatiaren aurrean. Datozen

tokian tokiko agintari berrien politikak aurrerapauso edo atzerakada ekarriko duen hurrengo hauteskundeetan zehaztu arte, elkarbizitza sustatzea eta hiri eta herrietako jendearen egoera hobetzea dira babestu beharreko gehiengoaren aldeko helburu nagusiak. Bitartean, Ciudadanos eta Podemos alderdi etorri berriek ezarri nahi duten politika egiteko estilo eta antolaketa ezberdinek norainoko eragina izanen duten, bereziki alderdi horien bozkak agintaritza berria hautatzeko beharrezkoak diren leku eta erakundeetan, ezezagun nagusietariko bat izanen da. Ziurtasunik eza gairatzeko bidean, krisialdi ekonomikoaren aurrean hartu beharreko lehenengo neurriak lirateke adierazle egoki bat, *casta*-ren ezagutu ditugun politiken aldean. Ez dago bertze modu batean aritzeko tarte zabalik, baina, egon, badago.

Azeria oilotegiaren eskolan

Estrategia komertzialez dakitenak bankuak dira. Egun bateko albistea izan eta gero gehiagorik entzun ez badugu ere, esanahi eta ondorio sakonak dituen ekimen publiko-pribatu bati heldu nahi diogu: datorren ikasturtetik aurrera, boluntario aurkeztu omen diren berrehun baino aditu bankario gehiagok eskoletako haurrei 'finantza eskolak' emanen dizkiete, Rajoy jaunaren gobernuak bultzatutako programa berri baten barruan, inolako negoziaketarik izan gabe, noski, Wert ministroaren paregabeko harropuzkeria eredu. Boluntario horien kualifikazio pedagogikoak ez ziren aipatu albistean, bai oster parte hartzera zihoazen Estatu espainoleko banku pribatu nagusien markak, finantza eta onibar merkatuetako burbuilak puzten lagundu zuten berberak, hain zuzen. Tormesko itsuak mutikoari «kalte egin dizunak sendatuko zaitu» erraten zion moduan, hondamendira eraman gintuztenen eskuetan utzi nahi dute haurren hezkuntza ekonomiko-finantzarioa, hezkuntza komunitatea baztertuz inolako lotsarik gabe. Anekdotak gisa, behar horretarako prestatu duten

liburuxkan, gastuen artean lehentasun maila ezberdinak zehaztean, hipoteka, kreditu txartel eta aseguruiei dagozkien gastuak argindar edo elikagaiei dagozkienak baino premiazkoagotzat jotzen dira, lehenengoak, bigarrenak ez bezala, kontratu legal baten ondorio sahiestezinak direla argudiatuta.

Beharbada, irakaskuntzan ari garelako ez dugu ekimen hori gustuko. Gure ustez, atzean dauden ideiak, aurreiritziak hobe, ezin okerragoak dira. Alde batetik, burbuila ekonomikoak, finantzarioak barne, jendearen ezaguerarik ezaren ondorioak direlako sinismena ezin dute burutik kendu aditu kapitalismozaleek, ez soilki haiek. Espekulaziorik gabeko sistema kapitalista posible dela erraten dutenek historiak dioenari ez diote kasurik egin nahi. AEBetako banku nagusiek gaizki egiteagatik, eta haien aurkako prozedura judizialak etetearen truk, aldizka ordaintzen dituzten isunak lekuko. Finantza- eta ekonomia-desarautzea bultzatu ondoren, kapital eta dibisa merkatuetarako autokontrola eta kode pribatuak lehenesten dituzten enpresa berberen arduradun eta goi mailako langileak izan dira urteetan zehar jokaera illegalak izan dituztenak. Bertzaldetik, hezkuntza ekonomikoa gela batean jorratu daitekeela pentsatzeak, bertze irakasgai arrunt bat balitz bezala eta inolako aurreko plangintzarik gabe, ‘pentsalari’ horien ezjakintasun akademikoa azalarazi bertzerik ez du egin.

Telebistari so

Telebistaren aurrean oso denbora gutxi eman ohi badugu ere, azkenaldi honetan ordu txikietako zenbait bitxikeriek harritu gaituzte. Etxe –jauregiak ote?– dotoreak erakusten dituen saioa, erraterako. Ez genuen jaso etxeak saltzekoak ziren-edo, baina etxeen desjabetze aro honetan halako telezaborra ikusteak nolabaiteko mina eman zigun. Zer erran prostituzioa babesten duten establezimenduak aurkezten eta erakusten dituzten saioei buruz? Eta enkanteak negozio

iturri gisa aurkezten dituztenak? Ez da argitu altzari eta gauza horiek desjabetutako etxeetatik datozen edo ez, baina dirua erraz lortzeko irudia bai eman nahi duela iruditu zitzaigun. Denetarik ikusi genuela pentsatzera iritsi ginenerako, hara non, bertze saio batean, pertsona biluziak agertu ziren, baso edo hondartza baten erdian, titi, alu eta zakilak ezkutatzeko pixelizazioa erabiliz. Saio haren nondik norakoaz jabetzeko astirik ez eta hurrengo esperpentoa aurrean genuela ohar-tu ginen: adin txikiko neska-mutiko batzuk bazkari bana prestatzen ari ziren txapelketa moduko saio batean. Non daude haur horien defentsarako erakundeak, eta senide edo tutoreak? Gainera, kate publiko batek emititurik! Gero datoz zozketak, poker txapelketak, eta aizto, elektrotresna edo ariketa fisikoak egiteko tresnerien salmentarako saio komertzialak. Eskerrak musika saio batzuk ere badauden... Ufa! Hauteskunde gauaren *zapping* luzeak biharamun mingotsa eragin zigun! 🍷



Ekina

Batzuek euskara (euskaldunok!) gaur egun arte historian iraun izana berba horrekin azaltzen dute. Ez dakit hala den, datuak falta zaizkit horretarako (baina litekeena da horrek ere zerikusia izatea). Baina argi daukat azken urteotako garapena, hein handi batean, berba horrekin definitu daitekeela.

Eta berba hori ekina da, behintzat Txorierri aldean duen esangurari lotzen bagatzaizkio. Ekina izateak hauxe esan gura du: tematia izatea, jarraitzea, ez etsitzea, behin eta berriz egin eta saiatzea. Baina, kontuz, adjektiboa da, pertsonak (eta animaliak) kalifikatzeko erabiltzen dena.

Manifestu itxurako testua irakurri zuen Lorea Agirrek azken Korrikaren amaieran. Euskahaldun lelopean, herri honen zoramen kolektiborik handienak, paregabeenak irribarra marraztu du gure mapatxoan beste behin, kolorez bete ditu bazterrok. Poza eta harrotasuna jariatzen baitira furgonetaren ihes-hoditik eta korrikalarien poroetatik. Eta lekukoaren barruan XXI. mendean euskaltasuna bizitzeko manifestu irudimentsua. Eta manifestu horretako berba gakoetako bat ekin izan da (egia da aditz moduan erabili duela Lorea Agirrek).

Albiste izan da, halaber, Gaizka Garitano derioztar entrenatzailea. Almeriako prentsa aretoan izan zuen jarrera ausartak hautsak harrotu ditu han eta hemen. Ez da ohikoa euskaldun batek bere hizkuntza duintasunez defendatzea publiko aurrean, antza. Hala ere, askok sare sozialetan gogorazi dugu Almeria ere bertan dagoela (#Almeriabertandago traolarekin, hain zuzen ere).

Nafarroa Beherean ere hango euskaldun kontzientziadunek erakutsi digute Almeria ere mugaren beste aldean badela.

Hango euskara elkarteek elkarlanean eratu dituzte lehenbizikoz Ipar Euskal Herriko barnealdean egin diren TELP tailerrak. Geure burua ahalduntzeko momentuz asmatu ditugun modurik eraginkorrenak dira tailer horiek, nire iritziz.

Egunerokoan euskara gehiago erabili nahi dugunontzat dira aproposak Katalunia aldean sortutako TELP izeneko tailer horiek (Emunek gurera egokitu eta ematen ditu). Atelier horietan egunerokoan erosoago eta tenteago ibiltzeko trikimailuak eta baliabideak eskaintzen dira, hainbat egoeratan sufritzen dugun deserosotasuna murriztu, hizkuntza jokabide asertiboak zer diren eta nola egin ikasteaz bat. Euskaraz eroso noiznahi eta nonahi sentitzeko tresnak, alegia.

Aipatutako hiru adibide horietan (Korrika, Garitano eta Baxenabarreko euskaldunak) ekina da berba gakoa. Askoz erosoago litzateke erdaren autobietan arin batean ibiltzea. Baina bide artezak ez dira beti izaten egokienak, ezta?

Outing

Euskahaldun leloa erabili du Korrikak, ingelesezko *empowerment* kontzeptua nolabait gurera ekarrita. Euskaraz, aldiz, lau aditz erabili izan dira *empowerment* kontzeptua azaltzeko: konturatu, jabetu, ahaldundu eta boteretu. Nire ustez, gradualak dira lau horiek. Lehendabizi konturatu egin behar gara zerbait ondo ez dabilela. Ondoren, jabetu behar gara egoera hori menpeko egoera dela. Hori egin ostean, ahaldundu egin behar dugu geure burua. Eta, azkenik, prozesu indibidual askotxo batzen direnean, boteretze kolektibora heldu ahal izateko modua izango genuke.

Baina hirugarren aditzean jarri gura dut arreta. Ahalduntzean, alegia. *Outing* egitea eskatzen duen prozesua da ahalduntzea. Gure erosotasun gunetik atera (armairutik atera) eta deseroso egon gaitzkeen egoeretara salto egin. Beste modu batera esanda (eta Lorea Agirrek barka biezat lapurreta beste behin), plazan sartu, bazterretik erdigunera egin.

Prozesu hori psikologikoa da, jakina, baina hori baino askoz gehiago ere bada. Soziala da, kolektiboa da, politikoa da. Izan ere, ahalduntzeak geure buruari euskara plana egitea eskatzen du ezinbestean. Zer gaitasun dut eta zeintzuk behar-ko nituzke? Zer eremutan praktikatzen dut eta zeintzuetan gustatuko litzaidake erabiltzea? Zer emozio, bizipen dut eta zeintzuk izatea gustatuko litzaidake?

Barrukoa ematen du, pertsonala, norberarena. Dimentsio sakonagoa eta potoloagoa du auziak, ostera. Gaitasun, praktika eta emozio horiek hobetzea gure esku dago hein batean. Hala ere, kontxo, hizkuntza partekatzea da batez ere. Eta sentitzen dut, baina geure buruarekin ditugun elkarrizketak kenduta, beste guztiak gutxienez beste pertsona bat eskatzen dute, nahitaez. Eta, horregatik, ezinbestean ahalduntze prozesuak aliatuak eskatzen ditu, lagunak eskatzen ditu, babestuko gaituztenak eskatzen ditu. Izan ere, prozesua soziala ere bada, talde mailakoa, jendartea eraldatu nahi den momentutik bertatik.

Eta ahalduntzea ere zentzu batean trebatzea da, ikastea da. Soziolinguistika domestikoa trebatzea, hain zuzen ere (gure kasuan behinik behin). Egunerokoa agertzen zaizkigun mila arazotxo soziolinguistikoentzat aterabideak bilatu nahi ditu soziolinguistika domestikoa. Eta horretan herren gabiltza oro har, salbuespenak salbuespen.

Baina kontuz. Denok beharko genuke oinarrizko formazio soziolinguistikoa (domestikoa nahi bada). Hala ere, ez zara meteorologoa izan behar haizearen norabidea zein den jakiteko (harako hark esaten zuen bezala). Eta, horretan ere, eredu izan daiteke feminismoa eta haren eraginez sortu diren Jabekuntza edo Ahalduntze eskolak. Eguneroko kontuei buruz trebatu eta entrenatzeko, aritu eta jakiteko.

Ikus dezagun ba, esate baterako, Tolosako Jabetze Eskolak bere buruari emandako definizioa (beste hainbat daude de non eskura Interneten bilaketa arina ginez gero):

Zer da Jabetze Eskola?

Ez da ohiko prestakuntza leku bat. Hori baino gehiago, erreproduzitu egiten du Mugimendu Feministak –emakumeok bizi

dugun errealitateari izena jarri ahal izatearren– sortu zuen jakintzaren produkzio kolektibo eta partekatutako metodologia. Esperientziak, jakintzak eta narrazioak partekatzea da kontua, baina baita gorputzaz disfrutatzea ere, eta diskurtsoak, artea, errebindikazioak produzitzea, hau da, munduaz dugun pertzepzioa aldatuko digun eta, aldi berean, mundua aldatzeko tresnak eskainiko dizkigun esperientzia bat bizi izatea.

Espazio hau emakumeon partaidetza eta jabetzuntza sendotzeko dago pentsatuta, eta gizarte justu, askotariko eta osoago bat lortzeko.

Beraz, erronka botako dut talaia honetatik: noiz irekiko du euskalgintzak lehen ahalduntze/jabetze eskola? Non? Nortzuk (euskara elkarteek, udaletako euskara zerbitzuek, elkarlanean)? Zer edukirekin? Dibulgazioa eta formazioa nork sustatuko du? Nork egingo du zabalkundea? Uste dut horrelakoekin esperimentatzen hasteko sasoi aproposa izan daitekeela honako hau.

Management

Soziolinguistika iturri askotatik edaten duen diziplina da. Artikuluan orain arte psikologiatik eta teoria feministatik (batez ere) edan badut, azken zati honetan kudeaketatik edango dut, enpresen eta erakundeen kudeaketa zientziatik, ingelesez *management* deitzen den horretatik, hain zuzen ere.

Xabier Erizek berriki idatzi du artikulu gogoangarria horren inguruan: ‘*Management*-eko kontzeptuak eta hizkuntza-plan-gintza’ (Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian argitara emana 2014ko uztailean).

Artikuluaren oinarrian honako galdera hau dago: «Nor dago euskara sustatzeko helburuen eta ekimenen erdigunean: herritarrak eta haien behar eta nahi linguistikoak, ala erakunde sustatzaileak eta haien interpretazioak eta nahiak?».

Izan ere, euskal soziolinguistikak galdetu beharko luke ea zergatik erosi beharko lukeen batek euskara. Ez da ohiko galdera eta, bere ustez, ikuspegi aldaketa ekarriko luke

hizkuntza plangintzan behinik behin. Hortik abiatuta, erdigunean jarriko lirateke herritarren kezka eta erabakiak. Eta, gainera, ez genuke jakintzat emango herritar guztiak euskarari onurak ikusten dizkiotela.

Horrek ezinbestean herritarren nahi eta behar linguistikoak ikertzea ekarri beharko luke. Eta, horrela, euskalgintzak ez litzuke horiek hartu behar euskararen mesedean edo sarien jasotzaile bezala, alderantziz baizik. Euskararen munduak ase behar dituen pertsonak dira herritarrak. Horretan datza aldaketa.

Azken finean, ikertu beharko genituzke zeintzuk diren euskaldun batek euskara hautatzeko izan dituen eta dituen arrazoi eta motiboak. Ikertu beharko litzateke funtsezkoa den galdera hori. Edo Xabier Erizeren berbetan esanda, hizkuntza batekiko leialtasuna oso lotuta dago herritarrak hizkuntza jakin batean lortzen duen asebetetze mailarekin. Eta horren arabera erabakiko du horrek hizkuntzari eustea edo hizkuntza alde batera uztea.

Eta, horrela, soziolinguistikaren muinean dagoen galderara heldu gara. Soziolinguistika, Ralph Fasold-en arabera, baka-rik existitzen da diziplina bezala pertsonok hautuak egiten ditugulako hizkuntzen erabileran (nik gehituko nuke hizkuntza bat baino gehiago dakigunok, baina tira). Eta, horrela, konturatuko gara gure kezka lokalek ere bat egiten dutela mundu mailako kezkekin, ez garela horren bereziak, haatik.

Orduan, zergatik jendeak, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko aukera izanda, nahiago du bata ala bestea erabili? Xabier Erizeren ustez, herritarrek bata ala bestea erabiliko dute haien lehentasun, nahi, balio eta beharren arabera. Gainera, hartuko dituzte kontuan aukera bakoitzak dakartzan onura eta kostuak (materialak zein ez-materialak).

Hortaz, euskalgintzak arrakasta izango du, bere iritziz, herritarrak euskararen bezero bihurtzen badira eta euskara erosten badute. Erabakia, beraz, herritarren esku dago, unean uneko zein iraupen luzeko prozesu indibidual eta kolektiboen bitartez. Berrito ere norberaren ikuspegia eta jendarte mailako ikuspegia bat eginda.

Izan ere, herritarraren (bezeroaren) nahiak, beharrak eta erabakiak jartzen badira erdigunean, nahi eta behar horiek eraldatzen egin beharko dugu lan. Hau da, beste berba batzuk erabilia, jabetze zein ahalduntze indibiduala eta kolektiboa aktibatzen egin beharko dugu lan (inoiz boteretzera heltzeko helburua gure begien bistatik galdu barik). 🍷



Ikus-entzunezko berriak

Youtube 2005ean sortu zen, eta urte bat beranduago Googlek erosi zuen 1.650 milioi dolar ordainduta. Momentu horretan dirutza hori ordaintzea harrigarria izan zen askorentzat, baina perspektibarekin hartuta ondo asmatu zutela argi dago.

Youtubek gidatuta, Interneteko bideo kontsumoaren garrantzia oso handia da eta fenomeno berriak sortzen ari dira bere inguruan. *Youtuber*-ak, adibidez, plataforma horretan bideo kanal bat duten pertsonak dira. Askok harpidedun gutxi dituzten arren, beren intereseko gauzak publikatzen dituzte. Jarraitzaile kopuru handia dutenek, aldiz, publizitate bidezko diru sarrerak lortzeko aukera dute, lanbide bilakatzerraino.

Youtuber famatuenetako batzuek –PewDiePie, Smosh, Vegetta 777, El Rubius, WillyRex...– hilabeteen dirutza irabaz dezaketela estimatzen da. Socialblade.com ranking webgunearen arabera, PewDiePiek 61.000-975.400 euro bitartean irabaz dezake hilabeteen, 731.600-11.700.000 urtean; El Rubiusek, aldiz, 23.200-371.000 euro hilean eta 278.300-4.500.000 bitartean urtean.

Oso gutxi dira beren ogibide egitea lortzen dutenak, baina argi dago fenomeno deigarria dela. Gaiak umorea, bideojoakoak, aisia, bildumen ingurukoak eta baita arropa eta modaren ingurukoak dira, azken horiek bereziki nesken artean.

Dirua bakarrik ez, opariak jaso edo bidaiak egiteko gonbidapenak ere jasotzen dituzte horietako askok. Hedapena lortzeko estrategien barnean, garrantzitsu bilakatu ditu pertsona horiek.

Fenomeno horrekin batera, bideo egile horien artean, ‘Margotu nire bizitza’ (*Draw my life*) bideo mota berezi bat ere

hedatzen ari da. Bideo horietan, pertsonaia bakoitzak bere bizitza kontatzen du marrazki bidez. Jarraitzaileek beren bideo egileei buruz gehiago jakin nahi izaten dute, eta bideoek pertsona horiek ezagutarazteko balio dute.

Herralde batzuetan jendarte mailako erreferentzialtasuna lortzen ari dira. Orain arte zinemako aktore eta futbolariak erreferente publikoek adina jarraipen lortzen ari dira gazteen artean. Gazteen lanbide gogokoenen artean ere agertzen hasi dira *Youtuber* izan nahi dutenak, bideojoko probatzaile eta komunitate kudeatzaile lanbide berriekin batera arrakasta izaten ari direnak.

Bideojokoen mundua, aldiz, fenomeno propio bat da bideo kontsumoaren inguruan ere. Aipatutakoen artean jarraitzaile gehien duten bideo egileak arlo horretakoak dira. Jokoak probatzen edo egiten diren partidak komentatzen dituzten bideoek arrakasta itzela dute sarean.

Youtube ez ezik, plataforma berezituak ere erabiltzen dituzte horiek, Twitch.tv da horietako bat. Partidak zuzenean jarraitu daitezke bertan eta komentatu, baita beranduago ikusi ere. Ingelesez era horretako bideoek *Gameplay* izena hartzen dute. Joko ezberdinetako bideo emisio komentatuak kanaletan sailkatuak daude; batzuk oso landuak dira, baina beste askok jokoko pantaila eta grabatzen duen pertsonaren aurpegia albo batean erakusten dute soilik.

Machinima-k (ingelesezko *machine* eta *cinema* hitzen nahasketa) era horretako bideoen bertsio aurreratuagoak dira. Bideojokoen pertsonaiak erabiliz, film moduko bat osatzean datza. Bideoen protagonistak pertsonaia animatuak dira, egileak gidatuta, gidoi bat jarraitzen dutenak filma osatuz.

Bideo horiek guztiak gurean ere jarraipen handia dute; gutxiago dira, aldiz, sortzen direnak, euskaraz behintzat. Salbuespenak salbuespen, Gamerautsia.eus atarian, komunitate horretako kideek grabatuta, zenbait jokoren inguruko *gameplay*-ak aurki daitezke.

Gaztea irratiak Youtuberrak izeneko leihaketa ere martxan jarri du. Youtuben euskarazko kanal bat daukaten norbanako

zein taldeek hartu dezakete parte. Urte bukaera arte bideoak jasotzen egongo dira eta sari ezberdinak ere emango dituzte: hileko bideorik onena, urteko bideorik onena eta kanalik onena saritzeko asmoa dute.

Fenomeno horiek guztiek argi uzten dute bideo produkzio eta kontsumo moldeak asko aldatzen ari direla. Bideoen gaiak eta hedatzen dituzten balioak batzuentzat ulertezinak izan badaitezke ere, ulertzeko esfortzu bat egitea beharrezkoa da.

Ana eta Mia

Ana eta Mia eufemismoekin ezagutzen dira sarean anorexia eta bulimia sustatzeko webguneak. Gaitz horiek dituzten neskak eta mutilak biltzen dituzten webguneak dira, eta horietan pisua gutxitzeko estrategiak, argudioak, gomendioak... ematen dira. Beren legalitatea jokoan dago, Espainia eta Frantzian errealitatea ezberdina delarik. Jende asko webgune horien aurka dago, gaixotasun horiek sustatzen laguntzen dutelako.

Jende gutxik ezagutzen du azpimundu hori. Komunitate moduko izaera duten webgune horietan, anorexia edota bulimia duten pertsonak batzen dira. Beren hitzetan, beren «bizi eredua» erakusten dute, baina gaixotasun horien apologia egiten da gehienetan.

Hiztegi propio bat dute, Ana eta Mia akronimoez gain; beren buruak printzesatzat dituzte (gehienak emakumeak dira) jaten ez dutenean, bestela zerriak deitzen diete beren buruei. Kolore kode bat ere badute, gorria anorexiarentzako eta morea bulimiarentzako. Kanean beraien artean ezagutzeko, kolore horietako pultserak erabiltzen dituzte batzuek.

Edukien aldetik, beren «bizi eredua» indartzen duten informazioa eta bereziki irudiak publikatzen dituzte maiz. Irudi horietan, erabateko argaltasuna erakusten duten pertsonak islatzen dira, pertsona horiek eredugarri bezala jarriz eta gizentasun txikiena ere erasotuz.

Beraien artean badirudi anorexia dutenek garrantzia handiagoa dutela, eta mezuetan ere nagusitasun hori azpimarratzen dute. Ezer jaten ez duenak irabazten du; horregatik, bulimia dutenetako batzuek anorexia dutenen nagusitasun hori errespetatzen dute, momentu batean jauzi hori ematea lortzea helburutzat ikusten dutelako batzuetan.

Larriena, baina, igortzen diren mezuak dira. Hemen bulimiari buruzko mezu horietako bat: «Bizio bat da, behar bat, ohitura bat. Mozteari, erretzeari edo alkohola edateari utziko ez diodan bezala, hau ere ez dut utziko. Mantso-mantso suntsitu, akabatu nahi dut nire burua gehiago sufritzeko, benetan sufrimendu hau guztia merezi dudalako».

Webgune asko dago, eta oso erraz topatzen dira sarean Ana eta Mia bilatuz gero (hemen gaztelerazko webguneen zerrenda eguneratu bat, adibidez: <http://listadeblogsactualizadosanaymia.blogspot.com.es>).

Espanian webgune horiek legalak badira ere, erregulatzeko eskariak eta saiakerak daude. Frantzian, aldiz, 2008tik ilegalak dira, arduradunek hiru urteko kartzela zigorra eta isunak jaso ditzaketelarik. Kezkatzeko modukoa, baina Interneten zentratu baino, eraikitzen ari garen jendarteari, sustatzen diren edertasun kanonei eta finean eratzen den dominazio sistemari begiratu beharko genieke. Webgune horietan icebergaren punta besterik ez gara ikusten ari.

Inoiz baino autoago

Kotxe elektrikoaren hedapena uste baino azkarrago gerta daiteke. Orain dela gutxi arte ezinezkoak ziruditen aldaketa asko bezala, kotxe elektrikoa ere gure jendartean dago jada. Hurrengo urteetan, aldiz, kotxe elektrikoak automatikoak izatera pasako dira.

Mundu mailan, kotxe elektrikoak edo hibridoak saltzen ari dira orain. Ez dira asko oraindik, baina gero eta zabalduegoa dago horien erabilera. Garraio publikoan, adibidez, ez

dira gutxi beren garraio sistema ibilgailu elektriko bidez egiten dutenak.

Hainbat enpresa garapen asko egiten ari dira zentzu horretan, baina nabarmentzekoa da Tesla enpresa. Ez bakarrik arlo honetan; gure etxeetan jarri ahalko dugun elektrizitatea metatzeko bateriek ere zeresan handia emango dute hurrengo urteetan, elektrizitate sorreraren eta sarearen beraren egitura deszentralizatzeko gaitasuna ematen baitute.

Gaira bueltatuz, bere aurka kontzesionarioek eta petrolioarekin lotutako industriek jarritako trabak izango dituzte. Gauzak horrela, Teslak, bere kompetentzia izan daitezkeen beste kotxe elektrikoekin lehian egon arren, bere patente batzuk askatzea erabaki du.

Aldaketak etorri behar badu, kotxe elektrikoentzako merkaturak aurretik dagoen ohiko kotxeen parkearen ordezkapenetik etorriko da, ondo dakite hori. Patenteak edozeinek erabiltzeko aukerarekin, kotxe elektrikoaren adopzioa azkartu nahi dute eta aldi berean erreferente bilakatu.

Kotxe elektrikoa oraina bada, etorkizuna, aldiz, kotxe elektriko autonomoak dira. Berrikuntza hori ere uste baino gertuago egon daiteke. Tesla enpresako arduradunek oraintxe aterako dituzten kotxeak %90ean autonomoak izango direla adierazi dute. Kotxe autonomo bat ulertzeko beren era hau xe da: bertan sartu, lo hartu eta helburuan esnatuko zara.

Teslaren baina baita Googleren arabera, 2020an jada eskuratu ahal izango dira horrelako autoak merkaturan. AEBetan 2025erako ohikoak izan daitezke, eta 2030erako, aldiz, orokortzen hasi. Datuak AEBetarako dira, eta datuak datu, errealitate izan daitezkeen eszenatoki bat jartzen dute mahai gainean, 15 urtera ez bada 25era.


Horrek izugarritzeko aldaketak ekar ditzake, batez ere gure herri eta hirietan. Kotxe partikularrak erabiltzen ditugun moduan, kotxe gehienak sobera lirateke. Kotxe automatikoz osatutako taxi autonomoen sare batek, adibidez, hirietan kotxe partikularra erabiltzeko ohitura eraldatuko luke. On do eginez gero, kotxe parkea asko murriztuko litzateke eta

jendearentzako espazio erabilgarri gehiago lortu. Horretan ari da jada Uber enpresa, adibidez.

Kotxe fabrikazio enpresa handiek ere eraldatu beharko dute. Izan ere, milaka pertsona langabezian gelditu daitezke edota lan berriak sortu kotxe horien inguruan. Ekonomian mugimendu handiak eragin ditzakeen aldaketa bat da.

Ikusteko dago oraindik izango diren aldaketa horiek guztiak jendarteak onartuko dituen. Jokoan dago, aldi berean, aldaketak hoberako izango diren ere. Klimarentzako seguruenik bai, baina zer gertatuko da libratzen den espazio eta denborarekin, jendartearen mesedetan izango ote da? 🍷

Izaro uharteari begira. 2015eko uda.



Jakin ^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

